



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



Jon KANFLANKA  
→ 55

Hirugarrenez Nafarroako txapeldun segan

2017ko uztailaren 13a | XXXVII. urtea | 690. zenbakia

**Herrietako bestak**  
Ituren, Arano, Elgorriaga eta Elizondon

**BERA → 25**  
'Harritik Hazia' antzerkia  
uztailaren 21, 22 eta 23an

**GOIZUETA → 40**  
Karmen bezperako festa  
uztailaren 15ean

**LEITZALDEA → 42**  
Turistentzako euskara  
hiztegitxoak egin dituzte

**KIROLA → 55**  
Euskal Herriko txapeldun  
izan da Onsalo arpanean

**BAZTANDARREN BILTZARRA** | Uztailaren 16an

ARGAZKIA: ONDIKOL



## Hamabortz herriak biltzeko eguna

Amaiurtik Almandozera eta Oronoz-Mugairitik Erratzura. *Baztanen eskuara barra-barra* lelopean, Baztango hamabortz herrien besta haundia ospatuko dute uztailaren 16an Elizondon. Eskulangileen azoka, baztandarrek beraiek egindako orga ikusgarriak, herri bazkari jendetsua, dantzaldiak... Egun osoko besta ziurtatua izanen da aurten 54. edizioa beteko duen Baztandarren Biltzarrean. Aldi honetan, Baigorriko Basaizea Kultur Batasuna omenduko dute. → 44



### Hiru hamarkada eta oraindik ere ilusioz

Sortu zenetik 30 urtera, eskualdeko enpresarik indartsuenetako bat da Martiko. Auniz dira Martikoren fabriketan lanean ari direnak eta gainera, eskualdearekin konpromiso argia du.

**ERREPORTAJEA → 3-5**

**PILOTA → 55**

### Nafarroako Herriarteko txapela Doneztebera laugarren aldiz

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketan, laugarren txapela jantzi du Doneztebe-ko taldeak, eta lauak Iruñeko taldearen kontrako finala irabazita.

**ZOKETAK → 64**



Txartela egiteko deitu  
**948 63 54 58ra** edo  
idatzi **info@ttipi.eus**  
helbidera.



**AVIA****E.S. SANTESTEBAN**

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679 | info@essantesteban.com

▶ **KOTXE GARBITEGI  
BERRIA!****ShineTecs®****“KONPONTZE EFEKTUA”  
duen pintura babeslearekin**

- > “Acrylionic” formula patentatua.  
Argizaria baino hobe.
- > Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
- > Distirak denbora gehiago  
irauten duela bermatzen du

[www.doneztebe.com](http://www.doneztebe.com)▶ **FURGONETA  
GARBITEGI BERRIA!****2,60m bitarteko  
furgoneta edo kotxea  
garbitu gurean!****emakumeena ez bada ageri,  
ez da kontatzen egia**oroimen historikoan oinarritutako  
herri-antzerkia

# HARRITIK HAZIA

**UZTAILAREN 21, 22 eta 23an**

(ortziralea, larunbata eta igandea)

**BERAko kultur etxean | 20:00etan****TAULA ZUZENDARIA:**  
Ramon Albistur Marin**ANTZEZLEAK ETA TEKNIKARIAK:**  
OROIT(H)ARRI herri antzerki tailerra**SARRERAK**  
8 € (aitzinetik erositak; uztailaren 15era arte)  
10 €  
20 € (sarrera + laguntza ekonomikoa):  
sarrerarekin batera Maddi Irazokiren grabatua  
jasoko duzu**SALGUNEAK**  
Beran: Berako turismo bulegoan  
(Eztegara pasealekua, 11)  
Interneten bidez  
[www.bibe.me](http://www.bibe.me) plataforman**+ INFO**  
[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.uhartean.com](http://www.uhartean.com)  
[herriantzerkia@gmail.com](mailto:herriantzerkia@gmail.com)

ANTOLATZAILEAK

**roimena**  
Berako Herriko Antzerki Taldea**UHARTEAN**  
Berako Herriko Antzerki Taldea**BERAKOAGENDA**  
Berako Herriko Antzerki Taldea**BERAKOAGENDA**  
Berako Herriko Antzerki Taldea

GIZARTEA → MARTIKOREN 30. URTEURRENA

# 30 urtetako lana eta ilusioa arrakastaren gakoa

Eskualdeko enpresarik indartsuenetako bat da gaur egun Martiko

«Ez da deus ere erraza, baina 30 urte egin ditugu eta bertze 20 guttienez egingen ditugu». Halaxe, ilusioz eta aitzinera egiteko gogoz dago Joseba Martikorena Martikoko zuzendari nagusia.

31 urte beteko ditu abuztuan enpresak, eta eskualdearekin duten konpromiso argia azpimarratuz, kanpoan saldu bai, baina lana etxean egiten segituko dutela adierazi dio TTIPi-TTAPari.

## G. PIKABEA

Nola ere, hala bildu. Horrela dio esaera zaharrrak. Eta Peio Martikorenak urteetan egindako lanak bere fruituak eman ditu. Guttik pentsatuko zuten Arantzako Mutikoren borda baserrian aha-teekin lanean hasi zirenak hiru hamarkada beranduago eskualdeko enpresa indartsuenetako bat izatera ailegatuko zirela. Baina datuak dira arrakastaren lekuko. Ahatekietan ari den Martikok 30 urte bete ditu (abuztuan 31 egingen ditu), baina familiako negozioa ez da horrat mugatzen. Gehiago da, eta lau ardatzetan zatitua dute: ahateki eta izokinekin lan egiteaz gain, lumekin ere ari dira eta bentak ere badituzte. Horietan guztietan, 700 langile dituzte Nafarroan eta horietatik 570 gure eskualdean, hau da, Endarlatsa, Urdazubi eta Belate tartean.

## ILUSIOAREKIN HAUNDITZEN

Miguel Goñi Mitxelena izan zen Arantzan aha-teekin lanean hasi zena eta berekin hasi zen Peio Martikorena. Hiru urteren buruan, hasieran Migomien enpresa zena, Martiko bihurtu zen, eta geroztik hiru hamarkada pasatu dira. Poliki-poliki enpresa haunditzen joan zen: «ahateak Arantzan hil eta Ibardin lan-tegi ttiki batean aritzen

ginen», dio Gregorio Mitxelenak Martikoko administrazioako kideak. 1991ko maiatzean, gaur egun Zalain industrialdean duten Martiko 1 lantegira aldatu ziren: «lehenagoko Izarra likore zahar-raren nabea erosi eta Ibardindik horrat joan ginen», dio Mitxelenak. 1992an izokinarekin hasi ziren lanean, eta 1998an gaur egun Zalain industrialdean duten lantegi nagusia egin zuten. Hiru urte beranduago, izokinen fabrika berria eraiki zuten, gaur egun, Xantelmar izenarekin ezaguna dena. 2005ean, eskualdetik atera eta Lerinera joan ziren «eta

## DATUA

570

LANGILE ESKUALDEAN  
Martikorenatarren  
negozioak 700 langile ditu  
Nafarroan eta horietatik  
570 eskualdean.

geroztik alderdi hartan egin ditugu granja berriak eta gainerakoak:

Mendigorría, Los Arcos, Lerín, Erriberri eta Esainen».

Joseba Martikorena Danboriena, Peio zenaren semea, Martikoko zuzendari nagusia da gaur egun, eta ongi ezagutzen ditu enpresaren harat-honatak. Etxean ikusi du enpresa nola hazi den. 2006an, Peio atxiki hil zenean hartu zuen gaur egun duen ardura, baita bere senideek ere. Gogotik lan egitea tokatu zaiela aitortu digu:

«ez da erraza izan».

Izan ere, bere hitzetan, Peioren heriotzarekin, «atta galdu genuen, baina baita gure maisua zena, lagunik hoberena eta segurtasuna ematen zizun bastoia ere. Nik bezala, nire anai-arrebek ere hala erraten dute». Hala ere, gaineratu digunez, «Martiko osatzen dugun jendearen laguntzarekin, ez da hain gogorra izan. Lagundu, errespetatu eta gure ideiak onartu dituzte, eta beti laguntzeko prest izandu dira. Jende hori gabe ezinezkoa izanen litzateke».

## LAN ETA LAN

30 urte hau-en balantzeko «ona» egin digu zuzendari nagusiak.





Baina ez dira egonean egon: «beti lanari, ardurari eta erakusteari lotuak ibili gara. Ahatekietan eta izokinarekin hasi ginenean, estatu espainiarrean ia ez zegoen kontsumitzeko ohiturarik. Aunitz erakutsi behar izan genuen». Jatetxeen laguntzarekin hasi omen ziren gehiago egiten, eta «etxeko kontsumora pasatu ginen gero».

«Espainiar estatutik kanpo saltzen hasteak krisiak eragindako egoera zaila gainditzen lagundu digu»

**Joseba MARTIKORENA**  
Martikoko zuzendari nagusia

#### KRISITIK ERREKUPERATZEN

30 urtez garai onak eta ez hain onak ezagutzea tokatu zaie. Krisiaren eragina somatu dutela ez baitu ukatu Martikorenak: «ez dugu oinarizko produktua bat saltzen, gurea produktua berezia da. Familiok zailtasunak izandu ditugunean, batetik, kanpora ateratzeari utzi diogu eta guk ostalaritzan gure tokia dugu. Bertzetik, etxean hitzordu berezi guttiago egiten ditugu, eta saltzen dugun produktua hitzordu bereziarako denez, krisia nabaritu dugu». Halere, «poliki-poliki» errekupe ratzen ari direla onartu digu: «Espainiatik kanpo saltzen hasteak egoerazail haugainditzen lagundu digu».

Momentu gozoak ere izandu dituzte. Sariak, erraterako. 2016an, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak Nafarioartekotzearen Saria eman zion Martikori nafarioarteko merkaturan izandako hazkundeagatik. Aurten, berriz, 30. urteurrenaren harira, Donostiako Kurasaaleko Gastronomia Feriak bertze sari bat eman dio, zuzendari nagusiarentzat.



**1** - Martikoko ahateak Arantzán, 1988an. **2** - Lehenagoko Izarra likore fabrika erosi ondotik, 1991n Ibañdik Zalainera aldatu zireneko irudia. Geroztik, berritua da gaur egun Martiko 1 lantegia dena. **3** - Martikoko langileak 1992an. **4** - Leringo langileak.

ARGAZKIAK: GREGORIO MITXELENA

ko «hagitz polita eta berezia» dena: «gure alde apustua egin zuten sukaldari horiek dira sari hau eman dutenak». Edozein moduz, badira hori baino sari haundia goak Martikorenarentzat: «dendako apaletik gure produktua hartu eta 'zure produktua gustatzen zait' erratea Martikoko lantalde osoarentzat sari haundia da».

«Dendako apaletik gure produktua hartu eta 'zure produktua gustatzen zait' erratea, Martikoko lantalde osoarentzat sari haundia da».

**Joseba MARTIKORENA**  
Martikoko zuzendari nagusia

#### BASQUE CULINARY CENTERREN

Duela bortz urte, Basque Culinary Center (BCC) gastronomía fakultatean sartzeko apustua egin zuen Martikok. «Hiru arrazoirengatik» egin zutela kontatu digu zuzendari nagusiak. Alde batetik, «Basque Culinary Center zazpi sukaldari horiek dira gu-

re atta Martikorekin hasi zenean, produktua Frantziatik ekartzeari utzi eta gurea erosten hasi zirenak. Aunitz lagundu digute gure ametsa aitzinera ateratzen, eta euren ametsen laguntzeko aukera izandu dugunean, ez dugu dudarik izandu», dio Martikorenak. Bertzelako arrazoiak ere badituzte: «urtean ehun sukaldari ate-


#### MARTIKOREN MERKATUA

### «Poliki-poliki estatu espainiarretik kanpo merkaturatzen ari gara»

Hiru adar ditu Martikoren merkaturak: alde batetik, espainiar estatuko ostalaritza mundua. Bertzetik, espainiar estatuko merkataritza-guneak, eta azkenik, estatutik kanpora dagoen merkaturak. Azken honetan, «duela gutti hasi zirela» kontatu digu Joseba Martikorena Danborienak, eta horixe da bizkortu nahi dutena: «pixkanaka-pixkanaka indartu behar dugu», dio.

Espainiar estatutik kanpoko merkaturaren kasuan, Erdialdeko Ameriketako bezero onak dituzte. Mexikon, Dominikar Errepublikan, Costa Rican eta Kolonbian «ongi saltzen» dutela kontatu digu zuzendari nagusiak, baina Asia aldean ere hasiak dira lanean: «batez ere Japonian». Hong Kongen ere ongi saltzen omen dute, eta Qatarren «hagitz ongi». Filipinetan ere lanean hastekoak omen dira. European, berriz, Suedian dituzte bezerorik finenak. Baina gehiago nahi dute: «mun-

duko mapan non saltzen dugun orbanak paratuta, oraindik orban tikiak dira. Kanpora joaten garenean, normalean kontsumo tikiak duten herrialdeak dira, eta eurei nor garen eta produktua zer den erakutsi egin behar zaie. Poliki-poliki ari gara», dio zuzendari nagusiak.





ratzen dira BCCTik, eta urtero ehun sukaldari berrik gure produktua eza-gutzeak bere garrantzia du guretzat».

BCCK nazioartean dueneragina izan da ber-ze arrazoietakoa bat: «na-zioartera begira erakus-leiho ona da. Espainia-tik kanpo lan aunitz egi-ten du, eta hori guretzat hagitz garrantzitsua da».

«Gu beratarrak gara eta Beran ez bada, inguruan segituko dugu gauzak egiten»

**Joseba MARTIKORENA**  
Martikoko zuzendari nagusia

### ESKUALDEAREKIN KONPROMISOA

2012an hasi ziren Martikon nazioartean lan gehiago egiten. Saldu kanpoan bai, baina lana etxean. Garbi baitio Josebak: «ez dugu enpre-sa ingurutik kanpora era-mateko inongo asmo-rik». Eskualdearekin kon-promiso argia dute: «gu beratarrak gara eta Be-ran ez bada, inguruan segituko dugu gauzak egiten. Langileak ere gu-rekin daude itsasontzi berean, eta aldatzeak ez du inongo zentzurik». Ge-hiago ere kontatu digu: «lanean berdin segituko dugu, gauzak ahalik eta hobekien eginez, eta ahalik eta lantalde elkar-tuena eginez. Horrek emanen dio jatetxean edo saltokian gure pro-duktoa hartzen duenari konfidantza».

Etorkizunari begira, produktua ezagutarazten segitzeko asmoa dutela ere azpimarratu digu: «jende berriari eta gazte jendeari produktua era-kusten segituko dugu. Horretan esfortzu haun-dia egiten dugu». Lane-an segitu nahi baitute, eta urte luzez gainera: «ez da deus ere erraza, baina 30 urte egin ditugu eta oraindik bertze 20 guttienez egiten ditugu».



1 - Martiko 1 lantegiko lantaldea. 2 - Xantelmar izokin fabrikako lantaldea. 3 - Micuit egiten, masetan eta sukaldean aritzen direnak. 4 - Etiketatu aritzen direnak. 5 - Zaisan ari den lantaldea. 6 - Produktuen kalitateaz arduratzen den lantaldea. 7 - Xantelmarreko administrazioan ari direnak. 8 - Xantelmarreko lantalde komertziala. 9 - Martikoko administrazioan ari direnak. 10 - Martikoko talde komertziala.

ARGAZIAK: GREGORIO MITXELENA





**Nire txanda**  
Zuriñe ZUBILLAGA

## Aukeratzuz erabaki

**E**rabakitzea aukeratzea da. Eta aukeratzea galtzea. Aukeratzea galduko ez den zati horri eustea da. Irudimeneko zati horri eustea. Bide bat hartzea da aukeratzea. Erabakitzea bi-dearen amaiera irudikatzea da. Fikziozko helburu horrekiko apustu egitea. Erabakia amildegi bat da. Salto egingo duzula pentsatze hutsak ikaraz betetzen zaituena, jautzian galdu ditzakezun gauza guztietan pentsatze hutsak izutzen zaituen amildegia. Erabakitzea imajinarioari bazka ematea da, ziurtasuna galtzea, etengabe galtzeko arriskuan egotea, lur jotzea, edo hegan egiteko aukera izatea da. Erabakitzea ohean jira eta bira ibiltzea da. Aukeratzea zuriari apustu egitea da. Beltzari apustu egitea da. Baina tamalez, ez duzu kolorearen berririk izango aukeratu arte, erabakitzea ausarta izatea baita.

«Erabakitzea  
imaginazioari bazka  
ematea da, ziurtasuna  
galtzea, etengabe  
galtzeko arriskuan  
egotea...»

## Ezpala

Aitor AROTZENA

### Aldaketaren formula

**N**afarroako PPrentsa-ohar bat irakurri ondotik, amesgaizto batetik ernatzerakoan izaten dudan sentsazio berdintsua izaten dut. Azken(aurrekoan) hala zioen, kimikari lanetan sartuta: «Nafarroako aldaketaren formula, zerga gehiago, euskera gehiago eta nazionalismo gehiago da eta horrek Nafarroa guttiago erran nahi du». Hori ulertzeko, zergatik ez ote niñuen zientziak ikasi?

## Nabarmentzekoak



Tiburtzio ARRAZTOA  
Txupinazoa Donezteben

Herri bozketan erabakita, Laxoa Elkarteko arduradunak bota zuen Doneztebeko San Pedro bestetako txupinazoa, kirol honen alde egindako lan oparoaren eskertza moduan.



Jon KANFLANKA  
Nafarroako txapeldun segan

Hirugarren urtez segidan Nafarroako segatxapelketa irabazi du leitzarrek. Uztailaren 2an Donezteben 1.711 kilo belar moztu zituen, Gorririko Berekoetxea mendean hartuz.



## Olatz BEOBIDE

### 'Goizuetan bada' zuzentzen

Landarte programaren baitan bi hilabetez landutako *Goizuetan bada* antzezlanaren plazaratu zuten ehun goizuetar baino gehiagok, Olatz Beobide aktorearen zuzendaritzapean.

**Atzera begira**  
→ 2007-VI-12 •  
LURRA 46 zk.



## Juanjo Elizalde goizuetarra betizuen egoeraren berri emanez

Duela hamar urte, LURRA aldizkariak bildu zuen betizuen egoeraren berri, *Oraindik salbu izan gabe, betizuen egoerak hobera egin du azken urteotan* goiburupean. Izan ere, «hamar urte lehenago 250 berezko betizu zenbatu ziren Nafarroan, gaur egun, berriz, 400 daude». Horietatik 50 Elizalderen zaintzapean: «Ahal den neurrian, baserritik bizi nahi dudanez, ezinbestekoa ikusi dut hemen go mendietara egoki moldatzen den aziendarekin lan egitea. Gainera, gure ondarea dugu betizua, desagertzeko zorian dagoena, eta bultzada behar duena», zioen abeltzain goizuetarrak.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Eredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josephine Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martin Bertiz, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Maroa Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale**

**Erakunde laguntzaileak** Leitzua, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

## 2017ko harpidetza sariak

|                                |      |
|--------------------------------|------|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 36€  |
| Leitza                         | 22€  |
| Hego Euskal Herria             | 42€  |
| Ipar Euskal Herria , Europa    | 75€  |
| Amerika eta Australia          | 130€ |

**Nafarroako  
Gobernua**  **Gobierno  
de Navarra**



**Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua**





## Kolaborazioak

### Desamortizazioak

Esteban IRUSTA MALLEA

Izenburuko hitza ez da egunero erabiltzen dugun horietakoa. Baina, XIX.mendean batez ere, zeresan asko emandakoa da. Garai haietan, Espainiako Gobernu liberalek herrien eta elizako erakundeen esku zeuden lurrak eta baliabideak bereganatu eta gero salgai jarri zituzten ekintzari deitzen zaio “Desamortizazioa”. Elizarekin lotutako erakundeak, ehundaka urtetan, herentziaren bidez, milaka lur sailen eta baliabide askoren jabe egin ziren. Beste aldetik, Estatuko Gobernuak leporaino zorretan sartuta zeuden. Eta handik edo hemendik dirua behar zuten zorrei eta gerrak sortzen zien gastuei aurre egiteko. Baina arrazoi hauei beste arrazoi batzuk gehitu behar zaizkie. Elizak botere, handia zuen. Neurri handi batean, irakaskuntza bere eskuetan zegoen, batez ere, Loiolako Inaztiok sortutako Jesuiten eskuetan. Gizartearen eragin handia zeukaten. Horregatik, ez da harrizkeoa, historian zehar, Jesuitak hainbeste nazioetatik kanporatu izanak, eta ondoren Estatuko Gobernuak beraien ondasunen jabe egitea. Espainiak 1767an erbesteratu zituen, eta hor izan zen lehenengo desamortizazioa. Geroago etorriko dira Godoy-ena, eta Jose Bonapartek egin zuena 1808an. Denek helburu berdina zuten: Dirua lortzea. Sasoi haietan, XIX.mende hasieran, Amerikako lurraldeak Espainiatik banandu ziren, independentzia lortu zuten, eta ondoren, diru iturri asko desagertu, agortu egin ziren. Eta egoera hobetu beharrean, beste guda berriek hustu zuten Estatuko diru kutxa, eta zorrak gehitu. Lehenengo Karlista Gerra (1833-1839) bizi-bizia zegoen, eta gastuak ordaintzeko, orduko Ogasun Ministroa, Mendizabalek martxan jarri zuen bere ezizenez ezagutzen den Desamortizazioa. (...) Gehienbat, Elizaren ondasunak desamortizatu zituen, baina salmentak ez ziren ongi egin eta ez zuten lortu Estatuaren zorrak ordaintzea. Gero etorri zen beste Desamortizazio handi bat: Pascual Madoz (1805-1870) nafarrak egin zuena. Hau, gehienbat, udalerrietako ondasunekin sartu zen. Sasoi haietan, herritarrek herri-basoak erabiltzen zituzten bere abereak bertara bidaliz, eta bertako beste ondasunak bereganatuz. Baina, lehen herriarenak ziren lurrak, orain jabe berriak zituzten. Erosle berriak lur sail handien jabe egin ziren. Ondorioz, herritarren egoera ekonomikoa txartu egin zen. Askok Amerikako bi-dea hartu zuten, eta beste asko hirietara joan ziren. Udal-erri askok bere autonomia galdu zuten. Beste aldetik, Andaluzian, batez ere, Latifundismoa ugaritu egin zen, eta landugabeko lurrak gehitu. Nafarroan pagadi eta harizti ederrak ezagutzen ditugu, gaur egun ere. Zorionez, desamortizazioa txikiago izan zen Nafarroan, eta herri batzuetan herritarren gastu orokor batzuk udalaren gain izaten jarraitzen dute. Euskal Herriko beste lurraldeetan, zuhaiztiak urritu egin ziren. Jabe aberats berri askok erositako basoko zuhaitzekin ikatza eginez ordaindu zuten baso sail handiak, eta ondorioz, oihan asko galdu egin ziren. Monastegi, komentu eta fraidetxeke balio handiko altxorak ere galdu ziren. Ezagutu ditugun Itunak, Estatuaren eta Elizaren artekoak, badute zerikusia, neurri handi batean, izan diren “Desamortizazioekin”.

### Manex berriz txorikumeekin

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Dagoeneko, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, Manex baserritarra ez zen erraz etsitzen duten horietako bat, ez, alderantziz, tenkorra eta amorerik ematen ez duten horietako bat zen, ordea.

Gauzak horrela, jadanik udan sartuta, gure mutikoa berriro ere ohartu zen, etxe ondoko beste sagarrondo batean, beste karnaba bikote bat habia egiten ari zela. Beste bikote bat al zen, ala agian lehengo berbera? Horixe ez dugu jakiterik izanen. Baina kontua zera da, bi txoriek tinko jarraitu zutela lanean eta egun jakin batean bukatu zutela beren etxetxoaren eraikuntza. Gero, berriro ere etorri zen arrautzak errutea, txitatzea, kumeak jaio-otzea eta hazkuntzaren prozesu osoa.

Horraino, Manexek erne baina lasaitasunez jarraitu zuen gertakari guztia, bai baitzekien horretan ez zegoela aparteko zailtasunik, aurreko kasuan frogatu zuen bezala. Beraz, estutasunik gabe itxaron eta, lehendabiziko aldi-ean egin zuen bezalaxe, txorikumeak nahiko koskortuta zeudenean, kaiola berriz ere hartu, zuhaitzera igo, hegazitxoak lapurtu gurasoak urritu ziren bitartean, eta espetxean sartu zituen, aurreneko saiakeran egin zuen bezala. Baina gauza bat oso presente eduki zuen, ordea, alegia, aurreko akats berbera ez errepikatzea. Horretarako, kaiola goiko adar mehe batean jarri zuen, enborretik urritu, eta gainera lokarri argal batetik zintzilik, era horretan, etxeko katuentzat ezinezkoa gertatzeko kaiolaraino iristea. Eta halaxe suertatu zen suertatu zenez; katuek behin ere ezin izan zuten kaiola ukitu.

Dena primeran zihoan. Txorikumeak ederki ari ziren handitzen, eta mutikoaren ustearen arabera, handik egun gutxi batzuetara bereganatu ahalko zuen kaiola, etxera eramateko.

Baina, zoritxarreko egun batean eguzkiak asko berotu eta ilunabarrerako egunduko ekaitza sartu zuen: tximistak, ostotsak, euria eta baita kazkabar- ra ere. Hozberoa ere asko jaitsi zuen bat-batean, eta zenbait minutuz gogotik eta indarrez bota zuen, hodeiak hustu arte.

Atertu zuenean eta denboralea urrundu bezain azkar, Manex urduri eta egonezinik ateratzen zuten etxetik, sagarrondo aldera joateko, ikusteko nola zeuden txorikumeak. Baina, susmatzen zuen hondamendia gertatua zen; bakar bat ere ez zen salbatu. Bota zuen euri eta kazkabar kopuruarekin, eta, gainera, indar bortitx harekin, karnaben kumetxoak zopa eginda gelditu ziren, batere babesik gabe: bustita, kolpatuta, itota eta hoztuta.

Hau beste porrot bat gehiago izan zen Manex gizajoarentzat. Dagoeneko ohitzen hasia beharko zuen galtzera. Ilunabar hartan ere, Manexek ez zeukan zergatik handirik pozik eta alai etxeratzeko.



**Irakurleak mintzo****Noizko besta zibilak?**Juanjo IRAZOKI  
ERRANDONEA (Bera)

Gure Txokoa elkarte akonfesionala izanik ez da ulertzen nola Bera-ko bestetan dantzari batzuk sartzen diren elizara dantzatzera.

Hogeita bost urtetan Gure Txokoaren dantzaria izan naiz –frankismoaren garaian– eta ez genuen horrelakorik egiten!

TTIPI TTAPAn (547. zenbakian) agertzen zen bezala (orain dela 6 urte):

«Koherentzia falta zaigu? Kontraerranean bizi gara? Ezkontza zibilak jada ohikoak dira, hileta zibilak hasiak dira... Noizko besta zibilak? Hor hausnarketarako gaia».

**Baztandarren Biltzarrerako deia****Baztandarren Biltzarra**

Baztandarrendako nahiz bisitariendako, DENENDAKO bestaizatea nahi dugu, beti ere elkarrenganako errespetuan oinarrituz. Hortaz, asmo horiekin ez dabilenari, etxean gelditzeko eskatzen diogu. Ez dugu INOLAKO ERASO SEXISTARIK onartuko eta edozein salaketan aitzinean dagoen protokoloa mar txan jarriko dugu erabateko gaitzespena erakutsiz.

Hau guzia erranda, uztailaren 16an denei Elizondora hurbiltzeko gonbitea luzatzea bertzerik ez zaigu falta. Hamabortz (eta ez hamasei) herriak, karrikan

**Bota bertsoa****Eneko FERNANDEZ MARITXALAR**  
(Lesaka)**Doinua:****Bizkorra ez naiz baina badaukat**  
**Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper**  
**lehiaketan 2. saria**  
(18 urtetik goiti)**Min-bizi-min**

Tumore hitzak sortu ohi digun bapateko izerdia  
Biopsia bat egin beharra ez denean huskeria  
Onkologiko bateko gela, irrien presondegia  
Metastasia, bi sínónimo pilatzen ditun egia  
“Ai, ze gaixoa, eria!” (bis)  
Nahiz zoritxarrez, gaur lexiko hau zaigun ohikoegia  
Nork jartzen dio minbiziari ume baten aurpegia. (bis)

Amagoia naiz izenez eta abizenez Azpitarte  
Bedetzi urte egin berriak, hamarkadaren atarte  
Guraso eta neba bakarra dun famili baten parte  
Gogoko leku gisa nitunak jolastoki eta parke,  
nire zorion uhartel! (bis)  
Bizi nintzena, ikusi nahi ez diren mamuez aparte,  
gaixotasunak nire etxeko aldaba jo zuen arte. (bis)

Ahulezia ta mina arrunt ez direnez haur bizitzan nire buruko oinazeekin arduratuta genbiltzan erietxera hurbildu ginen erantzun baten peskisan ama ta atta, bertatik irten ziren bi momia gisan, kontsulta infernu bailitzan! (bis)  
antza albiste ederregirik ez zen nire eri fitxan heurek ikusiz jakin nun zerbait txarra behar zula izan. (bis)

Nahiz teorian mundura inor ez den sufritzeko jai behin albiste jasotakoan lasaitasunari aio ta minbiziak tamalez bere ibiliari darraio  
nire burua zaharoztatzen egin arren mila saio “niri zergatik? Arraio!” (bis)  
Buru makur ta etsita baino, nik baikortasuna nahio atzera bueltik ez duen horri buelta eman behar zaio. (bis)

Kasu hauetan etsi ezker Ez baitaukazu zer egin “zure bizitza gal dezakezu” erraten dizute gordin  
Eritasunak ez du bereizten ez genero ta ez adin ta horrelako etsai batekin gelditi egoterik ezin haur izanik ere berdin (bis)  
dugun onena eman behar da aldaketa gauza dadin eritasuna, indar bihurtuz ta minbizia bizimin. (bis)

Agerikoa dut ebakuntzak utzitako ebakia, aspaldi hontan bidelagun dut buru gaineko zapia  
Ta jolastea bezain arrunta zait kimioterapia  
Sarri entzun dut “zein duzu zutik mantentzeko zergatia, hain da trantze basatia!” (bis)  
Erantzun ohi dut, garbi dudala adinaren jerarkia  
“haur txiki batek ezin du hartu hiltzeko erabakia”. (bis)

Ta txantxa ttiki honen bitartez kezka ohi ditut aldendu ahal den neurrian, izua zertan nire barnean mantendu? ta ezin badut, ama ta atta ezinbertzeko sostengu nahiz beraiei zalantza ere behin edo behin nabarmendu, ezkutuko sufrimendu (bis)  
Hil ala bizi joku honetan ezin daiteke atzendu beldurak berak mamua askoz handiago egiten du. (bis)

Beraz umorez jokatu ohi dut bizitzaren sokatira.  
Ez dugu zertan prestatu beti ziurra ez den despedida  
Ta minbiziak areagotzen duenean ofentsiba, une horietan alde bikoia soilik da alternatiba, borroka ala gupida! (bis)  
Itxaropentsu bizi gaitezke datorrenari begira, gure ametsak beldurak baino handiagoak badira. (bis)

Eta amets ez amets gainditzen noa pareko aldapa zapia buru gainean jarritz bilakatzen naiz pirata  
Karabelaren lema eskutan ez trumoi ta ez enbata!  
Ulises banintz gisara, hurbil senti dezaket Itaca, bandera beltz ta ezpata! (bis)  
Nire bihotza epizentrotzat duen altxorren mapa, behin esperantza hautatuz gero guztia posible da ta! (bis)

Bizitza hontan pairatuz gero tamainako lurrikara ume bat babes guttiagokin ikusten da behar bada  
Ta nahiz derrigor bilakatzen den ingurukoen bultzada aurre egiteko dagon armarik handiena norbera da hain arraroa al da ba? (bis)  
Bizitza bada jokoan dena soberan dago ikara gorputz ttikiak dauzkagu baina gertari handiak gara. (bis)

ikusitakoak, denak bestaren parte direla erakutsiz.

Orduen artio bada, Esker mile!

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

✉ e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) • ✉ Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

## Prentsatik bildutakoak



«Niretzat poliziak ez du sinesgarritasunik, eta Euskal Herrian gutxiago, egiaren bila joateko. Bertsio ofiziala defendatzeko bai ikusten dut naturaltasun osoz, baina egia bilatzen duena da errebeldea, antisistema edo ezkertiarra. Orduan, kinki bat, hori etortzen zitzaidan bertsio ofiziala dudan jartzeko».

**Ernesto PRAT**  
Baztango idazlea  
GARA 2017.07.01



«Ez dago kultura demokratikorik halako proiektu edo gaien inguruan. Badaude hauteskunde batzuk, non txeke zuri bat ematen zaien gailentzen diren politikariei, eta txeke horrekin uste dute nahi duten guztia egiten ahal dutela. Egiazki sinesten badugu demokrazia parte hartzaile batean, tresnak egon beharko lirakeke parte hartze bideak garatzeko».

**Jon ELIZETXE**  
Aroztegia... eta gero zer?  
BERRIA 2017.07.02

## 11 galdera labur

### Nor ditugu Oihana Calparsoro eta Nerea Ansa?

Aranora etorri berri garen 26 urteko bi donostiar gara.

### Zertan egiten duzue lan?

Biok diseinatzaile grafikoak gara eta duela urte eta erdi ireki genuen Alai Ondo Estudioan egiten dugu lan. Urtarrilean bulegoa Aranora ekarri genuen, Bixargorrira. Hemen bizi eta lan egiten dugu.

### Zein afizio dituzue?

Diseinu munduko aldizkari eta liburak irakurtzea, argazkiak atera eta marraztea. Aranoren gaude netik mendian paseatzeari gustu handia hartu diogu. Nerea, surfa egiten ere hasi da aurtan.

### Zer moduz sentitzen zarete herrian?

6 hilabete daramatzagu Aranoren eta herriarekin erabat maiteminduta gaude. Izugarri gustuko dugu hermengo lasaitasuna eta herritarren artean dagoen giroa.

### Herriko txokorik gustukoena?

Herri sarreratik Suro auzora dagoen bi-

dea. Zuhaitz, meta eta Añarbe-ko presaren bistekin.

### Zer du Aranok bertze herriek ez dutena?

Itsasoaren ikuspegia eta Plazako Ansa familia. Nerearen familiak primeran hartu gaitu eta gauza asko ikasten ari gara beraiekin; baratzeko lanetan, adibidez.

### Herriko ekitaldietan ere parte hartu duzue, zein duzue gustukoena?

Momentuz inauteriak. Adin guztietako jendea eta hainbat baserri ezagutzeko aukera izan genuen, jan, edan eta dantza pila eginez goizetik gauera arte.

### Bestazaleak zarete?

Oso! Baina azken aldian asko baretu gara.

### Eguna edo gaua nahiago?

Lehen gaua baina orain, nahia-go 13:00etan marianittoa hartzera atera eta gero geroakoak!

### Zein dira zuen kezka nagusiak?

Lanean gustura eta baldintza onetan aritu ahal izatea.

### Amets bat?

Askok ditugu, nabarmenena Alai Ondo proiektuak indarra hartzea eta asko bi-daiatzea.



**Oihana CALPARSORO-Nerea ANSA → Aranoren bizi diren gazteak**

**MARITX**

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikoak
- Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

**sarobe**  
gozotegia okindegia

pº de ezelegara 25 bajo  
34780 bera (navarra) t.948 63 08 99  
www.sarobe.net

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 - BERA

**KATEA BIKE**

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain,  
**GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK,**  
bizikleta estatikoak  
lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218  
kateabera@telefonica.net

MASSIMO ORBEA CONDA SCOTT LOOK

**F. LANCHAS**

Akutziladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Alberto RETEGI**  
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info



Ileapaindegia  
**EIDEA**  
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30  
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00  
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



**ITURENGO UDALAK**  
besta zoriontsuak opa dizkizue  
herriar eta bisitari guztiei



ONGI PASA BESTAKI!

**BEROTZA**  
PELLET

PELLET SISTEMEN SALMENTA, INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443  
info@berotza.es-www.berotza.es  
31745 ITUREN (Na)

**BEROGAILUA**



**GALDARA**



**OKINDEGIKO LABEA**



**GALDARA MISTOA**



# ITURENGO BESTAK

UZTAILAREN 14TIK 17RA

Argazkia: Itziar BAZTERRIKA ARRETIXEA

**Garbiñe OLAZAR****Iturengo gazte musikaria**

«Lehen aldiz igoko naiz talde honekin Iturengo oholtzara, berezia izanen da»

22 urteko neska gaztea da Garbiñe eta bizitzan afizio bat izan badu, hori musika da: «txikitatik izan dut gustuko, eta beti nirekin eramanen dudana zerbait izanen da. Gitarra ikasten hasi nintzen duela urte asko eta abestea ere atsegin dut». Etxetik plazarako jauzia egin eta aurren lehenbizikoz herriko bestetan joko du Xarma taldearekin. Herriarren aitzinean jotzea berezia izanen da: «xarma berezia du, dudarik gabe». Duela urtebete inguru jarri zuten proiektua martxan: «bost kidek osatzen dugu Xarma taldea. Maitanek trikitixa eta ahotsa, Joxerrak gitarra eta korduak, Txemak bajua, Oskarrek bateria eta nik ahotsa, panderoa eta tarteka gitarra jotzen dut».

**«Bestazalea naiz besta hori plaza giroan baldin bada. Zortziko eta fandangoak ez du parekorik!».**

Besten gibeletik dagoen lana ere ongi ezagutzen du Garbiñek besten antolakuntzan aritzen baita: «Bilera egiten dugu gazte, heldu eta Udaleko kideek eta ardurak banatzen ditugu. Nik normalki musikaren ardura izaten dut eta talde ezberdinekin kontaktatzen dut, prezioak negoziatzen ditut, ordutegiak...». Horretaz gain, txoznaren bueltan ere badabil: «txozna jartzen dugu herriko plazan eta aurretik ordutegiak zehaztu eta lan egiteko gogo duen jendea aurkitu behar izaten dugu».

## BETIKOA ETA BERRIKUNTZA

Aurtengo bestetako egitarauak berrikuntzaren bat ere badakar: «elektrotzaranga ekartzea erabaki dugu, larunbateko dinamika pixka bat aldatzeko. Horretaz gain, igandean Pantxoa Carrereren kontzertuaz gozatzeko aukera izanen dugu, disko berriaren aurkezpenaren harira. Ondotik la Jodederaren kontzertua izanen dugu Tresanean, mojitxo bestarekin batera». Urtero bezala

egitarau oparoa lotzen saiatu dira eta horretarako badira ezinbertzean egon behar duten ekitaldiak: «asteleheneko herri-bazkaria derrigor egon behar duen ekitaldia da. Besten inguruko errepaso sakona egiteko aukera bikaina da! Herriar asko biltzen da bertan eta bertsolari eta musikarien laguntzarekin giro polita sortzen da». Egunez zein gauez izaten da giro berezia: «jende asko izaten da plazan eta herriko ostatuen inguruan, bai goizez eta baita arratsalde ere. Horrek bizia ematen die beste, dena ez baita gauean ongi pasatzea».

## HASIERATIK BESTA GIROAN

Bestazalea ote den galdetuta, argi du: «bestazalea naiz besta hori plaza giroan baldin bada. Zortziko eta fandangoak ez du parekorik!». Iturenen izanen du dantzaz gozatzeko nahikoa aukera, gaurik gehienetan erromeria baitago.

**«Jende asko izaten da plazan eta herriko ostatuen inguruan, bai goizez eta baita arratsalde ere. Horrek bizia ematen die beste, dena ez baita gauean ongi pasatzea».**

Bestetako egun guztiak «zirrarez eta gogotsu» hartzen ditu, «egun bereziak dira, familiarekin egon, lagunekin disfrutatu, egunerokotasuneko ardurak ahaztu...». Egun guztiek badute zerbait berezia, baina aukeran «ortziralea edo astelehena» ditu gustuenak: «lehenengo eguneko gogoek ez dute parekorik, eta aurren oholta gainean biziko dudana berezia izanen da». Iturengo bestak hitz batean definitzeko eskatuta: «herrikoia» erantzun du: «adin guztietako jendea hurbiltzen da ekitaldietan parte hartzea eta horrek aspaldi ikusi gabeko jendearekin elkartzea ahalbidetzen du». Gonbidapena ere luzatu die bisitarie «animatu, ongi etorriak izanen zarete!».





## EGITARAUA

### UZTAILAK 14, ORTZIRALEA

**Goizetik aitzinera** haurrendako puzgarriak. **16:00** Haurrendako herri-kirolak eta joko zaharrak. **18:30** Dantzariak. **20:00** Txupinazoa. **21:00** Afaria Altxunea erretegia. **00:00** Berbena Xarma herriko taldearen eskutik. **04:00** Galtzontzillo eta kulero lasterketa.



### UZTAILAK 15, LARUNBATA

**Goizetik aitzinera** haurrendako puzgarriak. **10:00** Diana. **12:00** Haurrendako ikuskizuna: Kiki pailazoa. **Segidan**, haurrendako aurpegi margotzeko tailerra. **17:00** Mus txapelketa. **19:00** Paella herrikoia. (Tresnak etxetik eraman, osagaiak Udalak jarriko ditu). Horrekin batera, zingar jatea eta sagardo kupela. **20:00** Poteoa Elektro txarangarekin. **00:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin.



### UZTAILAK 16, IGANDEA

**Goizetik aitzinera** haurrendako puzgarriak. **10:00** Diana. **12:30** Herri-kirol erakustaldia. Maika eta Mikel Palaxio, Etxeberria eta Irunerren aurka. **Segidan**, pintxo potea eta magra eta gaztaren pisua asmatzea. **18:00** Mikel eta animaliak. **19:00** Tortilla lehiaketa (etxean egindakoak aurkeztu). Toka eta sokatira norgehiagoka ere izanen da eta sagardo kupela jarriko dute. **20:00** Pantxoa Carrerek bere azken diskoa aurkeztuko du. **23:00** La Jodedera taldearen emanaldia eta mojito besta.



### UZTAILAK 17, ASTELEHENA

**Goizetik aitzinera** haurrendako puzgarriak. **10:00** Diana. **12:00** Herriko pilotarien eta nesken frontenis txapelketetako finalak. **14:00** Bertso-bazkaria. **Ilunabarrean** zingar jatea eta sagardoa kupeletik. **Arratsaldea eta gaua** Oihana eta Oihana trikitilariak girotuko dute.

**ttipi-ttapa**  
FACEBOOK eta TWITTERREN  
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

**ALTXUNEA ERRETEGIA**  
Kontsejo, 27 · ITUREN  
T. 948 450 410

Osital eguerditik igande eguerdira  
Besta egunetan eta besta bezperatan  
Uztailaren 15etik abuztuaren 30era,  
egunero, astelehenak ezik

**ONGI PASA BESTAK!**

**BAGUZI**  
Etxetresnen konponketak

**ONGI PASA BESTAK!**

ZERBITZU TEKNIKOA 629 950 269

**ECHEVERRIA**  
ZURGINDEGIA

**ONGI PASA BESTAK**

**PVC LEIHOAK**  
6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

Markatuko leihorik hoberenak egiten ditugu!

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

|          |            |                   |               |
|----------|------------|-------------------|---------------|
| Egiturak | Eskailerak | Ateak             | Lurrak        |
| Armaruak | Sukaldeak  | Egunerako leihoak | Leiho mistoak |

Leitza errep. · 31745 ITUREN  
M. 676 393 996 · T. 948 450 327 · F. 948 456 164  
carpinteriaecheberria@yahoo.es



# ELGORRIAGAKO BESTAK

UZTAILAREN 22TIK 25ERA



**Maialen ARRIETA**  
Elgorriagako gaztea

«Udan erromeria dagoen edozein plazatan ikusiko nauzue dantzan»

20 urteko Elgorriagako gaztea da Maialen «aste tartzet Donostian magisteritza ikasten dut eta asteburuetan bentetan lanean aritzen naiz». Ez bata eta ez bertzea, ez dira bestarako traba: «bestarako eta ongi pasatzeko denbora beti izaten da». Gainera, udarekin batera liburuak irailera arte albo batera utzi eta gozatzeko tenorea ailegatu zaio: «Ikasketak eta lana direla eta urtean zehar ezin dut nahi bezain bertze besta egin, baina udan erromeria dagoen edozein plazatan ikusiko nauzue dantzan». Dituen afizioen artean, «dantzatzea, mendira joatea eta argazkiak ateratzea» aipatu ditu. Eta argazki-kamera astintzen hasten denean, dantzan aritzean edo mendira joaten denean, ez du gauza berezien beharrik: «lagunak eta irri batzuk tartean badira aski da!».

**«Bestarako musika eta lagunak ezin dute falta eta dantza-lagun bat ere baldin badut, ezin hobe!»**

Azken hilabeteetan Elgorriagako besten antolakuntzan ibili da Maialen eta ez da bakarrik aritu. Aipatu duenez, elkarlanean emaitza izaten dira bestak: «besten antolakuntzan adin desberdineko herriarrak aritzen gara. Gazteon ardura nagusia lehenengo eguneko kontzertuak dira. Talde ezberdinekin kontaktuan jarri eta gau hori ahalik eta politena egiten saiatzen gara, modu honetan herriko bestak pixka bat ezagutzera emateko asmoz».

Uztailaren 22a ailegatzan denean, bestara atera eta 25a bitarte, egunez izaten diren ekitaldi gehienetan parte hartzen saiatzen naiz». Gauen ere ez da plazatik urruti ibiltzen «dantzan edo gazteok

jartzen dugun txoznan lanean aritzen naiz». Egia aitortzen hasita, erlojuari kasu gehiegirik egin gabe ibili ohi da bestan, eguna edo gaua den arduratu gabe: «eguna edo gauaren artean ez nuke jakinen bat aukeratzeko. Konpainia eta giroaren arabera da hori, izan ere, musika eta lagunak inguruan badituz gainerakoak berdindu!».

## HERRI GUZTIA ELKARREKIN

Bestetako egun guztiak ditu gustuko: «egun bakoitzak bereiztasun bat du, baina nire ustez politena zikiro eguna da, bertan adin ezberdinetako jendea elkartzen gara eta giro oso polita sortzen da». Horixe da Elgorriagako bestetako bereizgarria, «herri txikia izanik, herritar guztiek hartzen dugu parte ekitaldi ezberdinetan eta oso giro polita sortzen da. Gainera, zikiro egunean Toka lehiaketa eta Boneta lehiaketa egiten dugu eta herritar aunitzek parte hartzen dute». Herritarren artean saltsa sortzen dute ekitaldi hauek eta ez dira gisa honetako bakarrak: «herritarren arteko lehiaketa eta froga ezberdinak egiten ditugu urtero. Aurten adibidez, aizkora eta arpana erakustaldia izanen dugu herritar ausartentzat, ea nor animatzen den!».

**«Aurten aizkora eta arpana erakustaldia izanen dugu herriko ausartenentzat. Ea nor animatzen den!».**

Bestarako ezinbertzeko osagaia zein den galdetuta ez du askorik behar: «musika eta lagunak dira faltatu ezin direnak, eta dantza-lagun bat ere baldin badut, ezin hobe!». Soberan berriz, irrika erantzun digu: «bestak eta gero denok izaten dugun lo falta eta bestondoa».

## EGITARAUA



### UZTAILAK 22, LARUNBATA

**17:00** Haurren krosa. **20:00** Txupinazoa. **On-dotik** herriko trikitilari eta panderetak herria alaituko dute. **21:30** Zopak Herriko Ostatuan. **Gauean**, Rock kontzertuak.



### UZTAILAK 23, IGANDEA

**12:00** Toka lehiaketa. **14:00** Zikiro jatea Beñat akordeoilariak alaituta. **18:00** Boneta lehiaketa. **21:00** Afaria plazan. **Arratsalde** eta **gauez** musika arratsalde eta gauez Gabenara taldearekin.







## UZTAILAK 24, ASTELEHENA

**10:00** Puzgarriak. **13:00** Paella jatea herriko plazan. **17:00** Mus txapelketa.  
**17:00** Haurrentzako jokoak, espuma eta segwayak. **Arratsalde eta gauez** musika Gabenara taldearekin.



## UZTAILAK 25, ASTEARTEA

**10:30** Meza nagusia. **12:00** Dantzarien ikuskizuna. **13:00** Luntxa dantzariarentzat, eta oneadoren herritarrentzat. **18:00** Aizkora exhibizioa eta bestalde arpana exhibizioa herritar ausartentzat. **19:00** Ageralde akordiolaria. **19:00** Tortilla lehiaketarako generoa goratzea plazan. **20:00** tortilla lehiaketa. **00:00** Gaixoa ni eta ondoren besten bukaera.

**balneario elgorriaga**  
hotel-balnietxe

**BESTA HAUETAN ZATOK ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:**  
buffeta libre, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak, hanburgesak...

Errotalde z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)  
T. 948 45 60 45 | [www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)

## BOKATAK ETA AFARIAK EMATEN DIRA



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu herritarrei eta besta egun hauetan gurekin ez dauden guztiei

San Pedro, 1 - ELGORRIAGA - 667 018 989



BESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE  
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI







**BAZTAN**  
Ferreteria

Pintura | Kristalak | Tresneria  
Aroztegiko gauzak | Opariak

Santiago, 79 · Industrialdea  
ELIZONDO · T. 948 580 423

ONGI PASA BESTAKI!

*Belzunegui*  
DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 056

ONGI PASA BESTAKI!

 **MAPFRE**

Etxea, autoa, bizitza, jubilatzea...

Jaime Urrutia, 8 · 31700 ELIZONDO · T.948 58 03 76

**A. ETXEBERRIA**  
PINTURAK

fatxadak barnealdeak  
etxebitzitzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo  
Tel (0034) 607 587 196  
etxebeandoni@hotmail.com



ONGI PASA BESTAKI!



**ARKUPE**  
*Trukolateak*

1984

IRURITA  
Duke's plaza  
T 948580059  
T 948452021  
(Obradorea)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

# ELIZONDOko BESTAK

UZTAILAREN 24TIK ZERA



**Juan Angel PEROTXENA URANGA**  
Kartel lehiaketako irabazlea

«Teknologia eta eskulana lotzen ditut, teknika bakoitzaren onena erabiltzeko»

Irudiak, koloreak, hitzak... eguneroko lanabes ditu Juan Angelek. Hamahiru urte daramatza ilustratzaile eta diseinatzaile lanetan eta aurten berea da Elizondo-ko bestak iragartzen dituen kartela: «oraindik ere sentsazio bereziagoa da norberaren bestak baldin badira». Buruhaundiak irudikatu ditu kartelean bestetan gozatzen duten bitartean: «lanean egon ohi dira, baina gainerakoak egiten dugun moduan gozatzen irudikatzeak bere grazia zuen. Horregatik erantsi nizkien betaurrekoak, zapiak eta gainerako elementuak». Kartelaren kolorea aukeratzekoan ere apustu berezia egin zuen: «horia aurkeztu dut, uda eta beroaren adierazgarri da, baina aukeratua izateko zailagoa agian. Epai-mahaiaren gustokoa izan zen hala ere». Eskulana eta teknologia uztartzen ditu bere lanetan «eskulanean hasten naiz marrazketan eta kolorearen lanketa berriz digitalean egiten dut, teknika bakoitzaren alde onenak erabili nahian». Izan ere, biek dituzte alde onak eta txarrak: «eskulanak aunitzetan ez du akatsak zuzentzeko aukerarik ematen, baina akabera irregularragoa eta beroagoa izaten da. Teknika digitala berriz azkarra da, koloreak aldatzea errega da, zuzenketak... baina era berean hotzagoa dela iduritzen zait».

## SALTSA ASKOTAKO PEREXILA

MALMÖ ilustrazio eta diseinu estudioaren erdia izatearekin batera, bertze hainbat saltsetan dabil: «ezetza ematen ez jakitea dela, nortasun parte-hartzailea dela edo aktiboa izatearen erruz, saltsa aunitzetan nabil: Tirri&Teryren erdia naiz, urte aunitz dira errugbian jokatzeko ari naizela, eta orain Bizarras kale arte kolektiboaren baitan margotzen hasi naiz. Gustuko ditut musika, kontzertuetara joatea, serieak, bideojokoak eta komikiak, eta gustuko dut irakurtzea ere».

Hainbertze zereginen artean, hartuko du herriko bestetaz gozatzeko tartearen ere: «Jarduera aunitz ditut gustukoak eta

betebeharrekoak iduritzen zaizkit. Ilobak ditudan honetan konpartsa oinarrizkoa iduritzen zait, eta noski zikiroa. Dena den ez naiz tradizioetan iltzatzen diren horietakoa eta edozein eboluzio ulertuko nuke». Bestetako lehenbiziko egunetik hasi eta azkenera arte gozatzen ditu: «lanaren arabera txupinazora joateko ohitura dut. Gero bazkaltzeko elkartu eta giroa berotzen hasten da. Herri krosa izaten da eta jadanik tradizioa da Falfarakeko kurban lasterkariak animatzea». Biharamuna, egun lasaia izaten da eta segidan, dator kuadrillen eguna «normalean egoten ez zaren jendearekin elkartzen zara».

«Aise elkarteko kidea naiz eta bestetako pintxo potea arras ongi egoten da. Batzuetan hermetikoegiak diren elkar-teak irekitzea dakar eta hori gustatzen zait».

Hurrengo eguna «trantsizio eguna» bezala izendatu du «baina ez etxean gelditzeko». Azken egunean: «zikiro jatea bera baino, herriko adin guzietako jendearekin ongi pasatzea gustatzen zait. Gainera duela urte batzuk, lagun arteko broma gisan errotuladoreekin tatuajeak egiten hasi nintzen eta hau ere tradizio bihurtu da. Jostagarria da honekin jende berria ezagutu ta ajataka akitzea. Azken urteetan gaixoa niaren ondokirri Terry&Teryrekin musika jartzen dut eta herritarrek azken egunean dena ematen ikustea gozada bat da».

Egitariaren aldatetarik eginen ote lukeen galdetuta argi dio: «herritarrek egindako besta herrikoietan sinesten dudan neurrian, eta zorionez Elizondon hala da duela urte batzuk, zerbait faltako balitz edo soberan ikusiko banu Besta Komisioan parte hartuko nuke. Parte hartzearekin eginen nuke kritika. Kritika hutsala ez zait gustatzen».





## EGITARAUA

### UZTAILAK 24, ASTELEENA

**12:00** Txupinazoa eta Baztan-zopak. **Ondotik** Konpartsarekin itzulia. (Uda-letxetik abiatu eta Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago Karrika eta Francisco Joaquin Iriarte Adinekoen Egoitza). **16:00** Haurrendako ikuskizuna plazan: Imanol magoa. **17:30** Haurren Herri Krosa. **18:30** Helduen Herri Krosa. **19:30** Karrikadantza: konpartsa, txistulariek, gaiteroak, txarangak, bandak... lagunduta. (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Eliza, Santiago Karrika, Francisco Joaquin Iriarte Adinekoen Egoitza). **20:00** Salbea Elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Felix Txoperena, eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntza izanen duelarik. **Ondotik**, Karrikadantza eta Erraldioen dantza plazan. **20:30** Arratsaldeko txupinazoa eta txistorrada. **23:30** Joseba B. Lenoir, Kalera, Egurra eta Kitto eta Dj Aimar eta DJ Ion2deep taldeen kontzertuak plazan.



### UZTAILAK 25, ASTEARTEA

**09:30** Argi soinuak. **11:00** Karrikadantza. (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Herriko Plaza eta Eliza). **11:30** Meza nagusia Elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, organoan Felix Txoperena eta Recreo de Elizondo musika Bandaren laguntzaz Misa de Eslava eskainiko du. **12:30** Karrikadantza Sokarekin batera. (Eliza, Santiago Karrika, Herriko Plaza, Jaime Urrutia eta Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza). **13:00** Plazako ekitaldia: Soka-dantza, Mutil-dantzak eta Erraldioen-dantza Elizondoko Bandaren laguntzarekin. **Ondotik**, luntx herrikoia. **17:30** Rokodromoa Laxoako frontoian, 4-11 urte bitartekoendako. **18:00** Herri-kirolak Iriarte pilotalekuan. Herri herriko txapelketako lehenengo jardunaldia. **19:30** Bertso-saio handia plazan (euria egiten badu Arizkunenean). Bertsolariak: Julio Soto, Onintza Enbeitia, Alaia Martin eta Amets Arzallus. **21:00** Dantza herrikoiak Ziga plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **23:30** Miguel Angel y el Mariachi de la Cantina plazan. **01:00** Dantzaldia Oharkabe taldearekin plazan.

**Gonzalez anaiak**  
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa F. Joakin Iriarte, 5  
Tfnoa: 948 580 337  
**ELIZONDO**

Ongi pasa bestak!

librería  
**nafarpress**  
liburudenda

ESKATU ZURE TESTU LIBURUAK  
Jaime Urrutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

**Kris**  
ileapaindegia

Giltxaurdi, 14 • ELIZONDO • 948 580 025

**ANTXITONEA**  
Trinketea

24 logela bainuarekin • Aparkalekua  
Aire girotua gela guztietan • Hari musikala eta TB  
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

ongi pasa bestak!



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

**CITROËN**  
ongi pasa bestak!

**SANSIÑENA** garajea

TAILER MEKANIKOA  
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
ENGRASEAK  
ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA  
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK  
ZERBITZU OFIZIALA:

**NEW HOLLAND**  
AGRICULTURE

**AGRIA**

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406



Ongi pasa bestak!

# Autxitxia

## Gasnategia

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zehenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak
- ▶ Dastatzea eta bisitak

Ramón Agirre Altzelai  
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo  
657 576 142

# ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bititza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria  
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ONGI PASA BESTAKI!

**LABORRA ARKITEKTOK**  
- Gabriel & Ines -  
[www.laborra.com](http://www.laborra.com)  
gabriel@laborra.com  
Santiago 66, 1º • ELIZONDO • 948.580.122

**arteka**  
arkitektura arquitectura  
Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1-1. A  
Fax 948452434 31700. Elizondo Baztan  
Info@artekabaztan.com Nafarroa  
[www.artekabaztan.com](http://www.artekabaztan.com)

# Suteia-Zaldain

instalazioak

## IGOGAILUAK



**PROFESIONALAK | KALITATE-BERMEA**  
**IRISGARRITASUNA | MANTENTZE LANAK**

Santiago, 71 | ELIZONDO  
T. 948 580 166 | M 619 424 999  
suteia@suteiazaldain.com

1

### KANPOKO IGOGAILUAK



Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2

### BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokituak.



3

### IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



**EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.**





## UZTAILAK 26, ASTEAZKENA

**09:30** Argi soinuak Beartzunen. **11:00** Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa (Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza, Santiago Karrika, Opoka, Braulio Iriarte, Baztanberri, Maurizio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador, Txokoto, Santiago, Maria Azpillqueta eta Lanbide Eskola). **11:00-14:00** Igerilekurako sarrera libre. Haurrendako uretako puzgarriak izanen dira. **14:00** Kuadrillen bazkaria Kuarteleko zelaian. **17:00** Ginkana plazan, 8-15 urte bitarteko haur eta gaztetxoendako. **19:00** Txokolatada Ahaztuen plazan. **19:00** Poteoa Elektrotzufflekin elkarte elkarte parketik abiatuta. **20:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin plazan. **21:00** Dantza Herrikoiak Ziga Plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **00:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin plazan.



## UZTAILAK 27, ORTZEKUNA

**09:30** Argi soinuak. **11:00** Erraldoi eta buruhaundiekin ibilaldia. (Lanbide Eskola, Akullegi, Santiago, Datuzelai, Santiago, Saskaitz Plaza, Santiago, Berekotxea Gotzaia, Paularena, Herriko Paularena, Herriko Plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza, Adinekoen Egoitza). **12:00** Ludoteka Laxoa frontoian: Puzgarriak (adin desberdinendako), 12 mahai joko, Giza futbolina eta La barredora. **12:30** Recreo de Elizondo musika bandaren emanaldia plazan. (Eurria ari badu Arizkunenean izanen da). **13:00** Aitatz eta Amatz guziendako bazkaria Adinekoen egoitzan. **14:00** Bazkari autogestionatua Merkatuko Plazako arkupean. **16:00** Ludoteka Laxoako pilotalekuan: Puzgarriak (adin desberdinendako), 12 mahai joko, Giza futbolina eta La barredora. **16:30** Elizondoko VII. Mus txapelketa Xalbador karrikan, Falfara elkarteak antolatuta. **17:00** Mojito poteoa, txarangak alaiturik parketik abiatuta. **17:30** Pilota partidak Baztan pilotalekuan: Txaruta pilota eskolako partiduak eta ondotik, pilota partida profesionalak: Anso eta Landiribar Otxandorena eta Eskirozen aurka eta Olaizola eta Eskudero, Aritz Lasa eta Goñi II.aren aurka. **19:30** Dantzaldia Hauspolariak taldearekin plazan. **21:00** Dantza Herrikoiak Ziga Plazan. **22:00** Mutil-dantzak plazan. **00:00** Kontzertuak plazan: Rukula, Las melenas eta Kaskezur taldeen eskutik.



ONGI PASA BESTAK!

**idoia oteiza**  
ile-apaindegia | makillaje zerbitzuak

Plazaburua, 9 behea Elizondo | T 948 580 390 | [www.idoiaoteiza.com](http://www.idoiaoteiza.com)

**ESKISTAROI JATETXEA**

ongi pasa bestak!

T. 948 580 013  
Jaime Urrutia • ELIZONDO

ONGI PASA BESTAK

**baztan oil**

ELIZONDO | [www.baztan oil.com](http://www.baztan oil.com)  
**GASOLIOA ETXERA**  
T. 948 452 309 • M 677 310 009

REPSOL

24 ORDUTAN ETXEAN

**LA BAZTANESA S.A**

ELIZONDO  
Tel/Faxa: 948 580 129

IRUÑEA  
Tel: 948 222 223  
[autobuses@labaztanesa.com](mailto:autobuses@labaztanesa.com)

ferreteria  
**Quevedo**  
burdindegia

Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tel.: 948 580 234  
[info@ferreteriaquevedo.com](mailto:info@ferreteriaquevedo.com)  
[www.ferreteriaquevedo.com](http://www.ferreteriaquevedo.com)



**BB BLOK BAT**  
TALLERES

ELIZONDO  
T 948 580 898  
[www.biokbat.com](http://www.biokbat.com)

*Ongi pasa bestak!!*

Distribuidor Oficial



**Husqvarna**  
READY WHEN YOU ARE

**LABIAGA**  
eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634  
XATUR 608 117 635

*Ongi pasa bestak!!*

BERA | ELIZONDO

**Ze goxoa**  
FRUTAK FRUTAS  
BARAZKIAK VERDURAS

**ELIZONDO**  
Santiago, 47  
t. 948 580 859

**DONEZTEBE**  
Zazpigurutze, 4  
t. 948 451 332

**LEITZA**  
Landabekoa, 2  
t. 948 610 612

**LESAKA**  
Plaza Zaharra, 17  
t. 948 637 294

**BERA**  
Kanttonberri, 3  
t. 948 630 381

*Besta onak opa dizkizuegu!*

**ALMACO BAZTAN** GRUP **GANTIA**



*besta zoriontsuak pasa!*

Errepide nagusia, Elizondo  
Tel: 948 580 104  
[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)  
<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>





## UZTAILAK 28, ORTZIRALEA

**09:30** Argi soinuak. **11:00** Erraldoi eta Buruhandien ibilaldia (Herriko Etxetik abiatu, Jaime Urrutia, Opoka, Mendinueta, Benito Menni Egoitza, Merkatzuzelai, Xalbador, Giltxaurdi eta Adinekoen Egoitza). **11:00** Munduko XXI. Kanika Txapelketa Merkatu Zelaian. **14:30** Zikiro jatea Iriarte pilotalekuan. (Zikiroko txartelak salgai jarriko dituzte Herriko Etxean uztailaren 21ean, ortziralea, 19:00etan). **17:30** Haurrendako ipuin kontalariei saioa Amelie eta xirrikituaren jostunek taldearen eskutik Kuarteleko zelaian. (Eurria egiten badu Iriarte pilotalekuan). **21:00** Dantza herrikoia plazaan. **22:00** Mutil-dantzak plazaan. **00:00** Gizajua ni eta kalejira. **02:00** Tirri&Tery.



**tinkaenergiak**

Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak | Lurreko suak  
Eguzki plakak | Haize errota | Tximini garbiketak  
Iturgintza lanak | Gasezko galdarak eta zerbitzu teknikoak  
Komuneko altzairuen salmenta eta instalazioak

Abartan 16B ELIZONDO  
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

www.tinkaenergiak.com  
tinka@tinkaenergiak.com

**ONGI PASA BESTAK!**

**LABAYEN**  
OSTATUA

Etxeko janari goxoa  
Zatozte! eta on egin!

Santiago - ELIZONDO  
948 580 338

**SAIOA**  
OSTATUA

Ongi pasa bestak!

Santiago, 68 - ELIZONDO | T. 948 580 194

**BC BALLARENA**  
ERAIKUNTZAK  
ELEKTRIZITATEA

Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aitzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz.

ELEKTRIZITATEA  
Instalazio berriak | Berritzeak  
Argindar fakturan aurreztu nahi?

**fenienergía** delegatuak gara

Abartan, 22 behea ELIZONDO  
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982  
www.ballarenaconstrucciones.com

**erran**  
Mendialdeko Albisteak

DESKARGATU  
APLIKAZIOA  
DOAN

Download on the  
Google play

Download on the  
App Store

**SALDIASKO**  
okindegia  
egurrezko labea

Olasoa etxea  
T. 698 239 316  
SALDIAS



Gas, gasolio, egurra eta pellet galdaren  
zerbitzu teknikoa · Marka guztiak  
TXIMINIEN GARBIKETA ZIURTAGIRIAK

**MG**  
mantenimientos  
**GORRITI**

**ONGI PASA BESTAK!**

M. 620 97 82 97  
Santiago, 93 · **ELIZONDO**

**esarte**

ONGI PASA BESTAKI

Santiago 83 B bajo · 31700 Elizondo · T 948 581 907  
www.precocinadosesarte.com



744 484 361

**ttipi-ttapa**



**INTZA  
OSTATUA**



JAIME URRUTIA · ELIZONDO · T. 948 580 417

*Natura Etxea*

BELARDENDA ETA DIETETIKA

SENDAGAI NATURALAK  
JANARI EKOLOGIKOAK  
ARGALTZE ETA MEDIKU KONTSULTA  
KOSMETIKA NATURALA  
JANARIEN INTOLERANTZIA TESTA

**ONGI PASA BESTAKI**

SANTIAGO, 47 **ELIZONDO** T. 948 580 203

**lino**  
linoplaza **arkitektura**

*besta zoriontsuak opa dizkizuegu!*

lino plaza y asociados, s.l.p. | jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

**EROSKI city** **ELIZONDO**

Foru plaza, 3  
**ELIZONDO**  
T. 948 580 005

Astelehenetik larunbatera 09:00-21:00

**BEA**ARRAINDEGIA **esarte**


**ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA**





**Jexux BAYLON**

**Elizondoko abesbatzako kidea**

«Musika zaletasuna bezain garrantzitsua da taldean dugun giro ona»

Urte berezia ari da izaten aurtengoa Elizondoko abesbatzako kideentzat «1942an sortu zen taldea eta 75. urterena bete dugu aurten». Hogeita hamar lagunek osatzen dute abesbatza eta horietako bat da Jexux: «talde gehienek bezala gorabeherak izan dira partaide kopuruari begira, baina orokorrean nahiko egonkor mantendu da abeslari kopurua». Gainera, etorkizunera begira kimu berriak ere landatuak dituzte: «2009an helduen abesbatzari Elizondoko Abesbatza Ttikia gehitu zitzaion eta bertan ikasturte honetan ia 60 haur eta gazte aritu dira».

### ABESBATZAREN HISTORIAN BI ETAPA

Abesbatzaren ibilbidean bi garai desberdintzen dira, «lehenengoa 1942tik Juanito Eraso, abesbatzaren sortzailea eta zuzendaria, hil artekoa eta bigarrena 2004tik gaur egunera artekoa, Isabel Lacarren zuzendaritzapean». Ehunka kontzertu eskaini dituzte eta hainbat sariaketetan parte hartu ere bai, ibilbide luzea bezain oparoa osatuz: «abesbatzak hainbat sari eskuratu izan ditu bai estatu mailan, baita nazioartean ere».

Jexux berak urteak daramatza abesbatzan kantari, «kopuru zehatza ez dakit. Haurra nintzenean abesbatzako entseguak aditzera joaten nintzen elizara. Gero solfeoa ikasten hasi nintzen Juanitorekin, musika bandan sartu eta modu naturalean abesbatzan akitu nuen». Juanito Eraso hil zenean bizi izan zuen momentu zaila abesbatzak: «baina talde batek argi ikusi genuen segi nahi genuela» eta luzaroan segi ere. Abesbatzak hainbeste urtean segitzeko sekretua argi du, «motibazioa bi aldetatik dator. Musikazaletasuna bezain garrantzitsua da taldean dugun giro ona».

### BESTETAKO EKITALDIA

Elizondoko abesbatzak herriko bestetan paper berezia du: «bi ekitalditan parte

hartzen dugu. Lehendabizikoa uztailaren 24an abesten den Salbea da eta bigarrena Santio eguneko meza kantatua». Gainera, bi ekitaldietan laguntzaile bereziak izaten dituzte: «organoak eta Elizondoko Musika Bandak lagunduta aritzen gara». Bi ekitaldiak jendetsuak izaten dira «bakoitzaren sinismenak alde batera utzita, hitzordu finkoa da hainbat elizondarrendako eta kanpotik espreski etortzen den jende aunitzendako». Jexuxek bi ekitaldi hauek barrutik bizi ditu eta horregatik beretzat, «nahiko hunkigarriak dira. Aunitzetan gertatu izan zait ezagunak gonbidatu eta kutsu erlijiosoagatik pixka bat gibelerat botatzeara. Baina azkenean etorri eta aditu eta gero erantzuna beti berdina da: 'heldu den urtean berriz'».

«Ekitaldien kutsu erlijiosoak gibelera botatzen du hainbat jende baina etortzen direnak, gu aditu eta hurrengo urtean bueltatu egiten dira».

Kantua ez da bestetan musikarekin izaten duen lotura bakarra «Konpartsa-rekin aritzen naiz egun batzuetan txistua jotzen». Bestetako egunik berezienaz galdetuta, «egun bakoitzak badu berea» erantzun du, «bereziak zikiro eguna da agian, baina bezperako kuadrillen afaria kanpoan dauden lagunak ikusteko aukera polita da». Edozein moduz, sakrifizio ttikiren bat egin behar izaten du: «uztailaren 25ean kantatu ahal izateko bezperako afarian zure burua pixka bat zaindu beharra duzu». Uztailaren 26ko kuadrillen bazkaria eta bazkalondoa ere ez ditu ahaztu: «bazkarian eta bazkalondoa elkartez elkarrekin egiten den poteoan ere giro ederra suertatzen da». Bukatzeko, Elizondoko bestetara hurbiltzeko gonbidapena ere egin du, argi utziz «errespeturik gabe, ez etorri».

Santiago, 93 ELIZONDO  
T. 948 452 126  
info@honestolopez.com  
www.honestolopez.com

**H. LOPEZ**

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa  
Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta  
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak  
Zeramika eta bainugelakaltzarien salmenta  
**ONGI PASA BESTAK!**

**hiru** ... betikoa baina ezberdina  
ostatua **Ongi pasa bestak**  
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO  
T 948 581 219

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak...  
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuenak, Solagüen ardo beltz ondura eta Solagüen txuria  
Infusioak zapore guztietakoak  
Eskoziar eta Irlandar kafeak

Ongi pasa bestak!

Instalazio elektrikoak  
Konponketak

**ANGEL TRANTXE**  
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 246 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

**J B Iturria**  
CONSTRUCCIONES

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Baztan Berri plaza, 2  
Tfno: 948 580 304  
info@jbiturria.com · www.jbiturria.com



ONGI PASA BESTAK!

**Maite  
Petrirrena**

Aseguru agentzia

**Allianz** Saskaitz plaza · ELIZONDO  
Tel. 948 452 394  
teresa.petrirrena@allianzmed.es **elicetxe**  
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397  
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO  
elicetxe@elicetxe.es

www.elicetxe.es

**Albaitaritza**

www.albaitaritza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak

Zaldi eta zaldi-zaleentzako  
produktuak**Albaitack**

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169

**ALBAIKIDE**

Tfnoa.: 902 169 169

www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

**Jaime eta Edurne BIGURIA eta Jose Mari ARRAZTOA**

www.valledebaztan.com webguneko arduradunak

«Bisitariak liluratuta geratzen dira gure  
inguruak duen edertasunarekin»

Toki bateko sekretuak erakusteko nor hobe bertakoa izan eta tokia maite duen norbait baino? Premisa hori ongi betetzen dute www.valledebaztan.com web orriko kudeatzaileek. 1999. urtean sortu zuen web orria Jaime Biguriak: «denbora haietan internet ez zegoen orain bezain hedatua eta hasmentan proiektu tiki eta pertsonal bat bertzerik ez zen». Denbora pasa ahala, ordea, webguneak ahalmen handia izaten ahal zuela ikusi zuten eta bisitarietako zabaltzeko zieten atea: «2011. urtean atari turistiko bihurtu genuen hiruon artean».

Jaime eta Edurne Biguria eta Jose Mari Arraztoa dira www.valledebaztan.com atariaren arduratzen direnak. 100.000 bisita inguru izaten dituzte eta horretaz

gain asistentzia turistikoa ere eskaintzen dute: «posta elektronikoa, telefonoa, whatsapp eta ataria dugun chataren bidez, baita sare sozialen bidez ere». Guzti honen gibelean lan potoloa dagoen arren, argi diote: «gustu handiz egiten dugu!».

«Bihotzez arras baztandarrak sentitzen gara eta egiten dugun lanean nabari da maitasun hori».

**LURRAREKIKO LOTURA**

Lurrarekiko lotura berezia dute hirurek: «bihotzez arras baztandarrak sentitzen gara eta egiten dugun lanean nabari da

**Gureaut**   
**TAILERRAK**

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita  
Tel.: 948 580 225 · M. 619 328 145  
gureauto2@gmail.comTTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN**facebook**www.facebook.com/ttipi.ttapa  
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN







maitasun hori». Egunero igotzen dituzte argazki eta bideoak sare sozialetara eta bisitariak «liluratuta geratzen dira gure inguruak duen edertasunarekin». Beraien ustez, Baztanek ezaugarri aunitz ditu horren magikoa izateko: «paisaia, natura, bere herri zainduak, arkitektura, gastronomia, euskal nortasuna, kultura eta folklorea. Hain gureak diren lainoak, metak... margo ezin hobea osatzen dute denen artean».

### BISITARIEN ETORRERA

Bisitari gehienak «udan, aste sainduan eta zubietan» izaten dituzte eta jatorria egonaldi motarekin lotua egoten da aunitzen. Hala, udan adibidez, «Madril, Katalunia eta Balentziatik etortzen da bisitari andana. Egonaldi motzetan berriz, Nafarroa, Euskadi, Errioxa, Aragoi...». Inguruaren erakargarritik nagusia onadare naturala izanik, «parkeak, lezeak, mendi itzuliak... eskaera handia dute». Ondare kulturalak ere badu garrantzia: «museoak, errotak... eta bisita gidatuek ere geroz eta arrakasta gehiago dute: gasnategiak, itzuli antolatuak... aipatzeko da Dolores Redondoren liburuek ere interes handia sortu dutela». Bestak ailegatzen direnean, «asteburuetan nabari dira kanpotik etorritako bisitariak, gainerako egunetan herriko jendea ibiltzen gara». Beraiek ahal duten neurrian gozatzen dute bestetaz. Jaimek azaldu duenez, familia handitu ahala aldatu dira zerbait gauzak: «azkenean besta martxa baldintzatzen baitu». Besta

giroan ere aldaketaren bat izan dela uste dute «beti ere plazak indar handia galdu duela ikusten dugu, orain urte batzuk dantzaldi eta kontzertuak danban beteak egoten ziren. Gaur egun aldiz, jendeak ostatueta jotzen du gehiago».

**«Orain urte batzuk dantzaldi eta kontzertuak danban beteak egoten ziren. Gaur egun aldiz, jendeak ostatueta jotzen du gehiago».**

Erran bezala, Jaimeren bestak ume ttikiek baldintzatzen dituzte: «buruhaundiak, hauraren eguna, marrazki lehiketa eta bandaren kontzertura joaten gara. Eta aperitiboa hartu eta kanpoan zerbait afaltzeko aprobetxatzen dugu». Edernek eguna baino gaua nahiago du: «bezperan lagunekin bazkaria eta juerga pixka bat egiten dugu. Salbea aditzea ere gustatzen zait eta Santiago egunean familiako bazkaria izaten dugu. Gainerako egunetan aperitiboa hartu eta gauaz itzulixkaren bat gehiago ematen dut». Gustukoen duten eguna erraterakoan, bezpera aipatu dute: «kuadrillako bazkaria egiten dugu eta gehienak elkartzen gara. Aspaldi ikusi ez duzun jendearekin egoteko aukera bikaina izaten da». Ekitaldi batean eta bertzean, argazki kamera izanzen dute gainean. Eskualdearen erakusleho bihurtu den beraien web orria elikatzen segi behar dutelako.

## AXULAR

Fotokopiak, faxes, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507



ONGI PASA BESTAK!

Txokolatea urrakina egina  
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO  
www.malkorra.com

## ELEKBERRI

INSTALADORE  
BAIMENDUAK

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)  
ENPRESEN MANTENIMENDUA  
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK  
TELEKOMUNIKAZIO INST.  
PORTERO AUTOMATIKOAK  
DOMOTIKA

Santiago 118, Elizondo (Na)  
elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065

**KARRIKA**  
OSTATUA  
ongi pasa bestak!

Jaime Urrutia, 11 • ELIZONDO  
948 581 275

**GENERALI**  
Aseguroak

**MAÑONEA**  
AGENTZIA

**ONGI PASA BESTAK!**

**Mañonea Agentzia S.L.**

**GENERALI**  
Aseguroak  
AGENTE ESKLUSIBOA Erregistro Zkia.: C0072B71193304

www.manoneasegursl.seguros.generalis.es

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es

**KONTABLE, ZERGA, LAN**  
**eta JURIDIKO AHOLKULARITZA**

www.mainoneaagentzia.com  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43  
mainonea@mainoneaagentzia.com



## GIZARTEA

MALERREKA → AUNITZ ESKUETAN PLATAFORMA

# Donezteben ere herri-galdeketa egingen dute

Gure Esku Dago dinamikan

## TTIPI-TTAPA

Gure Esku Dago dinamikaren baitan sortu da Aunitz Eskuetan plataforma Malerrekan, udazkeneko galdeketa aurrera ateratzeko asmoz. Ekainaren 23an egin zen aurkezpena Doneztebeko herrigunean, eta giro ederrean

Malerrekan ere erabaki nahi dutela aldarrikatu zuten. Momentuz, galdeketa Donezteben barrik gauzatu da, baina udaberrira begira olatua Malerrekako gainetarako herrietara iristeko itxaropena dute herriarrek. Horrez gain, orain arte Doneztebeko herritarrek egindako atxikimenduekin bideo labur bat ere sortu dute.

Udazkenera bitartean ekitaldi, festa eta tai-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aunitz Eskuetan plataformaren aurkezpena egin dute Malerrekan.

ler andana antolatuko dituzte. Lehenengoak Doneztebeko bestatan izan dira: bezperan, kalejira koloretsua egin zuten eta San Pedro egunean, berriz, herriko txosnan eta haurrendako tailerrak antolatu zituzten.

Galdeketa zilegi izan dadin, irailean hasiko dira sinadura bilketarekin Donezteben. Bitartean, kamisetak eta boletoak saltzen hasi dira, finantzazioa lortze aldera.

Antolatuko diren ekitaldi guztiak Facebook eta Twitter bidez zabal-

duko dira; baita ahoz aho eta mezuz mezu ere.

Aunitz Eskuetan taldeko kideek adierazi nahi dute informatzera, laguntzera nahiz eztabaizatzen hurbildu nahi duen edonork ateak irekiak dituela.

ALTZARIAK ETA  
DEKORAZIOA

# AMETS

Espezialistak gara zure atsedenean


**PROMOZIO BIKAINAK KOLTZOIETAN**  
Markarik onenak | Neurri guztiak | Deskontu handiak



KIROLA → UZTAILAREN 15EAN

# Gavarnie eta Taillonera irteera larunbatean

Agerra mendi taldeak eta Manttalek antolatua



## TTIPI-TTAPA

Bi urtetik behin bezala, Agerra Mendi Taldeak eta Manttalek mendi irteera antolatu dute Pirinioetara, Gavarnie eta Taillonera, uztailaren 15ean, parte hartu nahi duen edonori irekia. Agerra Mendi Taldeak eta Manttalek, bi mailetako bi irteera desberdin prestatu dituzte.

Bietatik eramanga - rriena Gavarnie herritik aterako da Bujarueloraino igotzeko. Bi ordu eta erdi iraunen duen ibilaldia izanen da hau.

Bertzeak, hasiera Col

de Tentesen izanen du, Bujaruelotik pasa eta Sarradetseko aterpera iristeko. Bertatik, Errolanen Bretxa igoko da eta hortik Taillonera. Itzulerara bide beretik izanen da eta 5 ordu eta erdiz egingen da gutti goiti beheiti ibilbide osoa.

Ondoren, bi martxetako partaideak Bujaruelon elkartuko dira, Taillonon zendutako Loro Pikabea, Xabier Zubie-ta eta Xabier Saralegi-

ren omenezko monolitoan. Omenaldiaren ondoren Gavarnie ondoan bazkalduko dute.

Uztailaren 15ean, larunbat goizeko 5:45ean aterako da autobusa la-moteneako parkinetik eta 20:00etarako bueltatuko da. Prezioa 15 eurokoa da eta autobus bidaia eta bazkaria barne daude prezio horretan. Izen-emateak mugatuak dira eta Pikabea harategian egingen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Pello San Millanen lana bestetako programaren azalerako

Pello San Millan arizkundarraren marrazkia izanen du aurten bestetako programaren azalak. Kukaña ageri den marrazki koloretsuaren truke 400 euroko saria jasoko du.

## FLASH

### Bestetako danborrada

Aurten ere danborrada egingen dute bestetan abuztuaren 4an, ortziralearekin izanen da, 12:30ean hasita, Herriko Etxeko Plazatik Altzatekora. Lixoia, Errekalde, Xuga eta Katakua ostatuetan eman daiteke izena. Izen-emateko 12 euro ordaindu behar da, gosaria eta danborraren truke. Entsaioak, berriz, uztailaren 27an eta 28an egingen dituzte Herriko Etxeko plazan.

### Mariatxiak uztailaren 19an

Eguraldiarengatik bertan behera gelditu zen uztailaren 1eko mariatxi eta dantza emanaldia uztailaren 19an egiteko asmoa dute. Asteazkenean 21:00etan hasita Herriko Etxeko plazan Mariachi Imperial Elegancia Mexicana eta Dantzaki Jose Mari Orbegoza dantza eskola ariko dira. Ea oraingoan eguraldiak laguntzen duen!

## UZTAILAREN 21, 22 ETA 23AN KULTUR ETXEAN (20:00)

### 'Harritik hazia' antzezlanerako sarrerak salgai


#### TTIPI-TTAPA

Oroimen historikoan oinarritutako *Harritik hazia* herri-antzerkia eskainiko dute uztailaren 21, 22 eta 23an. Hiru emanaldiak 20:00etan izanen dira Kultur Etxean eta sarre-rak salgai daude dagoeneko.

Sarrera eskuratzeko eta ordaintzeko hiru aukera daude. Uztailaren 15era bitarte, aitzinetik erosita 8 euro kostako da; hortik aitzinera 10 euro kostako da; eta, azkenik, sarrera eskuratzear gain, proiekturako la-

guntza ekonomikoa eskaintzeko 20 euroko txartela ere bada. Azken honen truke, sarrerarekin batera, Maddi Irazokiren grabatua ere jasoko dute erosleek. Turismo Bulegoan (Eztegara pasealekua, 11) eta internet bidez, *bibe.me* plataforman eskura daitezke sarrerak.

Berako Udalak, Berako Kultura Batzordeak, Berako Euskara Batzordeak, Uhartearen antzerki eskola eta Oroimenak antolatuta dituzte antzerki-emanaldiak.

  
**okaNeko**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Enaut & Nekane  
Kanttonberri 12 • BERA  
Tfno/Fax: 948 630 018

  
**xuga**  
tel. 948 631 519  
www.xugabera.com  
www.facebook.com/xugabera

  
**BAR Botxo**  
OSTATUA  
Zalain • BERA • 948 630 052



## LESAKA

NATURA → HITZARMENA SINATUKO DUTE EGUNOTAN

# 11.000 zuhaitz landatuko dituzte Frainen Oinez Basoaren baitan

Nafarroa Oinezek sortzen duen kalte ekologikoa orekatzeko

Aitor AROTZENA

Tantirumairu Ikastolak bere ekarpena egin nahi dio orain dela zazpi urte Nafarroa Oinezaren baitan sortu zen Basoa Oinez ekimenari. Ereku komunalean egiten da baso berria, Frain mendiko Ziobi inguruko 10 hektareatan, 2015eko abenduan suak kiskalitako eremuan eta, hortaz, lesakar guztiena izan da Oinez Basoa. 11.000 zuhaitz landatuko direla kalkulatzen da, orain arteko Oinez Basorik handienean, bertako haritza, gerezi, li-zarra, astigarra, urkia, *Atlas* zedroa eta *pinus taeda* espeziekoak.

Datozen egunetan hitzarmena sinatuko dute Udalak, Tantirumairu Ikastolak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak.

Tantirumairu Ikastolarena Nafarroa Oinezek sortuko duen zazpi-garren basoa izanen da, 2010ean Oinez Basoa abian paratu zenetik. Oinez ospakizunak ingurumenean kalte ekologikoak eragiten zituela ikusita sortu zen egitas-moa. Izan ere, baliabide naturalak kontsumitu, hondakinak sortu eta berotegi efektuko gasak isurtzen baititu bestak. Kalte ekologikoa orekatzeko asmoz, ingurumenarendako testigantza onuragarri bat uztea erabaki zen: natur-gune autoktonoa bir-sortzea, euskararen eskutik sortuko zen basoa hain zuzen. Geroztik, 7 baso sortu eta 36.000 zuhaitz landatu dituzte Oinez Basoa ekimenaren baitan.

Landaketaren haritik ikasgeletan ingurumenaren zaintza eta errespetua bultzatzeko unitate didaktikoak sortu dira eta, UPNArekin elkarlanean, Oinez Basoaren ekarpenak aztertzeke ikerketa lana paratu da martxan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## Oroitzapenei aditzen ikasiz Agiñan Nafarroa Oinezaren eskutik

Nafarroa Oinezaren eskutik, *Oroitzapenei aditzen ikasiz* jaialdi berezi eta hunkigarria burutu zen San Joan egunez Agiñan. Tantirumairu ikastolako ikasleek, Bihotzkada kolektiboarekin garbitu eta margotutako bunkerra bisitatzeko aukera izan zen. Maddi Oihenart zuberotarraren, Ismael Tomas asturiarraren eta Amoranteren ahotsak aditu ondotik, Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak pres-tatutako *Gernika. Picassotik Zumetara* dantza saio eder eta hunkigarriaz gozatzeko aukera izan zuten Agiñara hurbildu zirenek.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

## San Juan bezperakoak

Merkatuko afariko kideek piztu zuten San Juan bezperan Euskara Batzordeak plazan antolatutako sua, musika, kanta, dantza, herri afari eta bertze hainbat ekitaldiren artean. Joxe Mitxelena *Pikukoborda* arduratu zen plazako su handiena pizteaz, eta Tomas Rekondo su tikiagoaz.

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz laugarren urtez Balkoi lore-dunen lehiaketako sariak ere banatu zituzten. Lehenbiziko saria (200 euro), Fernanda Anduezak jaso zuen; bigarren saria, 150 euro Maria Angeles Etxeparek eta hirugarren saria (100 euro) Juan Ignacio Etxeparek.



- Lentzeria  
 - Bainujantziak  
 - Mertzzeria  
 - Jantzi tipikoak  
 - Penen blusak  
 kaitigorria  
 lentzeria mertzzeria  
 Beheko plaza 10 31770 Lesaka  
 T. 948 627 514

IRU BIDE  
 Erretegia · Asador  
 Bitorrana, 3 · Lesaka  
 Tel: 948 637 127



KULTURA → IRAILAREN 16 ETA 17AN ANTZETUKO DA

## ‘Karmen Etxalarkoa’ Pastoralaren lanekin gogoz ari dira

Sarrerak laster jarriko dituzte salgai

Irene ELIZAGOIEN

Ekainaren 25ean egin zen lehenengo mustraketa orokorra eta entsegu honekin gus-tura gelditu ziren anto-latzaileak. Jende aunitz hurbildu zen ikustera eta giro polita sortu zen herrian. ETB eta TVEkoak ere hurbildu ziren eta

pastoralaren zatitxo bat grabatu zuten.

Bertzetik, ekainaren 28an, bigarren prentsaurrekoa burutu zen Kultur Etxean. Bertan, agerraldia probestuz, karmenetxalarkoapastorala.eus web orria aurkeztu zuten. Miguel Mari alkateak azaldu zuenez, 30.000 euroko aurrekontua zegoen hasieran baina iada kopuru hori gainditu da. Horregatik diru lagun-



ARGAZKIA: AIMAR IPARRAGIRRE

Herritar aunitzek parte hartu zuen ekainaren 25eko lehenengo mustraketa.

tzak lortzeko saiakera berezia egiten ari dira.

Aipatu behar da, nahiz eta mustraketa orokorrean taula gaineko lana ikusi, horren atzean ikaragarritzko lana dagoela. Aste-tartez etengabe biltzen dira herriko lantalde ezberdinak (jostunak, komunikazioa, eszenatokia, dantzen entseguak, kantutak) azken emaitza ona izan dadin.

Oraindik ere lan handia dago egiteko eta buru-belarri lanean segituko dute etxalartarrek irailera arte. Herritarrei dei egiten zaie auzolan izugarri honetan parte hartzera eta dauden lan ezberdinetan laguntzera. Bai aurretik dauden lanetan edota irailaren 16 eta 17an egunean bertan izanen diren eginbeharretan kolaboratzera.

Gogoratu Karmen Etxalarkoa pastoralaren inguruko informazioa sare sozial hauetan aurki daitekeela:

- FACEBOOK: Karmen Etxalarkoa Pastoral
- TWITTER: @karmenetxalarko
- YOUTUBE: Karmen Etxalarkoa Pastoral
- INSTAGRAM: @karmenetxalarko

### FLASH

#### Igerilekuak zabalik

Ekainaren 24an ireki eta abuztuaren 27 arte zabalik egon dira herriko igerilekuak. Aurten Aingeru Olabe eta Arkaitz Untxalo izanen dira sorosleak eta Ixaka Labadie eta Jon Iparragirre arduratuko dira ostatuaz.

#### Kontrabandoa, gaueko ibilaldiak

Uztaila eta abuztuko larunbatetan, 21:00etan plazatik abiatuta, kontrabandoko ibilbidea egiteko aukera izanen da. 3 ordu iraunen du ibilaldiak eta 8 km-ko luzera du. Gutxienez 4 lagun behar dira ibilaldia egiteko eta mendiko botak eta linterna eramatea ezinbertzekoa da. 10 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar eta gainerakoen prezioa 8 eurokoa izanen da. Ibilaldia egin ahal izateko egun bat lehenago deitu behar da 948635166 edo 689702891 telefonora.



ARGAZKIA: MIREIA MARTINEZ

#### TVE2ko ‘La aventura del saber’ saioa herrian grabatzen

Ekainaren 26an TVE2ko *La aventura del saber* programako *Espacio educativo* saiotik Isabel Uceda zuzendaria Etxalarrera etorri zen mitologia, sorginkeria eta etabarreri buruzko saioa grabatzera. Hainbat Etxalartarrek hartu zuten parte grabaketan eta datorren urtean emitituko dute saioa.

**JAJONE-COXOTEGIA**  
948 630 786  
Aitzate, 21 • BERA

**ERRANDONEA, S.L.**  
BILTEGIA 948 630 102  
ANDER 687 736 929  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tlf: 948 645 474

**ttipi-ttapa**  
744 484 361



## ARANTZA

GIZARTEA → ASTEROKO HITZORDUA

# Ortziralero pintxo potea izanen da lau ostatuetan

Pintxoa eta tragoa bi eurotan eskainiko dute

Nerea ALTZURI

Ortzirale ilunabar guztietarako plana antolatu dute herriko lau ostatuek elkarrekin: Aterpe, Burlada, Pabloenea eta Primi ostatuak pintxo potearekin hasi baitira. Joan den ekainaren 30ean hasi ziren, eta kontent gelditu ziren antolatzaileak, giro polita sortu baitzen herrian pintxo potearen aitzakiarekin.

Astero izanen da aukera: ortziralero 19:00-etatik 21:00-etara pintxo eta tragoa bi eurotan hartzen ahal izanen dira.

## Arantza Rock-eko rifak

Aitzineko urteetan bezala, aurtan ere Arantza Rock-eko rifak atera ditu Gazte Asanbladak, euro batean. Lau sari izanen dira: Primi, Pabloenea, Burlada eta Aterpean otorduak. Lehenbiziko bi sarituek hiruna otordu eskuratuko dituzte eta hirugarren eta laugarren sarituek bina otordu.

Zozketa Arantza Rock egunean egingen dute plazan eta saridunek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko. Zerbaki sarituak Arantza Rock-en Twitter eta Facebook-en, *erran.eus* webgunean, Ttipi-Ttapa aldizkarian eta Xorroxin irratan jakinaraziko dituzte.



ARGAZKIA: ESTHER BURLADA

Giro polita sortu zen pintxo potearekin herrian.



ARGAZKIAK: AITZIBER ABASOLO

## Giro ederra sanjuan suetan

Ohiturarekin segituz, herriko bazter bat baino gehiagotan sua piztu zuten herritarrek San Juan bezperan. Aipagarrienak, halere, Martixenean eta parkean (ikus argazkietan) egindakoak izandu ziren. Bietan ere berandu arte luzatu zen besta.

## AEK-KO BARNETEGIAK

### Familia barnetegiak antolatu dituzte aurtan lehenbiziko aldiz

Urtero bezala hemen dira AEK-ko barnetegiak. Udako bi hilabeteetan izanen dira eta tarte horretan, Aterpean egonaldia, ekintzak, eskolan klaseak... Azken finean herriko eta inguruko hainbat bazterretan euskaraz bizitzeko egonaldiak izanen dira barnetegiko lagunentzat.

Baina AEK-k barnetegi ezberdinak antolatzen ditu euskara ikasteko, hobetzeko eta praktikatzeko eta joan den uztailaren 3tik familia barnetegia dago. Aurtan lehenbiziko aldiz antolatu da gisa honetako ikastaroa eta uztailaren 14ra arte iraunen du. Guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko helburua du. Begirale-hezitzaileek seme-alabak zaintzen dituzte gurasoak eskolan dauden bitartean. Aparteko oporraldia izanen da haur eta gurasoentzat.

Hurrengo hiru hamabortzaldietan, abuztuaren akabera arte, euskalduntze barnetegiak izanen dira. Barnetegi hauetan ere denetarako astia izaten da, egun osoa euskaraz biziz: eskolarako,



UTZITAKO ARGAZKIA

Familia barnetegian dauden guraso eta haurrak.

txangoetarako, ekintzetarako, lagun berriak egiteko...

Bertetik, uztailaren 29an Debatik bizikletaz abiatu eta Etxarri Aranazen abuztuaren 12an helmuga izanen duen barnetegi ibiltariak abuztuaren 9an eta 10ean herrian geldialdia egingen du. Herri herri euskaraz ibiliko dira, euskara lantzeko aukera ederra baita.



GIZARTEA → UZTAILEAN ETA ABUZTUAN IGERILEKUAN

## Plisti-Plasta liburudategia martxan jarri dute Igantzín uda honetan ere

Astegunez  
17:00etatik  
19:00etara

### TTIPI-TTAPA

Aurreko udan bezala, aurten ere, Igantzín herriko talde batek igerrilekuan liburutegi zerbitzua martxan jarri du. Uztailean eta abuztuan eskaintzen ari dira eta eguraldi ona dagoen

egunetan muntatzen dute (asteburu eta besta egunetan izan ezik), arratsaldean 17:00etatik 19:30era.

Liburutegian, gehien bat aldizkariak izaten dira, euskaraz eta gaztelaraz liburu batzuk, haurrentzat ipuin eta komikiak, baita margotzeko marrazkiak ere. Ea eguraldiak laguntzen duen uda atsegina eta entretenitua igarotzeko.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aurten ere hasiak dira udako liburutegiarekin Igantzín.



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Patxi Etxenike eta Mikel Gomez, Parlamentuko agerraldiaren ondoren.

GIZARTEA → NAFARROAKO PARLAMENTUAN IZAN ZIREN EKAINAREN 30EAN

## N-121A errepidean hobekuntzak eskatu dituzte txirrindula zaleek

Bide berdea errepideko bizikletentzat egokitzea eta bidebaterak garbitzea eskatu dute, berriz berriz

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Urtxin-txa txirrindulari taldeko Patxi Etxenike eta Mikel Gomez Nafarroako Parlamentuan izan ziren ekainaren 30ean, N-121A errepidean Sunbilla eta Behobia lotzen dituen zatian hobekuntzak eskatzeko.

Txirrindulazaleek beraiei iritziak azaldu

zituzten lan saioa Gerroa Baik eskatu zuen eta bertan proposatu zituzten hobekuntzen artean, bidebaterak garbitzea, atzerriko gidariendako seinaleak jartzea edo errepideko txirrindulazaleak bertatik ibiltzeko moduan bide berdea egokitzea zeuden, berriz berriz

  
**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net

**E D A R I A K**

  
**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.com

  
**BORDALABEA**  
Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordalako.com

  
**Bidasoa GASOLINDEGIA**  
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA  
**24 ORDUZ**  
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693



# SUNBILLA



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Ekainaren 23an San Juan bezpera ospatzeko egitarau tiki bat antolatu zen. Arratsaldeko 7etan haur eta gaztetxoek dantza emanaldia eskaini zuten. Ondoren frontoi atzeko plazan herritar guztiek elkarrekin afaltzeko aukera izan zuten baita suak saltatzeko ere.

LEHIAKETA → UZTAILAREN 14RA ARTE

## Azken egunak bestetako kartela aurkezteko

Hirugarren urtez antolatu du lehiaketa

**Maidar PETRIRENA**

Santiburtzio bestetako kartel lehiaketa antolatu du Udalak hirugarren urtez segidan. Lanak aurkezteko epea uztailaren 14ko arratsaldeko 3etan bukatuko da [info@sunbilla.com](mailto:info@sunbilla.com) hel-

bide elektronikora bidali edo udaletxean bertan utzi liteke.

Lanak bi kategoriatan banatuko dituzte: 14 urte artekoak eta 14 urtetik goitikoak. Lanak orijinala izan behar du eta leloan nahitaez *Sunbilla*ko Tiburtzio Deunaren Bestak 2017/Fiestas de San Tiburcio 2017 jarri beharko du. Argibide gehiago Udaletxean.



**Pertsonaia**

Garazi ETXALAR

Espainiako eskubalo selekzioarekin

Doneztebeko Erreka taldearekin aritzen den Garazi Etxalar Zugarramurdi sunbildarra berriz ere Espainiako eskubalo selekzioarekin Sorian dabil uztailaren 10etik 15era bitarte, teknifikazio jardunaldi batzuetan gozatzen eta ikasten. Urte hasieran, Nafarroako selekzioarekin Espainiako txapelketa jokatzen zuten infantiletan.



ARGAZKIA: MIKEL BERTIZ

### Herriko txirrindulariak Bardenas Extreme proban

Sunbildar kuadrilla batek Bardenas Extreme bizikleta bueltan parte hartu zuen ekainaren 24an. Mikel Bertiz Ibarra, Aitor Apeztegia Bertiz, Iker Bertiz Bertiz, Gari Larraburu Bertiz, Jabier Jorajuria Eizagirre, Joxe Apeztegia Bertiz eta Xabier Irazoki Bertiz izan ziren parte hartu eta gozatu zuten sunbildarrak.



ARGAZKIA: AINTZANE ARRETXE

### Frantziara mendira lanera joan zirenen lehen elkarretaratzea

Uztailaren 1ean bere garaian Frantziara mendira joan zirenen lehen elkarretaratzea izan zen Ariztigain Kanpinean. Kuadrilla eder bat elkartu ziren bazkari eder batez gozatzeko eta hauek ere familia argazkia atera zuten.



ARGAZKIA: MIKEL CHIVITE

### Latsako eskolara joan ziren ikasle eta irakasleen eguna

Ariztigain Kanpinean ospatu zuten Latsako eskolara joaten ziren ikasle eta irakasleek beraien eguna ekainaren 24an. Zortzigarren urtea da besta eder hau ospatzen dutena eta beti bezala familia argazkia ateratzeko aukera izan zuten.



KIROLA → BIDASOKO BIDE BERDEAN

# Bizikleta zaleak bildu ditu Ederbidea proiektuak

Sunbillan hasi eta bukatu, mugikortasun iraunkorraren aldeko besta giroko martxan

**Maidar PETRIRENA**

Ederbidea Zikloturistaren lehen edizioa egin da ekainaren 24an Sunbillan, eta bertan adin desberdinetako bizikleta zaleek bat egin dute Bidasoko Bide Berdean martxa zikloturistan parte hartzeko. Lehenkorra izan ez den ekitaldia Ederbidea mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuaren ekintzetako bat da Nafarroa, Gi-

puzkoa eta Pirinio Atlantikoetan mugikortasun iraunkorra sustatzeko.

Ederbideako (Interreg Poctefa) bazkideak Pirinio Atlantikoen Departamentua, Nafarroako Gobernua eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira; Imotz, Biarritz, Donibane Lohizune, Hendaia eta Irungo Udalak; Hego Lapurdiko Hirigunea Elkargoa, Baztan Bidasoa Turismo Elkargoa, Cederna Garalur elkar-tea eta Plazaola Partzuergo Turistikoa.

## BESTA GIROKO IBILBIDEA

Ehun pertsona inguruk, haien artean familiak, zikloturistak eta zale taldeak, parte hartu zuten ibilbidean, eta



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Ederbidea Zikloturistan parte hartu zuten txirrindularietako batzuk, Sunbillan.

Bidasoko Bide Berde-tik 24 (Sunbilla-Oronoz Mugairi-Sunbilla) edo 40 kilometroko (Sunbilla-Bera-Sunbilla) ibilbidea egiteko aukera izan zuten besta giroan.

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak antolatuta, Ederbidea proiektuaren kide bezala, irteera eta helmuga Sunbillan izan zuten eta ibilbide luzea aukeratu zutenek Beraraino joan eta buelta egin zuten.

Martxak balio izan du mugaren alde bateko eta besteko zaleek bat egiteko eta Bidasoa eskualdeaz disfrutatzeke,

ingurune natural batean, oinpekoei eragin bitartean.

Ekitaldia akitzean, zikloturisten artean bi pertsonentzako lau menu zozketatu ziren Baztan Bidasoa Turismoko kide diren Oronoz-Mugairiko Urgainen, Doneztebeko Ameztiaren, Sunbillako Ariztigain kanpinean eta Etxalaroko Bentan.

Hortaz, parte hartzaileek lehen eskutik eza-gutu zuten Ederbidea, mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuaren erabilera bultzatzeko turismo eta aisial-

diko ikuspegitik nahiz eguneroko joan-etorrien ikuspegitik.

Ederbidearen lanildoetako bat bizikletan egiten diren joan-etorrien segurtasuna hobetzea da. Horrela, Baiona, Donostia eta Iruñea artean bizikleta bideen egokitzapenari jarraipena emanen dio proiektuak.

Modu honetan, Ederbideak aukera ematen du mugikortasun iraunkorarekin, ekonomia berdearekin, eta, bereziki, turismo aktiboarekin jarduera ekonomikoak garatzeko.

## ERAKUSKETA UZTAILAREN 20TIK IRAILAREN 4RA

### ‘Haiek danak sorginak’ argazkiak Bego Antonen eskutik Bertizen

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak antolatutako Kultur 2017 programaren baitan Bertizko Jaurerriko Natur Parkean Bego Antonen argazki erakusketa izanen da uztailaren 20tik irailaren 4ra, Sauvageren parte-hartzearekin. Uztailaren 20an, 12:00etan egingen dute inaugurazio ekitaldia, artistak bertan direla

eta egunero, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara irekia egonen da *Haiek Danak Sorginak* izenburua duen erakusketa.

Inkisiadoreek akusatutako torturaturatuz lortzen zituzten eta gaur egun gordetzen diren lekukotasunetan oinarritzen da. Proiektuak gertaeren tokiak erakusten ditu (basoak, kobak eta baserriak), eta antza egiten zituzten sorginkeria-jar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sorginkeria inguruko interpretazio propioa egiten du Bego Anton argazkilariak Bertizko Natur Parkean ikusgari paratuko den erakusketan.

duerak antzeztzen ditu. Emakume horiek jazarpenaren ondorioz bizi izan zuten etsi-

pena erakusten dute Bego Anton (Bilbo, 1983) argazkilariaren lanek.



# DONEZTEBE

GIZARTEA → UZTAILAREN 4AN

## Osasun zentro berriaren aurkezpen publikoa egin du Herriko Etxeak

Udazkenean hasiko dira eraikitzen

**Marga ERDOZAIN**

Aurtengo udazkenean eraikitzen hasiko den Osasun Etxe berriaren proiektua doneztebarrei eta Malerrekako alkateei aurkeztu zien Doneztebeko Udalak uztailaren 4an.

Agerraldi horretara honako hauek bertaratu ziren: Oinarrizko Osasun Laguntzako gerentea (Javier Diez Espino); Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zuzendariordea

(Borja Azaola Estevez), Osasun Zentroko zuzendaria (Monika Martin), Erizainen Arduraduna (Arantxa Agerre) eta Udaleko hirigintza zinegotzia (Peio Grazena).

Aurkezpen horretan egoitza berri honen ibilbide historikoa, zerbitzuak, urbanizazioaren zehaztapenak, eskolari egindako desfakzioak, aurrekontuak... eta bertze hainbat jakingarri ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Azalpenen ondoren herritarrek galderak, kezak eta iradokizunak luzatu zituzten gaiarekiko dagoen jakin-mina eta interesa azalduz.

### FLASH

#### Igerilekuko ikastaroetarako irakasle falta

Udalak aurtun ere igeriketa ikastaroak antolatzeke asmoa zuen, baina irakaslea topatu ez duelako erabiltzaileei jakinarazten die ikastarorik ez dela izanen. Interesatuak barkamena eskatu nahi die Udalak lerro hauen bitartez.

#### Igerilekuko bonoan deskonturik ez

Modu berean, Udalak harkamena eskatu nahi die Ttipi-txartela dutenei aurtengo igerilekuan deskontua izanen zutela iragarri baitzen eta denbaldia hastean, beherapen hau gauzatzerik ez delako izan. Gainerako kirol egoitzetan egiten denez, Udalak gurean egiten ahal zela pentsatu zuen, baina ezin da. Bi arrazoi daude: aurtengo kirol egoitzen prezioak ezarrita daudela eta kudeaketa zuzena egiten denez, legez ezin da horrelako beherapenik ezarri (gainerako toki aunitzetan kirol egoitzak kanpoko enpresek kudeatzen dituztenez, hori ahalbidetzen da).



ARGAZKIAK: MARGA ERDOZAIN

### Besta paregabeak eguraldia aurka izan arren

Irudiek hitzek baina indar handiagoa dutenez, aurtengo bestak argazki bilduma batean laburbildu ditugu. Argazki hauei honako zertzelada batzuk erantsi behar zaizkie. Tiburtzio Arraztoari mila esker ilusioz beteta ohorezko txupinazoa egin zuelako. Egitarauan ziren ekitaldi gehienak betetzeko modua izan da, nahiz eta hotza, euria eta haizea bisitari izan ditugun. Ohiko programazioa bikain: txaranga, dianak, aurorak, banderaren dantza, Erreka Dantza taldearen emanaldia, postre lehiaketa, herri bazkaria... Izan ditugun berrikuntzak aipatu behar ditugu, datozen urtetan bere tokia izan dezaten: bertso-saioa, Eraso sexistaren kontrako gunea... Testu hau ere aprobetxatu nahi da eskerrak emateko: bertakoak, bisitariak... eta aipamen berezia parte hartzen, antolatzen... aritu zireten guztioi eta txalorik handiena, guztiok besta egin ahal izateko, lanean aritu zireten guztioi. Mila esker karrikak garbitzeagatik, eszenarioak muntatzeagatik, aulkiak, mahaiak, bailak... garraiatzeagatik (gora gure lan-gileak!). 2018ko bestetarako aurtengo hoberena hartuko dugu, akatsak zuzendu eta, batez ere, eguraldi ona enkargatu.

### Ba al zenekien

Bestetan GURE GAZTEEK hainbat txikizio egin dituztela hiri-altzarietan. Herritar batek honako hausnarketa hau igorri du: «Gazteei entzun behar zaie, aldarrikatzen, borrokatzen dutena ulertu behar da. Baina hizkuntza hau erabili nahi duzue entzutea? Herriari egin diozuen zauria zeinek ordainduko du? Horrek kostua du eta urtean bertze gauza anitz ezin izanen dira egin herriak kalte horiek ordaintzen dirua erabili beharko duelako. Ez dakizkigu zuen izenak, baina garbi eduki zuen bizitzako curriculumean txikizio hauek idatzita gelditu direla. Hausnarketarako galderak eta kezak: denak ez du balio, zerbaitetan huts egiten ari gara... Honelako bestak nahi al dituzue?»



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 28AN

# Herrian Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna ospatu da

Besten ekintzen artean, Udaletxean ortzadarraren ikurra jarri zuten egun horretan

**Fermin ETXEKOLONEA**

Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna dela eta *Malerrekan mai-tasuna askatasunez marrazten dugu* ekitaldia antolatu zuen Malerrekako Mankomunitateak ekainaren 28an Zubietan. Goizetik ortzadarraren ikurra hedatu zuten Udaletxean eta arratsaldean taile-

rra izan zuten eskola atarian, gaiarekin lotutako txapak eginez. Gero, *Udako amodio bat* filma 20 bat lagunek ikusi zuten eta estalpean egin zen afarian beste horrenbeste bildu ziren, sexu aukera ezberdinekin errespetua aldarrikatuz.

## Herriarteko pilota txapeldun zubietarrak ere

Doneztebeko taldearekin aritu ziren Aitor Agesta alebinetan; eta Julen Santesteban eta aita zubietarra duen Patxi Loiarde infantiletako bikotea izan zen. Hau-



ARGAZKIAK: EDORTA AMURUA

Estalpeko afaria, txapa tailerra eta ortzadarraren ikurra udaletxean.

ek hutsean utzi zituzten kontrarioak.

## Ludoteka eta udalekuak

Udako ludoteka uztailaren 14an akituko da eta ingeles udalekua hilaren 17an hasiko da.

Naroa Elizalde eta Maritxu Sanchez aritu dira lehenbizikoan monitorea lanetan.

## Kinto afaria

1961, 1962 eta 1963an sortutako heritarrek kinto-afaria izan

nen dute uztailaren 22an Errandonean. Ostatuan bertan eman dezakete izena.

Berriki arte ez zen ohiturarik, baina azkenaldian kinto ezberdinetako jendea biltzen hasia da mahai inguruan.



1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Merkealdia!**

**Edredoi nordikoetan espezialistak**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toaillak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



## GIZARTEA

GIZARTEA → BI HILABETE EMANEN DITUZTE

# Gurean dira udapasa Sahararik etorritako 26 neska-mutiko

35 jatetxetan egindako zozketako zenbaki saridunak jakinarazi dituzte

## TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an iritsi ziren Saharaztan elkar-tearen eskutik ume sahararrak gure eskualde-  
ra. Aurten, 6 eta 12 urte bitarteko 26 neska-mutiko izanen dira gure artean uda pasatzeko, 11 bertako familietan eta bertze 15, iaz beza-  
la, Elizondoko Lanbide Eskolan antolatu den Bakelekuan. Guztia *Oporrak Bakean* egitasmoaren barnean.

Saharaztan elkar-teak urteak daramazki saharar herriari elkartasuna eta laguntza eskaintzen, eta *Oporrak Bakean* proiektua izaten da bere egitasmo nagusia. Honi esker, urtero saharar haurrak Baztan-Bidasoko familietara ekartzen dituzte udako bi hilabeteak pasatzera. Bi helburu nagusi ditu *Oporrak Bakean* egitasmoak: batetik, basamortuko udako egoera latzetik umeak atera eta oporrez gozatzeko aukera eskaintzea eta bertetik, elikadura osasungarria eta mediku arreta ematea.

Honela, hilabete hauetan jarduerak izaten dituzte: gure produktuek nola egiten diren ikasten (Autxitxia gasnategian, Arkupe



ARGAZKIA: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Nafarroako Parlamentuan ere harrera egin diete gure artean dauden sahararrei.

gozotegian, taloak egiten Amaiurren...), tailerak, hondartza eta mendira ateraldiak...

Bertetik, ume guztiak Osasun zentruetako Pediatria zerbitzutik pasatuko dira mediku azterketak egitera eta txertoen egutegia (kanpamenduekin batera koordinatuta) eguneratuta eramateko. Azterketa horiek prebentziarako balio dute, baina sintomaren bat haute-manez gero, ahalik eta lasterren sendatze bidean jarriko dira. Uda-ko egonaldian zehar ha-inbat osasun-arazo hauteman daitezke, eta horietako batzuk tratatu ezean, etorkizunean arazo larria izan daitezke haurrarentzat. Eguneroko elikadura osasuntsua eta garbitasun ohi-turak ere bermatzen saiatzen dira.

Aurten ere bi pertsonentzako otorduak zozketatu ditu Saharaztan taldeak. 35 ja-

tetxek bat egin dute Saharaztan ekimenarekin.

Bi hilabeteko epea izanen dute saridunek otordua egiteko.

## ZENBAKI SARIDUNAK

|                                       |       |
|---------------------------------------|-------|
| 1. Beola (Almandoz)                   | 0843  |
| 2. Aterpe (Arantzaz)                  | 2.492 |
| 3. Pabloenea (Arantzaz)               | 3.029 |
| 4. Ordoki erretegia (Arizkun)         | 3.072 |
| 5. Bixta-Eder (Arizkun)               | 1.403 |
| 6. Beintzako Ostaturia (Beintza)      | 4.289 |
| 7. Errekalde (Bera)                   | 3.500 |
| 8. Xuga (Bera)                        | 1.894 |
| 9. Zalain (Bera)                      | 4.369 |
| 10. Donamariko Benta (Donamaria)      | 3.623 |
| 11. Belarra (Doneztebe)               | 0556  |
| 12. Elbeteko Posada (Elbete)          | 3.401 |
| 13. Hilarion (Elgorriaga)             | 1.111 |
| 14. Galarza (Elizondo)                | 0758  |
| 15. Eskisari (Elizondo)               | 3.923 |
| 16. Itzalargikoborda (Elizondo)       | 0851  |
| 17. Kastonea (Erratzu)                | 4.020 |
| 18. Elutsa (Etxalar)                  | 1.558 |
| 19. Herriko Ostaturia (Etxalar)       | 4.702 |
| 20. Fransene (Gartzain)               | 3.453 |
| 21. Herriko Ostaturia (Gaztelu)       | 2.755 |
| 22. Olari (Irurita)                   | 1.053 |
| 23. Altxunea erretegia (Ituren)       | 0164  |
| 24. Tresanea (Ituren)                 | 1.381 |
| 25. Herriko Ostaturia (Ituren)        | 0399  |
| 26. Aurtizko Abarun aterpea (Aurtitz) | 1.789 |
| 27. Kattalin (Legasa)                 | 2.034 |
| 28. Larralde Sagardotegia (Lekaroz)   | 1.276 |
| 29. Etxebertzekoborda (Lekaroz)       | 4.271 |
| 30. Lindurrenborda Sagard. (Lesaka)   | 0702  |
| 31. Urgain (Oronoz-Mugairi)           | 0343  |
| 32. Ariztagain kanpina (Sunbilla)     | 4.440 |
| 33. Bustitz (Sunbilla)                | 2.107 |
| 34. Herriko Ostaturia (Zubieta)       | 0465  |
| 35. Graxiana Aterpea (Zugarramurdi)   | 4.803 |

## GERTAERAK

Laneko heriotzak ez errepikatze bitartekoak ezartzea exijitu du LAB sindikatuak

## TTIPI-TTAPA

Joan den ekainaren 21ean, Lesakako mendietan, zuhaitzak botatzen lan egiten zuen 57 urteko Donezteboko langile bat hil zen. Laneko heriotzak ez errepikatze bitartekoak ezartzea exijitu du LAB sindikatuak.

Lehenik eta behin, LAB sindikatuak bere babesa adierazi nahi izan die hildakoa-  
ren lankide, senide eta ingurukoei. Azken honen, 32 dira Euskal Herrian 2017an euren lanpostuetan hildako langileak, hauetako 6 Nafarroan.

Heriotza honen arrazoiak, LABen arabera, «ordu luzez 36º inguru egiten zuen bitartean lan egin izana da. Ez dugu ahan-tzi behar udu hasiera honetan arrazoi honengatik hiltzen den bigarren langilea dela, eta horrelako egoere konponbide bat ez badiegu jartzen ez direla kasu bakarrik izanen, horrelako ten-peraturarekin kanpoan lan egiterakoan araututakoaren inguruan nabarmena baita hutsunea».

Horregatik LABek kasu hau salatu nahi du eta egoera hau ez errepikatze bitartekoak ezartzea exijitu du.



OSPAKIZUNAK → HERRIKO BESTAK

## Giro eta umore onean joan dira Sanjoanak

Txosna ere bueltan azaldu zen herriko plazan, eta hori ere nabaritu egiten

**Markel LIZASOAIN**

Joan dira sanjoanak Saldiasen, eta, umorea eta giroa inportanteak izaten baitira holakoe-tan, esan daiteke umore eta giro onean joan direla, egunetan murriz iduriagatik. Txosna ere, bueltan azaldu zen herriko plazan, eta hori ere nabaritu egiten.

Ortziralarekin hasi ziren pestak, haurren egunarekin. Horien ilusioak asko balio du, eta, motor horrek tiratuta, aitor-tu beharra dago jokoak antolatzen aritzen diren meritua, koltxonetekin eta karrekin lehian aritu behar baitute. Bezperako suarekin ere, ikusgarria izaten da ume ttikien aurpegia, baitakite ongi aski ez dela egunero ikusten dutena. Musikan, berriz, belaunaldi aldaketak bakarrik ez, formatu aldaketa ere gertatu da, Modestoren eta ber-bena taldearen tokian, lesakar DJ bat izandua baita.

San Joan egunean, elorri zuria ate ondoe-tan paratzearekin, tanbolinteroek pasatu zuten herria, ohitura zahar-zaharrak, inondik

ere. Mezaren ondotik, berriz, otordua, eta herri bazkaria, Lizarralde eta Muñoa bertsolariekin. Arratsaldean, partida bat jokatu zuten, eskuz, herriko bi zaharrek bi gazteren kontra, eta, tantotik tantora hartsa hartzeko, bertsolariak aritu ziren ateraldiak botatzen. Irriparre asko egin zuen jendeak. Gero, berriz, erreminta hartu eta frontenis partida jokatu zuten barri-deko anaiek Argilorekoekin. Ikusgarria izan du zen. Jendeak asko jo zituen eskuak arrasalde guzian.

Eta, igandean, argi soinuarekin batean, mus txapelketa. Eta, eguerdi aldera, aizkora: Bizente hori ez dakigu noraino ailegatu beharra den; oraingo, baita Saldiseraino ere ailegatu da.

Arratsaldean, haurrek eman zuten pestetako ezustekorik politena, egiazko herri kirolak antolatuta: txokorta biltzea, lasterka zakua bizkarrean, lasterka zamarik gabe, txingude goitzea, txingak eramaten, enbor goitzea eta buelta berriz ere, hiru txanda egin arte! Hori-en ondotik, berriz, sokatiran, ezkonduak eta neska-mutilzaharrak.

Aurtengo beste berritasuna egiazko maria txiak, Joselu anaien kantuak bersionatzen. Eta, segidan, tortilla lehia ez, pelehia latza, tortillarik



ARGAZIAK: OTXANTRENGO MAITEK UTZIAK

Denetarik izan dugu aurten Sanjoanetan, baina ez ustekorik politena haurren herri kirol proba izan zen.

onena nork eginen! Eta, aurten ere, Txaparrek eramane 100 euroak eta irabazlearen meritua.

Hango jende sailari la-gun egiteko, berriz, Oihana trikitilarien aire zaharrak. Eta festen hon-

darrean, igualeko su festak herriko etxetik heldu den urte artino esanaz bezala.



## EZKURRA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 25EAN

# Txurdineko Gartziarenatarren ondokoak bildu dira lehen aldiz

Baserritik atera zen anaietako bat ere bertan izan zen

**Fernando ETXEBERRIA**

Txurdinea baserrian sortu ziren Gartziarena 12 anai-arreba eta horien ondorengoak bildu ziren ekainaren 25ean Barranka Ostatuan, 38 lagun denera. Familia ugaria izaterakoan, gehienek kanpora joan behar izan zuten lan bila, horietatik bederatzi Gipuzkoara, bat Bartzelonara eta bestea Murtziara. Gauregun 3 anai-arreba bizi dira oraindik eta horietako bat, Bartzelonan bizi dena, ospakizunera hurbildu zen.

Lehen aldia da Gartziarenatar hauen ondorengoak biltzen zirela. Une hunkigarriak bizi izan zituzten, berak ez baitzuten bilkuraren arrazoia- ren berririk eta, ustekabean, ezagutzen ez zituen senideak topatu zituen sorterrira itzulita. Bizi den anai zaharrena, 90 urtekoak eta arrebak ez zuten Ezkurra hurbiltzerik izan. Elkarrekin bazkaldu eta argazkia atera ondotik, berriz biltzekotan gelditu dira.

## San Juan sua

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, San Juan bezperan zenbait guraso eta seme-alaba fron-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Txurdineko Gartziarenatarren ondorengoak, Barranka ostatuko atarian

toian bildu ziren afaltzera eta afalondoan sua piztu zuten, *San Juan bezpera, sarna fuera!* oihukatuz suaren gaitetik salto egiteko.

## Festetako programa

Aurtengo festetako egitaraua zehazten ari da udala. Ekitaldi nagusien artean, aizkora txapelketa, bezperatik hasita egunero musika, bazkariaren egunean mariatxiak, aizkora apustua... izanen dira. Abuztuko ttipi-ttapa al-dizkarian agertuko da



UTZITAKO ARGAZKIA

Neska-mutikoak, San Juan bezperan.

programa osoa.

Ludotekaren inaugurazioaren data oraindik

zehaztu gabe badago ere, festak baino lehen izanen da.

## PLAZAOLA

TURISMOA → UDARAKO ESKAINTZA 'PLAZAOLA GOZATU' IZENBURUPEAN

# 14 bisita gidatu eta jarduera proposatu dituzte

Leitzan, Peru-Harri eta Lesakeneko oreinak bisita daitezke

**TTIPI-TTAPA**

Plazaola Partzuergo Turistikoak 2017ko udarako 14 bisita gidatu eta

jarduera turistiko eskaintzen ditu *Plazaola gozatu* izenburupean, bere zerbitzu turistikoetako hornitzaileen laguntzarekin.

Ezkurdi erlezaintza, Orgiko basoak (Lizaso), Mendukilo kobak (As-titz), Antsonea (Uztegi), Bikain (Etxarri) eta Anatxonea (Baraibar)

gaztandegiak, Peru-Harri parkea eta Lesakeneko oreinak (Leitza), Lizasoko Pitch&Put golf, San Migeleko santutegia, Lacturale-Esne behien interpretazio gunea (Etxeberri-Arakil) eta Lekunberriko Plazaola kantina dira proposatutako jarduerak. Aurtun, berrikuntza moduan,

Orokietako Enigma Basaburua aretoan *Scape room* bat ere eskainiko dute.

## INFORMAZIO GUNE BERRIA LEITZAN

Leitzako Udalak, plazan bertan, udaletxe ondoan, dagoen informazio gunea berritu egin du. Erakustokiak hobe-

tzeaz gain, erakina irisgarriago egin du hainbat aldaketa eginez: iristeko aldapa, seinalaketa berezia, apal irisgarria... Informazio gune hau urte osoan irekita egoten da, eta Plazaola eta Leitzako establezimenduen promozio materiala eta informazioa eskuragarri dago.





**erran.eus**  
Mendialdeko Albisteak

Eskualdean  
ateratako  
**UDako argazki**  
ederrenaren bila  
lehiaketa  
antolatu dugu.

**III. ARGAZKI LEHIAKETA**  
**erran.eus atarian**

Informazioa +  
**erran.eus**



## ONARRIAK

1. Ttipi-Ttapa zabaltzen den eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte hartu dezake.
2. Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak originalak eta bertze inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertu egingen dira).
4. Argazkiak ERRAN.EUS artxiboan gordeko dira eta antolatzaileak beretzat gordeko du jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko dira.

### EPEAK:

- **Argazkiak bidaltzeko epea.** Ekainaren 29tik irailaren 12ra arte.
- **ERRAN.EUSeko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea:** Irailaren 12tik irailaren 26era arte.
- **Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko dira urriaren 5ean.
- **Sari-banaketa:** Urri hasieran.

## SARIAK

### HAITZALDE LANDETxea

Eskimera Parajea, **Mutriku**

Tel: 943 60 48 65

[www.haitzalde.com](http://www.haitzalde.com)



EPAIMAHAIAREN SARIA:  
**HAITZALDE LANDETXEAN**  
2 lagunendako  
2 gau eta 2 gosari.

Info +



### BIKIN BATIN

**NAFARROA OINEZ**

**LESAKA**

[nafarroaoinez.eus](http://nafarroaoinez.eus)



ERRAN.EUSeko  
ERABILTZAILEEN SARIA:  
**BIKIN BATIN NAFARROA**  
**OINEZ**eko lotea.

Info +



### DONAMARIAKO BENTA

Bentak auzoa, 4 **Donamaria**

Tel: 948 450 708

[www.donamariako.com](http://www.donamariako.com)



Parte-hartzaileen artean  
**DONAMARIAKO BENTAN**  
2 lagunendako otordua.

Info +





# ARKUPEAK

GIZARTEA → LEHEN URTE ERDIAN

## Leon, Benidorm eta Frantziako Alpeetara bidaiak egingen dira 2018an

Irail honetan, berriz, Salamanca, Avila eta Segoviara joanen dira

**Fernando ETXEBERRIA**

Arkupeak elkarteko bidaiak batzordea uzta- ilaren 5ean bildu zen, datozen bidaien inguru- ko gaiak aztertzeko. Honela, 2018ko lehen urte erdian egin gogo diren egun batzuetako bidaietarako aurrekontuak eskatuko dituzte agentzia ezberdinetan. Zehazki, apirilean Leon hiriburura eta ingurura joateko asmoa dute, maiatzean Benidormera eta ekainean Frantziako Alpeetara eta Côte d'Azurrera (Kosta Ur- dina), elkarteko bazkideetako aunitz bertan lan egin baitzuten.

Bizkaiko kostaldera egin beharreko bidaiak ere aritu ziren. 238 bazkidek eman zuten izena baina 8 leku kendu behar izan dira, 4 autobus erabat bete direlako (horietako bat 65 plazakoa). Bisitatuko diren herri guztien informazioa jasotzeko txosten bat banatuko da bazkideen artean.

Irailen Salamanca,

Avila eta Segoviara egingen den bidaiak ere zehatz-mehatz azaldu zen. 100 bazkidek eman dute izena eta arazoren bat dago Salamancako hotelarekin, ez baitu hainbertzerentzako tokirik. Oraindik hilabete batzuk falta dira eta bidaiak agentzia arazoa moldatzen saiatuko da.

Azkenik, Aitaxi- Amaxien egunean, 170 bazkide joanen dira Aralarra meza entzutera eta gero Gorraizera bazkaltzera.

### Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza

Duela hilabete batzuk, Nafarroako Gobernuak 7.406,75 euroko subentzioa eman zion Arkupeak elkarteari, elkartegintza sustatzeko dirulaguntza, hain zuzen. Orain, 9.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza ere onartu du, jarduerak eta programak garatzeko. Honekin eta Caja Navarra Fundazotik eta Caixa-Banketik emandako laguntzekin, loteriarekin eta bazkideen kuotarekin, 2017ko balantze ekonomiko positiboa izatea lortuko da.

Hurrengo ordezkari- en batzarrean emanen da honen berri.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

### 94 bazkidek bisitatu zuten Pasaiko Albaola Faktoria

Arkupeak elkarteko 94 bazkide joan ziren Pasaiko Albaola Faktoria bisitate- ra. Bertan, 1563an eraiki eta urte batzuk beranduago hondoratu zen San Juan nao baleontziaren berdina den bertze bat eraikitzen ari dira, garai hartako teknikak eta materialak erabiliz. Horretarako, 15 metroko gila egin dute pago egurrarekin, Sakanatik eramandako 200 haritz ere erabiltzen ari dira, Irati- ko izeiak mastarentzako, kalamuz egindako soka eta belak eta Burgosko brea. Bi gidarik Pasai Donibaneko itsas-historiaren berri eman zieten, baita oraindik bukaera-data zehatzik ez duen baleontziaren eraikuntza prozesuarena. Bazki- deak Trintxerpetik abiatu ziren itsasontzian eta Albaolara ailegatu ziren. Han, ordubetez ibili ziren museoan eta baleontzia egiten ari diren lekuan. Ondotik, berriz, itsasontzia hartu eta Pasai Donibanera joan ziren bazkaltzera. Ondotik, Donostiara joan ziren eta autobus estazioan gelditu behar izan zuten, Udale- txek Bulevarrean gelditzea debekatu egin baitu. Bi orduraz ibili ziren Alde Zaha- rrean pasean eta etxera bueltatu ziren. Hurrengo bidaiak 230 bazkide joanen dira Bizkaiko kostaldera.



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 21ETIK 25ERA

# Santio egunez bukatuko dira aurten festak

Festa aurreko igandean pala txapelketako finalak jokatu dituzte

## TTIPI-TTAPA

Santio festak umorez datoz aurten ere. Uztailaren 22tik 25era hainbat ekitaldi antolatu dituzte, baina aurreko igandean ere izango da festaren seinalea.

## IGANDEA, UZTAILAK 16

- 11:00etan Aranoko XVI. pala txapelketako finalak.

## OSTIRALA, UZTAILAK 21

- 22:00etan XXXV. Mus txapelketa San Roke elkartearen.

## LARUNBATA, UZTAILAK 22 ARKUME JATEA ETA JUBILATUEN EGUNA

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da plazan.
- 11:00etan festei hasiera emango dien

## TXARTELAK

Arkume jateko txartelak salgai egongo dira Herriko Kontseju Tabernan, Hernaniko Deportibon, Urrietako Kantoi tabernan eta Goizuetako Amaia Kafetegian 30 euroan. Umeen menua egongo da, 6 euroan. Jubilatuen bazkaria ere bertan izango da. Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 19a.

itxaferua botako da Udaletxeko balkoitik.

- 11:30ean jubilatuen-tzako hamaiketakoa.
- 14:00etan VI. arkume jate herrikoa. Bazkal ondorea musikaz girotua izanen da.

## IGANDEA, UZTAILAK 23

- 11:00etan Meza.
- 11:30ean Pilotari txikien arteko pilota-partidak.
- 12:00etan Feria eta ur-



ARTXIBOKO ARGAZIAK

Joan den urteko txupinazoko protagonistak eta bertsolariak karpan.

- teroko tortilla lehiaketa.
- 17:30ean Txokolatada.
- 18:00etan ARNO gadutegiko aziendak.

## ASTELEHENA, UZTAILAK 24

- 11:00etan Mural margoketa.
- 17:00etan umeen jolasak.

- 21:00etan norberak ekarritakoarekin herri afaria musikaz girotua.

## ASTEARTEA, UZTAILAK 25 SANTIO EGUNA

- 11:00etan meza.
- 12:00etan Arano eta Goizuetako arteko ohiko pilota partida.
- 17:30ean herri kirolak. Aizkora apustua: Ai-

zarnako Luis Txapartegi eta Ezkurako Moises Gogortza, Errezilgo Arria V Ander eta Aranoko Xauxar baserriko Joseba Izeta-  
ren kontra.

- 19:00etan bertso saioa: Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Eneko Lazkoz, Jexuxmari Irazu.



## Aranoko Udalak

*jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei*



## GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 15EAN

# Karmen bezperan herri afaria egingen dute zazpigarrenez

Patata tortilla lehiaketak laugarren edizioa beteko du

## TTIPI-TTAPA

Uztailaren 15a Karmengo Amabirjin bezpera da eta 7. Herri afaria egingen dute herriko plazan larunbatean 20:30ean. 21:30ean, garai bateko ohitura galdu gabe, suak piztuko dituzte. Eguraldi txarrekin Pilota Plazan izanen litzateke afaria. Sa-

gardoa, ardoa, freskagarriak eta bestelakoak Udalak jarriko ditu.

Patata Tortilla lehiaketaren laugarren edizioa ere egingen da, 19:00etatik 20:00etara. Edonork parte hartu dezake, taldeka, binaka edo bakarka. Izena eman daiteke Izkiña tabernan, Umore-Ona Elkartearen edo Amaia Kafetegian uztailaren 13ra arte. Udalak emanen ditu patata, tipula eta arraultzeak. Sua, zartaria eta tresneria norberak eraman behar ditu.



## Ba al zenekien

Miren Ortiz Olabe kontratatu duela Udalak idazkariaren ordezkotzat lanposturako.

## ALDAKETA UDALETXEAN

Zuriñe Lujanbio euskara eta kultura zinegotziak kargua utzi du

## TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an egin zuten ekaineko ohiko batzarra eta aho batez, Zuriñe Lujanbio Zabala, Euskara eta Kulturako zinegotziaren kargua uzte eskaera onartu zuten.

Azken hilabeteetako hausnarketaren ondoren, Zuriñek bere kargua uzteko nahiaren berri eman zuen, karguak eskatzen dion konpromisoa bete ezin duela eta. Udal talde osoak onartu zuen bere eskaera.

Orain, Espainiako Gobernura bidali da jakinarazpena eta ordezkotzat hautaketa prozesua martxan jarri da.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

## Euriari aurre eginez 'Goizuetan bada' antzerkia ederra izan da

Nafarroako Gobernuak sustatutako Landarte programaren baitan, Olatz Beobideren zuzendaritzapean 'Goizuetan bada' herri-antzerkia antzeztu zuten uztailaren 1ean, larunbat arratsean Goizuetan. Herritarrek duela 27 bat urte antzeztutako Trabuko lanaren bertsio berritua estreinatu zuten, euriari aurre eginez. Antzerki-ibiltaria izan zen: plazan hasi eta Yandenean (argazkian), Goiko Iturrin, Irisarriko frontoian eta berriz ere plazan egin zituzten saioak, zortzi agerraldi denera. 9-10 urteko neska-mutiko kozkorretatik hasi eta 85 urteko beterranoenak bitarte aritu ziren eta Umore Ona abesbatzak eta dantza taldeak ere parte hartu zuten ikuskizunean. Emanaldia borobiltzeko, 250 lagun baino gehiago bildu ziren frontoian egindako zekor-jatean.

## UZTAILAREN 31 ARTE BIDAL DAITEZKE

Festetan entzun nahi diren abestiak aukeratzeko lehiaketa antolatu dute bigarren aldiz

## TTIPI-TTAPA

Goizueta-Aranoko Prebentzio Batzordeak Zuk aukeratu zuk dantza egin lehiaketa antolatu du bigarren urtez, uztailaren 10etik 31ra arte. Lehiaketaren helburua da abesti bilketa bat egitea. «Denon artean erabaki nahi ditugu festetan entzungo diren abestiak. Dibertigarriak, dantza egiteko modukoak eta giro ona sortzen duten abestiak izanen dira, eta ez erasotzaileak».

Abesti guztiekin eta iaz atera zirenekin pendribe bat sortuko da eta za-

balduko da festetako leku desberdinetan: Gaztetxea, txoznak..

Parte-hartzaileek mezu bat bidali dezakete whatsapp bidez, 681 265188 zenbakira deitu edo Facebook (Laga Gizarte Zerbitzua) edo Twiterra erabili (Laga Gizarte Zerb).

Hiru sari izanen dira: lehenbizikoa, 90 euroko balioa duen kontzertu baterako sarrerak; eta bigarrena eta hirugarrena, Elkar dendetan gastatzeko 30 euroko txartel bana.

Sariak abuztuan, festetan banatuko dira.



KIROLA → BASQUE ULTRA TRAILAREN ETAPA

## Iruñea Donostia Ultra Traila herritik pasako da abuztuan

**Boluntarioak  
eskatu dituzte  
antolatzaileek**

**Juana Mari SAIZAR**

Distantzia luzeko lau lasterketen bidez, Hego Euskal Herriko lau hiri-buruak bilduko dituen proiektua da Basque Ultra Trail Series Zirkuitua. Denera 500 kilometro osatuko dituzte, lau etapatan banatuta. Otsailan eta maiatzan osatu dituzte Bilbo, Gasteiz eta Iruñea arteko bideak eta abuztuaren 4an Iruñeatik abiatu eta Donostian bukatuko da lasterketa. Tartean, abuz-

tuaren 5ean, Aresotik igaroko dira parte hartzaileak. Horrelako probetan boluntarioen beharra izaten denez, antolatzaileek herritarrei laguntza eskatu diete: ibilbidean zehar lagundu, balizak jarri eta kendu, korrikalari eskoba bezala aritu... Lagundu nahi duenak [www.basqueul-trail.com](http://www.basqueul-trail.com) helbidean apuntatu behar du.

### Idazkari berria

Hautapropa guztiak egin ondoren, Amaia Elkano izan da puntuaziorik altuena eskuratu duena eta uztailaren 24an hasiko da lanean.



ARGAZKIAK: ZURINE GOIKOETXEA

### Giro onean joan dira San Pedroak

Nahiz eta eguraldia ez zuten lagun izan, herritarrek gogo eta animoekin ospatu zituzten festak, ekitaldi guztietan parte-hartze handia izan zen. Ostegunean hasi ziren ospakizunak San Pedroren meza ospatuz. Santuaren prozesioa egin eta ondoren atsaldekoa ere eman zuten bertaratu ziren guztientzat. Ostiralean herriko eskea izan zen ekitaldi nagusia eta urtetik urtera indar handiagoa hartzen ari da, herritarrek geroz eta etxe gehiago irekitzen baitituzte. Larunbatean baserrietako eskearekin hasi zuten eguna, sagardo dastaketa eta Udaberri dantza taldearen saioarekin segi eta bukatzeko herri afaria eta dantzaldia ere izan zen Gozo Gozo taldearen eskutik goizalderarte. Ohiturak mantentzen segitzeko animoa eta gogoia badela ikusten da eta honek lanerako indarra ere ematen du, ea festetan giro onak segida izaten duen.



### Ba al zenekien

Itxaso Onsalok, Leire Astiazaranekin bikote osatuta, Euskal Herriko Arpana txapelketa irabazi berri duela. Uztailaren 8an Iruñean Nafarroako txapelketa jokatzeko zuten eta horretan ere, beraiek ziren faboritoak.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK  
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK  
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423  
[betikopvc@betikopvc.com](mailto:betikopvc@betikopvc.com) / [www.betikopvc.com](http://www.betikopvc.com)

**BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta  
INSTALATZEN DITUGU**



**6 kamara 82 mm-ko profila  
Merkatuko isolamendurik  
hoberena.**

**A +++**



\* 70 mm

**Nafarroako Gobernuak  
dirulaguntzak emanen ditu  
LEIHOAK eta KONTRALEIHOAK  
aldatzeko.**

**ZUK NAHI BADUZU GUK EGINEN DITUGU GESTIOAK**





## LEITZA

GIZARTEA → EUSKARA ETA TURISMOA UZTARTUZ LEITZALDEAN

# Turistei zuzendutako euskara hiztegitxoak argitaratu dituzte

4.000 ale inguru utziko dituzte ostatu, landetxe eta informazio gunean

JM BARRIOLA

Herria eta ingurua bisitatzera etortzen direnek, gure hizkuntza ezagutzeko aukera ere izanen dute aurrerantzean. Arano, Areso, Leitza eta Goizuetako Euskara Mankomunitateak, bertako Udalekin elkarlanean eskuorri bat osatu du. Bertan, kanpotik datozen bisitariak oinarritzko hitzak aurkituko ditu bost hizkuntza desberdinetara itzulita: frantsesa, ingelesa, gaztelania, kataluiniera eta galegoa. Hiztegitxoaz gain, web orri garrantzitsuenen loturak ere izanen dituzte eskuorrietan. Denera 5.000 ale prestatu dituzte Arano, Areso, Leitza eta



ARGAZKIA: UTZITAKOA

## Urtero berritzen den usadio zaharra

Udako solstizioarekin batera sanjuan bezpera ospatzen da herrian, afari erraldoi batekin. Udalak 1000 lagunentzat mahai, aulki eta ogi-ardoak jarri eta nahi duena hurbildu liteke bertara janaria hartuta afaltzera. Afaldu bitartean suak piztu zituzten eta tamaina desberdinetakoak egin zirenez, haur, gazte zein helduek suaren gainetik salto egiteko aukera izan zuten. Arratsaldean haurrak ingurutxo dantzatu zuten eta txistor opilak banatu zizkieten plazan.

Goizuetako ostatu, landetxe eta informazio guneetan banatuko dituztenak. Eskuorriarekin batera, bisitariei zuzendutako euskararen inguruko inkesta bat ere banatuko dute.

## EKAINAREN 27TIK ABUZTUAREN 26RA

Saharako haurrak herrira etorri dira uda pasatzera

JM BARRIOLA

Hamabost urte baino gehiago daramatzate hainbat herritarrek udan Saharatik datozen haurrei harrera egiten. Aurten, herriko bi familietara 12 urteko bi neskato eta 10 urteko mutiko etorri dira. ANAS taldearen eskutik, 100 haur baino gehiago etortzen dira Nafarroara, errefuxiatu kanpalekue-tan bizi dituzten baldintza gogorretatik ihesi. Gurean dauden bitartean, atsedena hartu, ongi elikatu eta osasun-arreta jasotzen dute. Ongi pasatzeko aukera ere izaten dute, hainbat ekintza egiten dituztelako taldean edo familien laguntzarekin: bertako umeekin harremanduz, gure herria eta ingurukoak ezagutuz... Ekainaren 27an etorri ziren eta abuztuaren 26ra arte egonen dira bertan.



ARGAZKIA: M. CARRERE

## Gorritarango pesta handia

Usategietako gainean pesta giroa nagusitu zen beste urte batez. Eguardian meza ondoren herri kirol saioa izan zen eta ondoren bazkaria. XXXII mus txapelketan, Lazkanotar aita semeak izan ziren irabazleak eta XXXIII. Txintxurri lehiaketan berriz, Bordaberriko Jon Ander Zabaleta. Dantzaldia, zozketa eta txokolatea ere ez ziren falta izan.

## Ba al zenekien

Jon Kanflankak hirugarren urtez segidan Nafarroako sega txapelketa irabazi duela. (informazio gehiago kirolen atalean)

## GIZARTEA

16 emakume bildu dira autodefentsa feminista tailerretan

JM BARRIOLA

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, autodefentsa feminista tailerrak egin ziren ekainaren 19an eta 26an. Leitza, Goizuela, Areso eta Arano Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun batzordeak antolatu zituen eta 18 eta 29 urte bitarteko 16 emakumek parte hartu zuten.

Autoestima indartu eta emakumeen arteko elkartasuna bultzatu zuten tailerretan. Defendatzeko baliabideak ezagutu, egoera arriskutsuak saihestu, hainbat eredu ezbaian jarri... Konfiantzazko eta elkartasunezko giroa sortu zen eta tailerretan parte hartu dutenen balorazioak oso onak izan dira: «batzuetan ez dakizu gauza hauetaz norekin hitz egin... batzuek ez dituztelako sinesten edo ulertzen. Hemen aurkitu dut horretarako leku bat. Hemen kontatzen ahal ditut honen inguruko bizipenak».

## AURRERAGO BERRIZ

Emakume batzuk itxaron zerrendan gelditu direnez, asmoa dago beriz ere aurrerago tailerra antolatzeko. Tailerraren eramaileak, Nafar Lansareren eskutik eta Nafarroako Berdintasun Institutua- ren eskutik, 2016ko irailatik ekainera gaia- ri buruzko formakuntza anitza eta sakona jaso du.



GIZARTEA → LEITZALDEKO GIZARTE ZERBITZUEK IRURTZUN, ALTSASU ETA ETXARRI ARANAZKOEKIN ELKARLANEAN

# ‘Dena ez da txantxa’ prebentzio kanpaina antolatu dute Gizarte Zerbitzuek

**Droga eta alkoholaren kontsumoaren inguruan**

**JM BARRIOLA**

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Irurtzun, Altsasu, eta Etxarri Aranazkoekin elkarlanean droga kontsumoari buruzko udako prebentzio kanpaina egin dute. ‘Dena ez da txantxa’ goiburupean, droga eta alkoholaren kontsumoaren inguruko

informazioa eskaintzea dute helburu, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa bultzatuz, arrisku murrizketarekin batera.

1.999. urtean hasi ziren elkarrekin Udako kanpainak antolatzen, beraz, hau 19. urtea da. Uda momentu aproposa dela uste dute: «udan herriko jaiak direnez eta kalean denbora gehiago ematen denez, kontsumitzeko egoera gehiagoren aurrean aurkitzen gara. Hausnarketarako momentu egokia izan daiteke».

Gaiak zonaldean iku-

sitako beharren arabera aukeratzen dituzte, elkarlanean beste profesional batzuek komentatutakoa kontuan izanda.

Aurtengo kanpaina, whatsapp bidez elkarbanatuko dute, bideo labur bat baita (3 minutu eta 50 segundoko iraupena duena). Bertan lau egoera desberdin jorratzen dituzte.

Norberaren erantzukizunaren kontzientzia hartzea da bideo honen helburuetako bat. Argi utzi nahi dute ez kontsumitzea pertsona



UTZITAKO ARGAZKIA

Kanpainen erabili duten bideoko irudi bat.

askoren erabakia dela eta arriskuak ikustaraztearekin batera, «fes-

ta ongi bukatzea, gehienetan, norberaren esku dagoela».

## LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

*Erakutsi eta probestu aukerak!*

|                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                               |                                                                                                                                                        |                                                                                                                                         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Aritzela</b><br>DEKORAZIO TALERRA<br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>%10 DESKONTUA<br>50€tik gorako erosketetan<br>Landa Industrialdea-Suizpi, 3   LEITZA<br>T. 948 61 06 11 | <b>edr<sup>igunea</sup></b><br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>%10 DESKONTUA<br>50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM marken ezik<br>Elbarren, 67   LEITZA<br>T. 948 51 02 73 | <b>ETXE TRESNAK S.L</b><br>%10 DESKONTUA<br>koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik<br>Elbarren, 45   LEITZA<br>T. 948 51 02 08 | <b>FISIOETXEA</b><br>Ane Egizabal Lata<br>Fisioterapeuta<br>%10 DESKONTUA<br>hamar saioko bonoan<br>Uhartte Gotzaia, 8-3.C   LEITZA<br>T. 948 51 07 30 | <b>Garbi</b><br>drogeria - lurrindegia<br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>Huartte Gotzaia, 19   LEITZA<br>T. 948 51 01 73  |
| <b>gatzelu sol</b><br>iturgintza<br>%15 DESKONTUA<br>bainugelako osagarrietan<br>Elgoien, 32   LEITZA<br>T. 948 51 00 86                                                                     | <b>HERNANDORENA</b><br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>Elbarren, 21   LEITZA<br>T. 948 51 00 55                                                                             | <b>KAPRITXO</b><br>%5 DESKONTUA<br>erosketa guztietan<br>Elbarren, 19   LEITZA<br>T. 948 51 07 48                                             | <b>KU-LUN KJ</b><br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>Uhartte Gotzaina, 1- beheka 4   LEITZA<br>T. 948 51 36 20                             | <b>Leitza</b><br>OGI   BERRI<br>kafetegi Okindegia<br>%5 DESKONTUA<br>25€tik gorako erosketetan<br>Elbarren   LEITZA<br>T. 948 61 09 74 |
| <b>LEITZAHIROLAK</b><br>%5 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>Elbarren, 36   LEITZA<br>T. 948 61 09 76                                                                                | <b>MAIMUR</b><br>%10 DESKONTUA<br>oparitzeko artikuluetan<br>Elbarren, 15 - Herriko Plaza   LEITZA<br>T. 948 51 01 46                                                                    | <b>Olaia Bazar</b><br>%10 DESKONTUA<br>30€tik gorako erosketetan<br>Landa Behekoa   LEITZA<br>T. 948 51 04 37                                 | <b>ttipi-ttapa</b><br>%10 DESKONTUA<br>esketan<br>Koskontako bidea, 7-1.   LESAKA<br>T. 948 63 54 58                                                   | <b>Argazki</b><br>%5 DESKONTUA<br>gozotegian 30€tik gorako erosketetan<br>Elbarren, 20   LEITZA<br>T. 948 51 07 20                      |



## BAZTAN

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 16AN OSPATUKO DA 54. EDIZIOA

# Baztandarren Biltzarra ohiko egitarauarekin dator igandean

Baigorriko Basaizearekiko elkartasuna omenduko dute

## TTIPI-TTAPA

Uztailaren 16an Elizondoko ospatuko da Baztandarren Biltzarra. Ongi dagoena bere hortan utzi behar omen da eta, hortaz, aurtengoan aldaketa gutxi egingen dituzte programan. Bat aipatzekotan, bazkal ondoko bestaren espazioa pixka bat aldatu egingen dutela eta frontoiari eman zaion estalkia probetxuko dela, «karpakendu eta gure ostalua frontonera mugitu dugu».

Baztandarren Biltzarra menua hau izanen da: Etxeko piperrada, Patata tortila, aratxe erreka litxuekin (aratxeak Gartzaingo Migeltxo Galarregi eta Elizondoko Pantxito abeltzainei erosiak eta litxua berriz Irurritako Urrutia anaienak). Ondotik Euskal pasta (Malkorra goxotegia), izozkia (jauregia esnekiak), kafea eta patarra. Ilunabarrean karpan egiten diren bokadilloetarako Kortariko Bordako gasna erabiliko dute eta ostaluan salgai egonen den sagardoa, berriz, Lekarozko Larraldeakoa izanen da.

Omendua aukera tzerakoan, «huntekoan lizegiz bertalde salto egin eta Baigorriko Basaizea elkarteko lagunei luzatu diegu gure artera biltzeko gonbida-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Baztandarren Biltzarra elkarteko kideak, ospakizunaren aurkezpenean.

pena. Helburuek, interesek, lanak eta bestak maiz elkartu gaituzte eta hemendik aitzin ere hara izatea nahi dugu. Hortaz, elkartea bera baino, elkartasuna omen du nahi dugu, Basaizea eta Baztandarren Biltzarra elkarteen arteko laguntasuna, batzuek muga gisa ikusten duten tokian guk zubia eraikitzen segi dezagun».

Baztandarren Biltzarra berexiki nabarmendu nahi du ez duela inolako eraso sexistarik onartuko.

## EGITARAUA

*Baztanen eskuara barra-barra* leloarekin, aurten 54. aldiz baztandarren besta haundia ospatuko da uztailaren 16an. Aurten ere egun osoko besta izanen da: 10:00etatik aitzinera, goiz osoan artisau en erakusketa egonen da ikusgai Pedro Axular karrikan. 11:00etan herri bakoitzak prestatutako orga apainduen desfilea hasiko da. 14:00etan Mutil-dantzak izanen dira Elizondoko plazan eta ondo-

tik herri bazkaria izanen da Merkatuko zelaian. Bazkalondoko animazioan, Baztango ioiak, mezua, sari banaketa, animazioa, Hauspolariet taldearekin kantaldia eta dantzak izanen dituzte Merkatuko Plazan. 18:30ean hasita Trikidantz taldeak dantzaldia eskainiko du Laxoako plazan eta 20:00etan Oharkabe taldea igoko da oholtzara. 01:00etatik aitzinera, Juan Angel DJ-arekin bestak segi izanen du Laxoako plazako ostaluan.

## 120 ORDUKOA

Nazioarteko merkataritzarako ingeles ikastaroa Lanbide Eskolan

## TTIPI-TTAPA

Batxilergo edo Lanbide Heziketako erdi maila eta B1 ingeleseko maila dutenei zuzendutako Nazioarteko Merkataritzarako ingeles ikastaroa doan eskainiko du Nafar-lansareak Elizondoko Lanbide Eskolan, irailaren 18tik abenduaren 15era. 120 ordukoa izanen da, egunero bi ordu (16:00etatik 18:00etara).

Langabetuak nahiz langileak apuntatzen ahal dira ikastaroan, %60 eta %40ko proportzioan. Izena emateko epea irekia dago lekuak bete arte. Horretarako, Enplegu atarira, Doneztebeko Enplegu Agentziara eta Elizondoko Lanbide Eskolara jo daiteke, 948 581805 telefonora deitu edo [ieselizon-dobhi.educacion.navarra.es](mailto:ieselizon-dobhi.educacion.navarra.es)-era idatzi.

**NELI YANCI**  
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA  
ASEGURU MOTA GUZTIAK  
C007272664074J

  
**GENERALI**

Santiago 72B 31700 ELIZONDO  
T./F. 948 580 504 • 649 947 182  
[generalielizondo@hotmail.com](mailto:generalielizondo@hotmail.com)

Begiratu aukera gehiago gure web orrian  
[corneliayanciberrueta.seguros.generali.es](http://corneliayanciberrueta.seguros.generali.es)

**IKASKETA EDO LAN BIDAIA BAT EGIN BEHAR DUZU?**

- ✓ Mediku-gastuak atzerrian (50.000€ artekoak)
- ✓ Istripu-asegurua (50.000€ artekoak)
- ✓ Ospitalizazioa (50€eguneko)
- ✓ Aberriratzetako eta hilobiratzetako gastuak

Hilabetea 12€tik aurrera

**GENERALI Single protekzioa**  
Asistentzi pertsonal hoberena zure bizimodurako





GIZARTEA → IREKIBAI PROIEKTUAREN BARRENEAN

# Erreka garbitzeko auzolanak antolatu ditu Balleko Etxeak

Oronoz, Lekaroz, Elizondo eta Arizkunen 76 lagun aritu ziren garbitze-lanetan

## TTIPI-TTAPA

Batzar Nagusiak joan den urtean martxan paratu zuen Baztango herrilurretako zaborte-gien garbiketa planari jarraipena emanez, Baztan ibaia garbitzeko auzolanak antolatu zituen

Udalak ekainaren 19tik 24ra bailarako zenbait herriekin elkarlanean.

Aurten ere, joan den urtean hasitakoari jarraipena emanez, ekainaren 5ean ospatzen den ingurumenaren munduko eguna baliatuz, garbiketa auzolanak antolatu ditu Udalak. Aurtengoan baina, herrilurretako zaborte-giak garbitu ordez, Nafarroako Gobernuak bertze zenbait erakunderekin batera LIFE-IREKIBAI proiektuaren bitartez sustatzen dituen ingurumen bolunta-



UTZITAKO ARGAZKIA

76 boluntario aritu dira erreka garbitzen Arizkun, Lekaroz, Oronoz eta Elizondon.

riotzetan parte hartzeko erabaki hartu da, Baztan ibaia garbitzeko auzolanak antolatuz. Auzolanak burutu zituzten lau herriak Arizkun (eskolak antolatu eta bertako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrak ibili ziren, irakasleekin batera, garbiketa lanetan), Lekaroz, Oronoz eta Elizondo izan ziren eta hainbat kilo zabor ate-

ra ziren erreka bazterretatik. 76 lagun aritu ziren lanean auzolanetan eta benetan eskertzea da egin zuten lana.

«Sentsibilizazio kanpaina egokia izan zen eta zaborra ere aterazen, bai horixe! Badugu lana gure erreka garbitzen! Lehendabiziko pausua gehiago ez zikintzea litzateke eta horrekin bide erdia baino gehiago egina iza-

nen dugu», adierazi dute antolatzaileek.

Ekintza hauek Baztan bailara garbitzeko eta batez ere gehiago ez zikintzeko bidea jorratzeko balioko dute ziur. «Esker mila parte hartu zenuten guztiei eta ea ditugun zerbitzu, baliabide eta tresnak erabili eta garbiketa hauen beharra kiditeko gai garen etorkizun hurbil baten».



UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztango AEK ikasturte bukaerako afaria

Baztango AEK ikasturtea afari eder batekin akitu zuten ekainaren 16an. Heldu den irailean indarberriturik itzuliko dira 2017-2018 ikasturteari gogoz ekiteko. Uda on denei!



UTZITAKO ARGAZKIA

## Aranabiako III. paleta goma txapelketa

Irurritako Aranabia eskolako hirugarren paleta goma txapelketako azken partidak jokatu zituzten ekainaren 25ean Aranabia pilotalekuan. Final nagusian, Saioa Dendarietak eta Ane Karrikaburuk irabazi zieten Unai Iturregi eta Ane Casillas-i. Hirugarren posturako lehian, Beñat Verdek eta Ozkitz Karrikaburuk, Itxaso Iturregi eta Goiatz Karrikabururi irabazi zieten.



## BAZTAN

GIZARTEA → HAINBAT EKITALDI EGIN DITUZTE EKAINEAN

# Kultur hilabete ugaria ospatu dute Elizondoko Zahar Etxean

Belaunaldien arteko kanpaldi aitzindaria egin zuten ekaineko azken astean

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ekainean Hilabete Kulturalea ospatu dute Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxean eta hainbat ekintza gauzatu dituzte. Panificadora Baztanesara egindako ateraldiarekin hasi ziren ekainaren 7an eta ogia nola egiten den erakutsi zieten; 9an zine proiektzioa eta txokolate jatea, Panificadoran erositako bizkotxoarekin; 12an, babes eta segurtasunerako gaiak landu zituzten guardia zibilarekin; 13an Baztan Ikastolako haurren bisita eta Baztango Dantzarien emanaldia izan zituzten... Laguntza gehien behar duten erresistenteekin ere karrikara atera ziren ekainaren 14an, Bidelagun elkarreko boluntarioen laguntzari esker (40 bat lagun atera ziren eta Elizondoko karriketan barrena ibili ondotik, aperitiboak izan zuten patioan). Ekainaren 15ean, Rebeca dantza akademiako ikasleak ere hurbildu ziren Zahar Etxera eta ikasturtean zehar ikasitako koreografiak erakutsi zituzten; hilaren 20an Baztango Musika Eskolako ikasleek kontzertu bat eskaini zuten eta 22an, bingo berezia izan zuten, sari banaketarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango dantzariak ere saioa eskaini zuten Zahar Etxean.

## BELAUNALDIEN ARTEKO KANPALDIA

Ekainaren 26tik 30era belaunaldien arteko kanpaldi aitzindaria egin zuten, haur eta adinekoen artean elkarbizitza eta eskuzabaltasun baloreak transmititzeko helburuarekin. 10-11 urteko zazpi neska-mutikok lorategian oihal etxeetan lo egin zuten, baina dutxak, jan-

tokia eta bertze lekuak partekatu zituzten, elkarbizitza uztartzeko moduan. Batera egin zituzten ekintzak, egunero egunkaria irakurtzea, hidratazio saioak, esku lanak, mahai-jokoak, tailerrak eta film proiektzioak.

Eta akitzeko, uztailaren 1ean, Familien Eguna ospatu zuten. Egun hau familia, lagun, ba-

rride, bolondres, langile eta erresistenteen eguna da, besta giroan denak biltzeko aukera ematen duena. Meza izan zuten lehenik, aipamen berezia eginez adin desberdientako harremanak sustatzeari, kanpaldian egondako gaiztetxoak ere bertaratu ziren eta gero luntxa izan zuten denendako musikaz alaiturik.

## FLASH

### 14 lan aurkeztu dira (H)ilbeltza bekarat

Urte hasmentan aurkeztu zuten (H)ilbeltzako kideek beka baten erronka, Udala eta Txalaparta argitaletxearekin batean. Ekainaren 23an hetsi zen proiektuak aurkezteko epea eta hamalau lan jaso ditu Udalak. Kontuan hartuz lehendabiziko urtea dela, erantzun arras positiboa dela iduritzen zaio (H)ilbeltzari, eta aurtengo sortzaileen erantzuna ondoko urteetarako bulkadia izatea espero dute. Orain epaimahaikideen esku daude lanak eta irailean jakinaraziko dute zein izan den 2019an aurkeztuko duten euskal nobela beltz berria.

### Dayna Kurtz abeslaria Jauregiarte

Dayna Kurtz kantautore estatu batuarrek kontzertua eskainiko du uztailaren 21ean, ortziralean 21:00etan Iruriko Jauregiarte berran. Sarrera 10 euro kobratuko dute. Jazz, folk, blues eta pop-a nahasten ditu.

# zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa  
enpresa kontseilari eta aholkulariak

## ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es  
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



GIZARTEA → EKAINAREN 22KO UDAL BATZARREAN

# Edonoren aurkako eskratxeak gaitzetsi ditu Balleko Etxeak

EH Bilduren  
ustez  
«adierazpen  
askatasunaren  
barnean dago»,  
baina bertze  
talde guztiek  
Geroa Bairen  
mozioa onartu  
zuten

## TTIPI-TTAPA

Baztango udaleko plenoak eztabaida izan zuen ekainaren 22an, aitzineko asteburuan egin zen Aroztegiko proiektuaren aurkako akanpalekuko gertakarien harira. Bertan, Geroa Baiko Virginia Aleman parlamentu-kideari eta Ruben Ziganda udal zinegotziari zuzendutako 'eskratxea' egin

zuten herritar batzuek. Bi hauen udal taldeak, Geroa Baik, larrialdi mozio bat aurkeztu zuen udalean, eta plenoan ontzat eman zen, aldeko Geroa Bairen bi boz, UPNren hiru, Baztango Ezkerraren bi eta Baztango Auzolaneanen batekin, eta EH Bilduren lau abstentziorekin.

EH Bilduk dioenez, eginiko 'eskratxea' «baket-sua» izan zen, eta «adierazpen askatasunaren barnean dago». Gainera, Aroztegiaren proiektuak dakarren «gatazka soziala demokratikoki konpontzeko aukera ezaren aitzinean», 'eskratxeak' iritzia adierazteko ontzat ematen ditu EH Bilduk.

Plenoaren barruan, hautetsiez gain, 'eskratxea' jasan zuten bi lagunak zeuden, Geroa



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

'Aroztegia, pelotazo urbanistikoa' zioten karteekin agertu ziren batzuek udal batzarrera.

Baiko beste kide batzuekin, eta *Aroztegia*

*Pelotazo Urbanistikoa* lemadun afitxak zituen

herritar talde bat zegoen.

## UZTAILAREN 31 ARTE BIDAL DAITEZKE

### Mutil-dantzen inguruan Plazara Dantzara taldearen hausnarketa UEUren liburu batean

#### TTIPI-TTAPA

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Antropologia Sailaren Udako ikastaro bat da *Festak, genero-harremanak eta feminismoa* liburaren abiapuntua. Antropologia feministaren inguruan ikertzen dabilzan sailburuetako batek koordinatu du lana, Miren Guillo Arakistain elgoibartarrak. 30 idazleren eta hainbat kolektiboren lana bildu du, tartean Baztango Plazara Dantzara taldearena.

Plazara Dantzara herri ekimeneko kideek beren historia idatzita utzi nahi dute liburu honen bidez, heldu diren belaunaldiak etorkizuneko borroketan laguntzeko. «Inongo teoriarik gabe hasi ginen, banakako

ekintzak eginez, bakoitza bere herrian. Denborarekin konturatu ginen borroka feminista egiten ari ginela eta teoria ikasten joan ginen, eta teoria praktikarat eraman genuen borroka antolatuta eta kolektibo bihurtu arte».

Baztango ohitura diren mutil-dantzen harira sortu zen ekimena. Baina ez dituzte dantzok ohitura edo kultur adierazpen soil gisa ikusten. Argi dute patriarkatuaren eta zapalketaren erakusle ere badirela. Diotenez, nabarmena izan da mutil-dantzek bailaran izan duten lotura genero, klase eta hizkuntza zapalkuntzarekin. Hala, borroka hau autodefentsa feministaren adibide gisa ulertzen dute.

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Mila esker urte luze hauetan  
bezero eta lagun  
izan zaituztegun guztioi

**ANZABAL INMOBILIARIA**



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



## ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 25EAN

# Hamar urte osasuntsu bete ditu Sorginen Museoak

247.000 bisitari izan ditu eta mitologiari buruzko aretoa berrituz ospatu du urteurrena

**Josebiñe eta Koro**

Ekainean hamar urte bete ditu Sorginen Museoak irekirik. Juxtu krisialdia hasi zenean ireki bazen ere, arrakasta aunitzez aitzinera tiratzea lortu du, eta

urte hauetan 247.000 bisitari izan ditu, «batez ere bikoteak, familia ttipiak eta lagun taldeak, baina baita eskoletako haurren eta jubilatuen taldeak ere. Besta egunetan edo zubietan, eguzkilore honek harriturik ikusi du nola eguneko sarreraren errekorra urtetik urterat emendatzen zen 877 eta 893 lagun arte iragandako Aste Sainduko ortziralean eta larunbatean», Ainhoa Agirre, Zugarramurdiko Garapenaren ku-



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Sarako lamia eta Berako Basajaun giganteak, Sorginen Museoaren atarian.

deatzaileak aipatu zue-nez.

Okasio hau profitatu da museoaren zati bat berritzeko, mitologiari buruzkoa hain xuxen. Eskual mitologiaren pertsonaia batzuk deskribatzen ziren zutabe argizatuen partez, gela garbitu da erdian kokatzen den mahai haundi bati lekua uzteko. Mahai honek bi ukipen-

pantaila ditu: lehenbizikoan, bisitatiek Ainara Azpiazu irudigile herna-niarrak diseinatu dituen izaki mitologikoei buruz gehiago jakiteko aukera izanen dute; bigarrenan, izaki hauen aztar-nak mapa batean kokatuko dituzte. Aita Barandiaranek eta etxeko-andreen irudiak ere leku nabarmena hartuko dute gela berri honetan.

Guzti hau dela eta, ekainaren 25ean ospakizun-ekitaldi hunkigarri bat egin zen museoan. 70 bat lagun elkartu ziren, eta bertzeren artean, bi grabazio eskaini ziren: bata hamar urte hauetan bisitutako irudiekin; eta bertzea, hainbat jende eta talde museoaz zorian zuten, sargardo basoarekin eta botilarekin topa eginez.

OSPAKIZUNAK → 60 LAGUN BAZKALTZEN

# Galdutako bide zaharrak berreskuratu dituzte aurten Xareta Egunean

Sansinenetik Etxelekura eta Urdaintzetik Pazelairakoa garbitu eta erabili dituzte

**Josebiñe eta Koro**

Berezia eta animatua suertatu zen aurtengo Xareta Eguna. Hasteko, ibilaldia guztiz berezia izan zen, galdutako bide zahar batzuk garbitu ondotik, ibili ahal izan zirelako: Sansinetik



ARGAZKIA: JOSEBINE ETA KORO

Galduxeak zeuden bideetan barna egin zuten Xareta Eguneko ibilaldia.

Etxelekura, eta Urdaintzetik Pazelaira. Horretaz gain, bidean azalpen interesgarriak eman zirelako, aitzineko 500 urteetan izandako aldaketek buruz (etxebizitzak, elikadura, paisaia,

bizimodua...). Momentu pulita izan zen ere, Sarako lamia eta Berako Basajaun giganteek elkarrekin dantzatu eta karriketan barrena ibili zirenean.

Gure artean bestak

finitzen diren maneran finitu zen Xareta Eguna ere: 60 lagun bildu ziren bazkaltzera Azketa" jatetxean, eta ondotik ilunabar arte kantuz eta dantzan aritu ziren, Joxe Anjel akordeoilariarekin.



# Bizi bizikletan segurtasunez

Errespetuz  
ibiltzea  
guztion  
kontua da



## IKUSI ETA BESTEEK IKUS ZAITZATELA

Argi gorri eta zuria nahitaezkoak dira  
Erabili arropa argia eta ikusteko modukoa



## ERABILI BETI KASKOA

Bizia salbatzen ahal dizu  
16 urtetik beheri, nahitaez erabiltzekoa



## ERNE JOAN

Debeku dira mugikorra eta entzungailuak  
Erne ez joatea arriskutsua da



## ALKOHOLA ETA DROGAK

Bidean, hobe alkoholik eta drogarik gabe  
Tasa seguru bakarra, 0,0

## AUTOZ

Aurreratzean, errespetatu  
segurtasun tartea

Marra etengabea pasa dezakezu  
besteak arriskuan jarri gabe  
Gidatzean, ez alkoholik ez drogarik



1,5

metro





## URDAZUBI

GIZARTEA → EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAREN USTEZ «ARKITEKTOAK DEIALDITIK KANPO UTZI ZITUEN UDALAK»

# Ur-horniduraren obra zuzendariaren izendapena kritikatu du Elkargoak

Izendapena bertan behera uzteko eskaria ez du onartu Udalak

## Iñigo IMAZ

Europako FEDER Funtsak, Nafarroako Gobernuak eta Udalak finantzaturako obraren zuzendaria izendatu zuen Udalak ekainaren 30eko Udal Batzarrean. Obra hauek 1,7 milioiko (gehi BEZa) aurrekontua izanen dute -1,5 milioi (gehi BEZa) Udal Gobernuak aurkeztuturiko aurrekontu proiektuaren arabera-, eta; bai proiektua; bai obra zuzendaritza; Victor Salanuevaren VS Ingenieria y Urbanismo enpresari esleitu zaizkio. Proiektua gan den abenduan esleitu zitzaion bitartean, obra zuzendaritza ekaineko udal batzarrean onartu zuen Udalak.

Dantxarinek benta berriak eraiki ondotik, ur beharrak areagotu dira eta Otsondon mila metro kubiko dituen ur biltegia eraikitzeaz gain, auzoetako biltegiak ere egokituko dira, hauen arteko kanalizazioa eginez, Alkerdiko nahiz berte auzoetako ur beharrak kanalizazio sistema berri honekin asetuz.

Maiatzaren 2an, Udalak ur horniduraren obra zuzendaritza izendatzeko deialdia egin zuen. Deialdiaren baldintzak eta oinarriak irakurrita, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak berraztertze



UTZITAKO ARGAZKIA

## Urdazubi-Zugarramurdiko neska-mutikoak jesuiten udalekuan

Jesuiten udalekuan izan dira ikasleak. Ezkerretik eskuinera Pablo Irazoki, Jabbier Aldabe apezka, Maialen Etxabe, Begoña Olagarai, Maria Etxabe eta Miren Zubillaga. Xabierren egon dira, Jesuiten aterpetxean, apez eta monitoreekin.

errekurtsoa paratu zuen, deialdian arkitektoak baztertuak geratzen zirela uste baitute.

Ondorioz, ekainaren 30eko udal batzarrean bi eskari egin zituen Elkargoak: alde batetik, berraztertze errekurtsoa onartzea; eta bestetik, gaia argitu bitartean zuzendaritzaren izendapena bertan be-

hera uztea. Udalean gehiengo duen Azkar taldearen iritziz, deialdiaren oinarrietan ez zen arkitektoen parte hartzea galarazten, eta alkatearen hitzetan: «gehiago ematen du Elkargoan kargua utzi berri duen pertsonaren haserrealdi baten ondorioa dela eskari hau, eta ez gauzak behar diren mo-

duan ez eginagatik». Oposizioko Urdazubi Elgarrekin taldearen ustez, berriz, ez da ulergarria pertsona baten erabakia dela erratea, «izan ere Elkargoaren izenean paratu baita errekurtsoa, eta eskaria ontzat hartzen ez bada, etorkizunean arazoak izan ditzake Udalak epaitegietan». Elkargoaren eska-

riaren kontra azaldu ziren alkatea eta Azkar taldeko hiru zinegotziak. Urdazubi Elgarrekin taldeko hiru zinegotziek Elkargoaren eskariaren aldeko botoa eman zuten.

Hirugarren puntuan, obra bereko zuzendaritza bozkatzeko zen. Lehiaketara aurkeztu zen enpresa bakarra VS Ingenieria y Urbanismo izan zelarik, kontratazio mahaian baloratu zen proposamen bakarra hau izan zen. Anastasi Vidarten erranetan, ez da ulergarria lehiaketa horretan soilik enpresa bat aurkezte, eta zerbait gaizki egiten ari garenaren kezka mahaigaineratu zuen. Alkatearen erranetan, kontratazio mahaian Urdazubi Elgarrekin taldea ere egon zen, eta gauzak egin behar diren bezela egin ziren. Hortaz, obra zuzendaritza Salanuevaren enpresari esleitzea onartu zuen Udalak Azkar taldearen lau bozkekin, Urdazubi Elgarrekin taldeak kontrako hiru bozka ematen zituen bitartean.

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarineatik  
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
 montxoblanc@gmail.com

tanatorios  
**IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA  
 948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
 DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
 ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
 \*\*\*\*\*  
 LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 22AN

## Olerkarien Eguna ospatu dute ikastolan

Poesiaren  
Hatsa  
elkarteko  
Auxtin  
Zamorarekin  
haurrek hitzez  
gozatu ahal  
izan dute

**Pierre BASTRES**

20 urte dira Auxtin Zamora Zaldubi ikastolako haurrekin aritzen dela, olerkaritza eta oro-

korkiago adierazpen librea hurrei ezagutarazteko eta maitarazteko. Aurten, bigarren aldiz da 4. eta 5. mailakoek Auxtinen bisita izan dutela. Lana izaten ordez, «eskolaz kanpoko ekitaldi jostagarria da haurrentzat» ohartzen da Beronika beren irakaslea, preseski eskola urte buru huntan. «Ororen buru, hats berri eta fresko bat da, eta ikasleak gauz ainitzetaz ohartzen dira: hala no-



ARGAZKIA: AUXTIN ZAMORA

Senpereko Zaldubi ikastolako 4 eta 5 garrenekoak, Auxtin eta Beronika-rekin.

la, batzuk eskuaraz ikastolan bakarrik mintzo dira, eta ikasten dute hitzez josta daitekeela, olerkia sortuz. Orobat eskuarazko adierazpena laguntzen du, haurrek beren ihardokipen guziak bertzeekin partekatzen ahal dituzte, mugarik gabe: gogorat heltzen zaiena idatz edo

erran dezakete. Telebista edo ordenagailuko pantaila itzalita ere plazer hartzen ahal dela frogatzen zaie...» zehazten du Beronikak. Usaian, aipagai xume batetik hasten da Auxtin, sortzeko ibilbidea abian paratzeko: izarrak, zuhaitzak... «Gauzarik arruntenetarik ha-

sirik ere, harritzekoa da ikustea zoin edertasunerat hel daitekeen» oroitarazten du Auxtinek. Haren iduriko «olerki bat edo bertze zerbait sortuz norberak ikasten ahal du bere jiteaz. Gure buruan libere osoa badugu, eta idazterakoan libere hori agertzen ahal da».

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 30ETIK UZTAILAREN 4RA EZIN HOBEBE IRAGAN DIRA

## Hastapen euritsua izanagatik besta ederrak izan dira

Igandean ahate  
jokoa eta  
*Familiak kantuz*  
inguruan  
mundu bat  
bildu da

**Pierre BASTRES**

Ekainaren 30ean, ortziralearekin San Pedroko Senpereko bestak euripean hasi ziren zikiroarekin pilota plazan. Txartel guziak aintzinetik gan ziren, eta etortzea nihork ez du urriki. Larunbateko kanpoko

ekitaldi batzuk kendu bazituzten ere, giro ikaragarria izan da ostatuetan zein oihalgiztuetan pean, egunez eta gauzez ere bai. EHZ festibala ezabaturik, beharbada bestazale zombait Senpererat hurbilduko ziren.

Igandean Ahate Jokoa eta Familiak Kantuz inguruan mundu bat bildu da. Azken ekitaldi hau arras berezia izan da eta sorpresez bete: Senpertar familia zombait oholen gainerat upatu dira aldizkan,

aitzinetik hautatutako eta landutako kantu bat edo bi emaitako. «Azkeneko urteetan horrenbertze behatzaile izatea ez naiz oroitzen, mukurubetea zen!» loriatzen da Benjamin Fourt-Arteaga, besta komiteko kidea.

Astlehenean, *Bavaria, garagardoaren besta* moztar egunaren gaia zen, eta ikustekoa zen zenbat herritar jautsi ziren ospatzerat moztarotutik, giro ezin ederragoan, kantuz eta bozkarioz.



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Uztailaren 2ko Familiak kantuz ospakizunaren inguruan mundu bat bildu zen.



## SARA

KULTURA → UZTAILAREN 13AN ETA 19AN

# Ezpeleta eta Hendaiaiko abesbatzak kantari elizan eta lezean

Urtxintxak eskubaloi taldeak zikiroa ere antolatu du Lur Berri gelan

**Joana GERENDIAIN**

Uztailaren 13 an, ostegunarekin, San Josepe eskolako OGEC elkarteak Ezpeletan kantuz gizon abesbatza etorraziko du elizan. Kantaldia gaueko 9:30ean hasiko da.

Uztailaren 19 an, asteazkenarekin, Hendaiaiko Gaztelu Zahar gizon abesbatza entzuten ahalko da lezeetan.

Kantaldia gaueko 9etan hasiko da, sartzea 10 eurotan izanen da.

## Erromeria

Udako sasoin guziz herriko elkarteek erromeriak antolatzen dituzte. Uztailaren 15 ean, Sarako urtxintxak esku baloi elkarteak zikiro bat egingen du Lur Berri gelan, arratseko 7etatik goiti, deneri idekia izanen da. Haurrentzat jokoak izanen dira 7etatik goiti gaueko 10ak arte, haientzat jateko boltsak salduko dira 6 eurotan: ogitarteko bat; chips-ak, fruitu jusa eta izozki batekin.



## Axuri arte gelan Gogara artistaren erakusketa

Uztailaren 15etik 30era, Axuri arte galerian Gogara artistaren sorkuntza grafikoak erakusgai izanen dira. *Xareta* Ikonsizendatutako erakusketan artistak Lauburua eta Ikurrina ezartzen ditu obren zentroan. Guillaume Chavanne, Gogara, 46 urteko gizon bat da Parisen sortua, erakasle eta diseinu egile izana, 2009an Sarara etorri zen bizitzera, eta urte berean arrantza irakasle bilakatu zen.



ARGAZKIAK: GOGARA

Guillaume Chavanne Gogara artistak lauburua eta ikurrina ezartzen ditu bere obren zentroan. *Xareta* Ikonsizendatutako bere lanak ikusteko aukera izanen da uztailaren 15etik 30era Axuri arte galerian.

## UZTAILAREN 20TIK 23RA IRAGANEN DA ITSASUN

# Musikaz gainezka dator Errobiko 22. Festibala

## TTIPI-TTAPA

«Musika estilo ezberdinen nahasketa izanen da musikarien elkarlanaren bitartez. Ikusgarrietan artisten mestizaja emanen da, kulturen irekierak ez duelako identitate hiltzen, baina tradizioa berpizten». Baieztapen horretatik abiatuta sortu du Ezkandrai elkarteak uztailaren 20tik 23ra Itsasun iraganen den Errobiko Festibalaren 22. edizioko programazioa.

Urtero bezala arte adierazpenen aniztasuna eta kulturen elkargunea izanen dira Errobiko festibalaren ezaugarri nagusiak. Kontzertuak, dantza, ibilbide poetikoak, mintzaldiak, atelierrak... eskainiko dituzten Euskal Herriko artistekin batera, Mazedonia, Senegal, Iran eta Kon-

goko artistak izanen dira Itsasun.

Ikusgarri eta kontzertuetan ikusle izateaz gain artistekin partekatzea xekatzen du Ezkandrai elkarteak, hori dela eta ikuslegoa gonbidatua da parte-hartzaile bilakatuz. Ablaye Cissoko, Beñat Achiairy, Mizel Théret, Christine Martineau, Koçani Orkestar, Nicola Nageotte, Jordi Cassagne, Julien Achiairy, Benjamin Moussay, Kevyan Chemirani, Jean Christian Irigoyen, Jesus Aured eta Batoutos izanen dira parte hartuko duten artistetako batzuk. Prezioei dagokionez, egunean zehar eta Batouto Balek eskainiko duen gaueko dantzaldia urrik izanen dira. Goizeko ibilaldi musikatuak eta gaueko kontzertuak soilik ordaindu beharko dira.





## EZKONTZAK

**Jorge Villellas San Julian** eta **June Diez Etxeberria**, Madril eta Etxalar-koa, uztailaren 1ean.

**Juan Miguel Horta Bárcena** eta **Yu Chun Hung**, Iruñea eta Taiwangoa, ekainaren 24an, Igantzin.

**Roberto Gubia Urdaniz** eta **Oihana Vera Etxekolonea**, Iruña eta Legasa-koa, uztailaren 1ean Legasan.

**Vicente Juan Bellido Ageda** eta **Miren Josune Lezeta Aulestia**, Baiona eta Donostiakoa, ekainaren 24an, Sun-killan.

**Julien Iguiniz** eta **Laure Piguët**, Sarakoak, ekainaren 9an.

**Eugène Iparagirre** eta **Joséphine Barrenetxe**, Sarakoak, ekainaren 10ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

## SORTZEAK

**Oihan Etchart Ibar**, Urdazubi-Itxasu-koa, ekainaren 13an.

**Amaiur Cerezo Agirre**, Oiartzun-Le-sakakoa, ekainaren 15ean.

**Naira Apezetxea Elizalde**, Goizueta-koa, ekainaren 27an.

**Araia Bereau Maritxalar**, Lesakakoa, ekainaren 21ean.

**Julen Mitxeltorena Etxeberria**, Doneztebekoa, ekainaren 28an.

**Urtzi Olagarai Asensio**, Etxalarkoa, ekainaren 24an.

**Nahia Elizalde Bertiz**, Arantzakoa, ekainaren 24an.

**Oihana Etxebarne**, Sarakoa, ekainaren 17an.

**Ekain Lur Montón Sevilla**, Elizondokoa, ekainaren 30ean.

**Maddi Miranda Cruz**, Hondarribia-Etxalarkoa, ekainaren 22an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan  
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

## HERIOTZAK

**Leandro Almandoz Oianeder**, Donezteben, ekainaren 21ean, 57 urte.

**Carmelo Iruueta Iturralde Elizalde**, Berroetakoa, ekainaren 22an, 60 urte.

**Joaquin Leiza Arizmendi Txatxin**, Elizondokoa, ekainaren 26an, 86 urte.

**Eugenio Serrano Macías**, Berakoa, ekainaren 28an, 68 urte.

**Pedro Luis Sagaseta Ariztegi**, Ituren-koa, ekainaren 29an, 78 urte.

**Jose Mari Etxeberria Perurena**, Goizuetakoa, uztailaren 3an, 83 urte.

## Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ

Arantza  
2014/07/15  
III. URTEMUGA



Hirugarren urtea heldu zaigu jada,  
zu joan zinela atzoko kontua balitz bezala,  
izarrak distiratsuenak du  
zure irrifarrearen itzala,  
ilargiak ordean zure begirada  
polit horren zimara,  
bizitza zu gabe askotan  
egiten zait zaila,  
baina zure maitasuna dut  
egunero bihotzean danamaten zama.

GOIZANE LEHENGUSINA

## Joxe Mari ERASUN ERASUN

Donezteben, 2017ko ekainaren 20an



Joxe Mari joan egin zara  
hutsune handia utzirik  
zure kemena ta presentzia  
guri erakutsirik  
Zauden lekuan zaudela  
zure argia pizturik  
Beti gurekin egonen zarela  
bihotzez maitaturik

ZURE FAMILIA



## M<sup>a</sup> Carmen MINDEGIA MINDEGIA

Ezkurran, 1988ko abuztuaren 2an, 37 urterekin.

## Xabier IPARRAGIRRE MINDEGIA

Ezkurran, 2016ko uztailaren 30ean, 39 urterekin.

Amak maite zituen dantza eta bertsoa  
Semeak kuttunak eta poesia  
Biak oso gazte joan zineten gure ondotik  
bainan zuen berotasuna eta laguntza  
sentitzen dugu oraindik.

Eskerrik asko bieri bihotz-bihotzetik.

ZURE FAMILIA



PILOTA → EKAINAREN 24AN DONEZTEBEN

# Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak jokatu dituzte

Zegamako Matxin izan zen txapelkun senior mailan

## TTIPI-TTAPA

Josetxo Ezkurra zenaren omenez Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako 27. Pilota txapelketako sei kategorietako finalak jokatu zituzten ekainaren 24an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Sari banaketan, Abel Barriola eta Koteto Ezkurra izan ziren.

Hauk izan dira emaitzak:

• **Benjaminak:** Unax Madina (Beasain), 14 - Arkaitz Murua (Intxurre), 18

• **Alebinak:** Beñat Zubizarreta (Lapke), 18 - Iraitx Goikoetxea (Epele), 7

• **Infantilak:** Xabier Aburuza (Oiarpe), 18 - Ekain Sein (Oiarpe), 16

• **Kadeteak:** Javi Oskoz (Oberena), 18 - Sergio Gutierrez (Titin III), 13

• **Jubenilak:** Lorentz Orbegoza (Añorga), 17 - Ruiz de Larramendi



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXE

Josetxo Ezkurra omenez 27garren aldiz jokaturako txapelketako sari banaketa.

(Lapke), 18

• **Seniorrak:** Iban Matxin (Zegama), 18 - Aitor Zuasti (Paz de Zinganda), 1

Sariak eta txapelak banatzen, Abel Barriola Leitzako pilotari ohiak eta Koteto Ezkurra, Josetxo zenaren semeak banatu zituzten, bertzeak bertze.

Guztira 350 pilotari aritu dira Josetxo Ezkurra omenez jokaturako txapelketan, sei ka-

tegoriatan banatuak Benjamin (56), alebin (80), infantil (64), kadete (64), jubenil (56) eta senior (40) mailako pilotariak parte hartzen hasiko dira txapelketan.

Erreko pilotarien arteko txapelketako finalak ere jokatu zituzten ekainaren 23an Ezkurra pilotalekuan. Hauk izan ziren emaitzak:

• **Aurrebenjaminak:** Lukas Ezkurra 18 - Aratz Retegik 11

• **Benjaminak:** Iker Antzizarrek 18 - Javier Zabalak 4

• **3. mailako Alebinak:** Mattin Agestak 18 - Mikel Telletxeak 11

• **2. mailako alebinak:** Oihan Sarrateak 5 - Aitor Agestak 18

• **2. mailako infantilak:** Xuban Illarregik 18 - Mikel Mikelarenak 17

• **2. mailako kadeteak:** Julen Santestebanek 7 - Patxi Loiarrek 18

HERRI KROSA → EKAINAREN 25EAN

# Barberena eta Aznal garaile Donezteben

200 korrikalari baino gehiago 39. edizioan

## TTIPI-TTAPA

200 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten ekainaren 25ean Erreka elkarteak antolatutako Doneztebeko 39. Herri Krosean. Gizonezkoen artean, Alberto Barberena elizond-

darra izan zen bizkorrena eta emakumezkoetan, Marina Vicente gartzaindarra.

Ohikoa denez, proba hasteko ttikienak aritu ziren lasterka, izen-ematerik eta sailkapenik gabe. Gero, ttikinaz aurrera, aurrebenjaminetatik infantil maila bitarteko lasterketak egin zituzten. Ondotik, egin zen proba nagusia, ka-



ARGAZKIAK: ERREKA K.E.

Gizonezkoen eta emakumezkoen podiumak.

dete mailatik hasi eta beteranoak bitartekoak bildu zituen.

Aipatu bezala, Alberto Barberena elizondarra izan zen 7.300 metroko lasterketa burutzen bizkorrena (24.14). Beste lruña taldeko Daniel Sanzek (24.18) eta Iñigo Arregi donezteba-

rrak (25.05) osatu zuten podiuma. Hurbilean izan ziren Iñigo Lasaga doneztebarra (25.09) eta Narbarteko Joseba Elizagoien ere (25.17). Santi San Miguel doneztebarra zazpigarren izan zen.

Emakumezkoek distantzia erdia zuten egi-

tekoa, 3.650 metro. Marina Aznal gartzaindarra nagusitu zen (13:34) eta Irungo Irene Sanzberrok (13:54) eta Leitzako Eguzkiñe Zabaletak (14:08) osatu zuten podiuma. Lehenbiziko doneztebarra Maider Mindegia izan zen, zortzigarren postuan.



PILOTA → UZTAILAREN 1EAN IRABAZI ZION FINALEAN IRUÑEARI

# Nafarroako Herriarteko laugarren txapela jantzi du Doneztebek

Bina partida irabazita, tanteoak erabaki zuen

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren finala jokatu zuten Doneztebek eta Iruñeak uztailaren 1ean Iruñeko Labrit pilotalekuan. Joan den urteko finala errepikatuko zen eta joan den urtean bezala Doneztebe nagusitu zen. Bina partida irabazi zituzten, baina tanto gehiago atera zituen Doneztebek. Honela, laugarren txapela jantzi dute, 2011, 2012 eta 2016koaren ondorengoetik eta lauak hiriburuko taldearen kontra finala irabazita.

Alebinetan Doneztebeko Mikel Izagirre eta Aitor Agestak 11-18 gal-



ARGAZKIA: D. NOTICIAS

Doneztebe eta Iruñeko pilotariak eta ordezkariak, sari banaketaren ondorengo.

du zuten Iruñeko Sarasibar eta Sanchezekin.

Infantiletan, ez zen kolorerik izan eta Doneztebeko Patxi Loiar-te eta Julen Santestebanek hutsean utzi zituzten Iruñeko Berrio eta Otondo (18-0).

Jubeniletan ikusi zen partidariak ikusgarriena

eta hasieran aitzinetik ibili baldin baziren ere, Doneztebeko Iker Salaberriak eta Jon Mariez-kurrenak 16-22 galdu zuten Iruñeko Mata eta Cordonekin.

Seniorretan, beraz, garaipena behar zuen Doneztebek eta Xabier Barandiaran eta Jon

Gorritik ez zuten hutsik egin, 22-10 irabazi baitzieten Iruñeko García eta Cordon-i.

Nafarroakoa irabazi duen hiruetan Euskal Herriko herriarteko txapel-dun ere izan da Doneztebe eta ikusi behar-ko aurten ere hori lortzen duen.

## TXAPELDUNAK

|      |               |
|------|---------------|
| 1970 | Altsasu       |
| 1971 | Oroz-Betelu   |
| 1972 | LEITZA        |
| 1973 | LEITZA        |
| 1974 | Oroz-Betelu   |
| 1975 | Oroz-Betelu   |
| 1976 | Larraun       |
| 1977 | Oroz-Betelu   |
| 1978 | Larraun       |
| 1979 | BERA          |
| 1980 | GOIZUETA      |
| 1981 | Larraun       |
| 1982 | Lizarra       |
| 1983 | GOIZUETA      |
| 1984 | Larraun       |
| 1985 | Lizarra       |
| 1986 | GOIZUETA      |
| 1987 | Iruña         |
| 1988 | Larraun       |
| 1989 | Iruña         |
| 1990 | GOIZUETA      |
| 1991 | GOIZUETA      |
| 1992 | GOIZUETA      |
| 1993 | Iruña         |
| 1994 | Uharte Arakil |
| 1995 | Lizarra       |
| 1996 | Lizarra       |
| 1997 | Lizarra       |
| 1998 | Lizarra       |
| 1999 | Iruña         |
| 2000 | BAZTAN        |
| 2001 | BAZTAN        |
| 2002 | Lizarra       |
| 2003 | Lizarra       |
| 2004 | Uharte        |
| 2005 | Lizarra       |
| 2006 | Lizarra       |
| 2007 | LEITZA        |
| 2008 | Uharte        |
| 2009 | Iruña         |
| 2010 | BAZTAN        |
| 2011 | DONEZTEBE     |
| 2012 | DONEZTEBE     |
| 2013 | Iruña         |
| 2014 | BERA          |
| 2015 | Uharte        |
| 2016 | DONEZTEBE     |
| 2017 | DONEZTEBE     |



UTZITAKO ARGAZKIA

## Hirugarren txapela jantzi du Jon Kanflankak

Hirugarren urtez segidan Nafarroako sega txapelketa irabazi du Jon Kanflanka leitzarrek. Uztailaren 2an Donezteben jokatu zen txapelketa eta leitzarrek 1.711,90 kilo belar bildu zituen 45 minutuz eta Mikel Berekoetxea gorritiarrak 1.475,30 kilo. Orain, Euskal Herriko kanporaketa jokatu dute biek Aian, uztailaren 23an.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Onsalo eta Astiazaran Euskal Herriko txapeldun

Iaz bezala, aurten ere Euskal Herriko emakumezkoen arpana txapelketa irabazi dute Aresoko Itxaso Onsalo eta Zizurkilgo Leire Astiazaranek. Uztailaren 2an Usurbilen jokaturako saioan 4 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten lana burutzeko. Berako Nerea Sorondo eta Amaia Garcia bigarren izan ziren (5:24).



# uztailak 13 - 27

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

**Erakusketak**  
  
**BAZTAN | 2017.07-08**  
**Artearekin gozatzeko aukera zabala**  
**Baztanen udako hilabeteetan**  
Erratzu, Elbete, Elizondo eta Arizkungo hainbat txoko aurten ere margolan eta eskulturen erakusleihu bihurtuko dira uda honetan, Artearen Ibilbidearen baitan erakusketa aukera zabala antolatu baitute.

**Ospakizunak**  
  
**SARA | 2017.07.28**  
**Saguxarren gaua antolatu dute lezeetan**  
Saguxarren inguruan gehiago jakiteko aukera izanen da Sarako lezeetan. 20:00etan hitzaldia eskainiko dute eta ondotik saguxarrak ikusteko aukera izanen da lezeetan berean.

**Lehiaketak**  
  
**ESKUALDEA | 2017.09.12**  
**Eskualdean ateratako udako argazki ederrenaren bila III. lehiaketa**  
III. argazki lehiaketa antolatu dute [erran.eus](http://erran.eus) atarian. Argazkiak eskualdean ateratakoak izan behar dute eta Ttipi-Ttaparen eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok eginak. Irailaren 12ra arte aurkez daitezke.

## Ikastaroak

**DONEZTEBE**  
**EGA ikastaroa**  
**Abuztuaren 6tik irailaren 1era** Doneztebeko IKA euskaltegiak antolatua. Izen-ematea abuztuaren 3ra arte. 948 451555e edo [malerreka@ika.euskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ika.euskaltegiak.eus).

## Erakusketak

**ARANTZA**  
**Txokorik politenaren lehiaketako argazkiak ikusgai**  
**Uztailaren 15etik 29ra** Dena eta Apezenea dendetan.

**SARA**  
**Gogora sorkuntza grafikoak**  
**Uztailaren 15etik 31ra** 10:00-12:00 eta 15:30-19:00.  
**Larrungo Koloreak elkartekoen margolanak**  
**Uztailaren 23tik abuztuaren 8ra** 10:00-13:00 eta 15:30-19:00 Lur Berri gelan.

**ARIZKUN**  
**Teresa Lafraguaren margoak**  
**Uztailaren 16tik abuztuaren 31ra** Santxotena Museoan. Asteartetik larunbatera 11:00-14:00 eta 16:30-19:30 eta igandetan 11:00-14:00.

**Xabier Soubeleten margoak**  
**Uztailaren 15etik irailaren erdialdera** Sasternean. Ortzegunetik igandera 11:00-13:30 eta 16:00-20:00.

**ELIZONDO**  
**Jose Luis Alzugarairen lanak**  
**Uztailaren 20tik irailaren 17ra** Jaime Urrutia karrikako 3.ean. Ortzegunetik igandera 19:00-21:00.  
**Tomas Sobrinoren margoak**  
**Uztailaren 22tik irailaren 3ra** Arizkunenean. Astelehenetik ortziralerara 18:00-21:00 eta larunbat eta besta egunetan 11:30-13:30 eta 18:00-21:00.

**BERTIZ**  
**'Haiek danak sorginak' Bego Antonen argazkiak ikusgai**  
**Uztailaren 20tik irailaren 4ra** Bertizko Natur Parkean.

**Antzerkiak**  
**BERA**  
**'Harritik hazia' herri antzerkia hiru egunez**  
**Uztailaren 21, 22 eta 23an** 20:00etan Kultur Etxean. Oroimen historikoan oinarritutako herri-antzerkia. Sarrerak erosteko hiru aukera: 8 euro aitzinetik erositako uztailaren 15era arte, 10 euro edo 20 euro sarrera + la-

guntza ekonomikoa proiekturako (grabatua opari).

**Bestak**  
**ITUREN**  
**Herriko bestak**

**Uztailaren 14tik 17ra.** Xehetasunak 10. eta 11. orrialdeetan.

**ARANO**  
**Santioak**  
**Uztailaren 16an eta 21etik 25era.** Xehetasun gehiago 39. orrialdean.

**ELGORRIAGA**  
**Santioak**

## PROPOSAMENA

**BERA**  
**'Harritik hazia' herri antzerkia uztailaren 21, 22 eta 23an**  
1936an armada golpista Bor-tzirietan sartu zen, Irun alde-  
ra segitzeko. Baina erresisten-  
tzia errepublikanoak Endarla-  
tsako zubia suntsitu eta fa-  
xisten martxa oztopatu zuen.  
Hauek, errepresalia gisa, erre-  
publikano beratarren emazte  
eta seme-alabak atxilotu eta  
herio mehatxupean herri-  
tik kanporatu zituzten. Hor-  
tik abiatuta, herri-antzerkian  
gerra eta emakumeen egoe-  
raz gogoeta egingen dute.





**Uztailaren 22tik 25era.**  
Xehetasun gehiago  
12. eta 13. orrialdeetan.

ELIZONDO

**Santioak**

**Uztailaren 24tik 28ra.**  
Xehetasunak 14. orrialdetik  
23. orrialdera.

## Ospakizunak

GOIZUETA

**Karmen bezperako festa**

**Uztailaren 15ean** herriko  
plazan. 20:30ean afaria eta  
ondotik sua. 19:00etatik  
20:00etara 4. patata tortilla  
lehiaketa.

SARA

**Urtxintxak eskubaloit  
taldearen besta**

**Uztailaren 15ean** 17:00eta-  
tik aitzinera plazan.

**Saguxarren gaua**

**Uztailaren 28an** hitzaldia  
eta ondotik saguxarrak ikus-  
teko aukera, 20:00etatik  
aitzinera lezean.

**Pottokaren Eguna**

**Uztailaren 29an** 09:00etatik  
aitzinera frontoian.

ELIZONDO

**Baztandarren Biltzarra**

**Uztailaren 16an.** Artisau  
azoka, orgen desfilea,  
Mutildantzak, herri bazkaria,  
animazioa, dantzaldiak...

## Kontzertuak

SARA

**Ezpeletan kantuz  
abetesbataren saioa**

**Uztailaren 13an** 21:30ean  
elizan.

**Gaztelu Zahar abesbataren  
emanaldia**

**Uztailaren 19an** 19:30ean  
lezeetan. Sartzea 12 eurotan  
(16 urtetik beheitikoek  
urririk).

**Saiberri taldearen saioa**

**Uztailaren 27an** 21:30ean  
elizan. Sartzea 5 euro (16  
urtetik beheitikoek urririk).

## Nire aukera



**Patxi BERTIZ**  
Elgorriagako zinegotzia

*«Denen gustua egiten saiatzen gara,  
baina aunitzetan ezinezkoa da»*

**H**asieran lotsatia, baina berehala irekitzen den elgorriagar bat» dela erranez aurkeztu digu Patxi bere burua. Abeltzaintza, herri kirolak eta mendiko ibilaldiak ditu afizio eta denbora librean, «goizean goiz makila hartuta mendira joatea» gustatzen omen zaio «herriko mugetan barna itzuli eder bat egitea, eta euritan bada hobe». Astebururako planik ederrenaz galdetuta ere, ez du aparte utzi mendia: «famiarekin edo lagunekin mendian bazkari bat egitea» baita beretako planik ederrena. Bidaia-tzea ere atsegin du, «gustura joaten naiz hor barna», baina onartu digunez, «etorri ere gustura egiten naiz. Emazteak erraten didan bezala, *etxezorro*» baita. Maleta hartuta «leku polit aunitz» ezagututakoa da eta bat aukeratzekotan Kroazia aldera joan da: «emaztea eta biok gustura egon ginen Dubrovniken». Ezagutuko lituzkeenak, berriz, Norvegia eta Argentina: «baina momentuz urte batzuk itxaron beharko ditugu, etxeko tikiak ederki haunditu arte», dio irriz. Etxera bueltatuz, herriko tokirik gustukoena Larraburukoborda duela aitortu digu, «handik gure bailarako alderdi haundia ikusten da». Baina agerian gelditu da herria osotasunean maite duela: «erosotasun eta goxotasun haundia duen herria da». Maite duen herri horren alde lana egitea ere tokatzen zaio, zinegotzia baita, eta herriko bestak dira bere arduretako bat. Kontatu digunez, «batzuetan ardura haundia du zinegotziak. Denen gustua egiten saiatzen gara, baina aunitzetan ezinezkoa da». Zinegotzi denetik, «bestak lanean eta famiarekin ahal duan guztia egonez» pasatzen omen ditu, baina gisa berean, «gaueko ateraldiak utzi» dituela aipatu digu: «biharamunean edozein gauza prest egoteko». Halere, umoretsu dio «horretan zinegotzi izateaz aparte, bi ume tikiak badutela zer errana». Egitarauari dagokionez, toka txapelketa du maiteena, eta horrekin batera, «nola ez, zikiro jatea». Gehiago ere kontatu digu: «gure helduek ez dute gustuko hitz hau entzutea, baina elgorriagarrok izengoitia badugunez, aupa zorri-loak!». Badu bertze mezu bat ere, aski garbia: «herri aunitzetako bestak gainean ditugunez, jendeak errespetuz goza dezala bestaz. Gehiago ere bai: «elgorriagarrok eraso sexisten aurka gaude».

**«Herri aunitzeta-  
ko bestak  
gainean ditugu  
eta jendeari  
bestaz errespetu  
osoz gozatzeko  
erranen nioke».**

BERA

**Mariatxiak**

**Uztailaren 19an** 21:30ean  
Herriko Etxeko plazan  
Mariachi Imperial Elegancia  
Mexicana taldea.

IRURITA

**Dayna Kurtzen emanaldia**

**Uztailaren 21ean** Jauregiar-  
te tabernan, 21:00etan.

## Azokak

SARA

**Bertako ekoizleen azoka**

**Ortziralero** 16:30etik  
20:30era frontoian.

**Artisau eta merkatarien  
azoka**

**Astelehenero** 09:00etatik  
aitzinera plazan.

**Antigualeko gauzen azoka**

**Uztailaren 22an eta 23an**  
07:30etik aitzinera plazan eta  
kiroldegian.

ELIZONDO

**Baztango artisauen azoka**

**Uztailaren 29an** plazan,  
goizez.

## Lehiaketak

ARANTZA

**Arantzako txoko politenaren  
lehiaketa**

**Uztailaren 15era** arte  
aurkez daitezke lanak.

ESKUALDEA

**III. Argazki Lehiaketa**  
**erran.eus-en**

**Irailaren 12ra** arte  
aurkez daitezke lanak.

ZUGARRAMURDI

**'Ixtorioak begarrietara'  
kontakizun lehiaketa**

**Uztailaren 16ra** arte  
aurkez daitezke lanak.  
18 urtetik goitikoentzat da.

GOIZUETA

**'Zuk aukeratu, zuk dantza  
egin' II. lehiaketa**

**Uztailaren 31ra** arte  
aurkez daitezke lanak.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ELIZONDO.** Akulegi ka - rrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

**ITUREN.** Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

**ANZABAL**

INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- Aukera: 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

**ORONÓZ-MUGAIRI.** Pisu salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, margotu berria, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

**LEITZA.** Ingurune naturalan dagoen jatetxe-ostatua salgai. Modu onean. ☎948 397234.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@titi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES13 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

## DONEZTEBE

## ETXEBIZITZA BERRIAK

## SALGAI!

- ✓ 3 logela+terraza
- ✓ Egongela
- ✓ 2 bainugela
- ✓ Trastelekuak
- ✓ Sukaldea
- ✓ Garajea

✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortpenen.

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**  
Iniziatibak kalea z/g | DONEZTEBE



629 951 170

### ETXEBIZITZAK

### errentan emateko

**IRUÑEA.** Mendebaldeko auzoan pisua errentan emateko. 3 logela (bat bi ohatzetakoa), 2 komun, egongela, sukaldea, garajea. Ospitaleetatik hurbil. Kontserbatorio eta Liburutegiaren ondoan. Prezio onean. ☎628 581031.

**ALMUÑECAR** hirian, Granadako kosta tropikalean, etxebizitza errentan emateko abuztuko bigarren hamabostaldian. Pertsona bat edo biren zatitza egokia. Hondartzako lehen lerroan dago, igerilekua eta bista ederak. Guztiz ekipatua, aire egokituarekin. ☎658 943702.

**BERA.** Bidasoa Karrikan etxebizitza errentan emateko. Bi logela, bikomun, sukaldea eta egongela. Oso argitsua. Garajea bi marra eta trastelekuarekin. Igogailuarekin. ☎680 549808.

**IRUÑEA.** Ikasleentzako pisua errentan emateko. Hirigunetik gertu, ongi komunikatua eta bi unibertsitateen tartean. ☎626 899349.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**LESAKA.** Errentan hartzeko pisu baten bila gabiltza. Ahal bada igogailuarekin. Luzerako kontratua nahi genuke. ☎615717679

### GARAJEAK/LOKALAK

### errentan emateko

**DONEZTEBE.** Floristeria errentan emateko, atxanditu ezin delako.

☎699 333112 edo 689 800257.

**LANA**

eskaintzak

**On-line lanean aritzeko** zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertze langileak behar dira. ☎699 382673.

**BERA.** Sukaldeko altzariak salduko dituen komertziala behar dugu. Beharrezkoa da frantsesez jakitea. Ordutegiaz solastuko gara. Bidali curriculum: [amets@mueblesamets.com](mailto:amets@mueblesamets.com).

**LEITZA.** Iruso jatetxean zerbitzaria behar dute asteburuetarako. ☎669 013294.

**SUNBILLA.** Ariztigain kanpinetako jatetxean, jangelan, tabernan eta sukaldean esperientzia duen langilea behar dugu uztaila eta abuzturako. Interesatuak deitu. ☎660 798249.

**BERA.** Auzoan zerbitzariak behar dira. ☎657 472020 (whatsappez jarri harremanetan).

**BERA.** Lixoia ostatuan zerbitzaria behar dute egun erdiz aritzeko. ☎948 631271.

**ARESO.** Herriko pestetan tabernan lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎636 586335.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(ekainaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 63 €

**Zerri gizena**  
1,425€ kiloak.

**Zerramak:**  
0,810 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/k Kanal

**Extra** 4,32  
**1.koa** 4,10  
**2.koa** 3,90

**Urruxak:** €/k Kanal  
**Extra** 4,34  
**1.koa** 4,20  
**2.koa** 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 168,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 185,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,29/3,39  
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 7,20/7,80  
8-10 kilokoak: 5,80/6,30



## ZERBITZUAK

### zurgindegiak

**ARANTZA**  
Zurgindegiak.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gorritibaita - ARANTZA

## LANA

### eskariak

**Doneztebeko gazte arduratsu** batek haurrak zaintzen edo zerbitzari moduan lan eginen luke. Ordutegi arazorik gabe. **616 873984**.

Zonaldean lan bila dabilen **mutila** naiz. Zurgin-tzakoz ikasketekin. Metal, egur eta lorezaintzan esperientziaduna. Baita ostalaritzan platerak garbitzen ere. Sektore hauetan edota besteetan lan egiteko prest. Arduratsua eta ikasteko trebea. **635 017866**.

**Emakumezkoa** lan bila. Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo garbiketan esperientzia duena. Lan horietan aritzeko interesatua. **644 863469**

**ESKUALDEA**. Neska lan bila. Adinekoak interna bezala edo orduka zain-tzeko, haurrak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile bezala ere esperientzia eta interesa. **632 550393**.

Elizondoko **neska gaztea** lan bila. Haurrak edota adinekoak zainduko nituzke, etxeak garbitu edota zerbitzari lanetan ariko nintzateke. Esperientzia haurrak zain-tzen, baita garbiketan ere. **662 356181**.

Garbiketa arloan, haurrak zaintzen edota adinekoak zaintzen **lan bila eskualdean**. Garbiketan eta haurrak zaintzen esperientziaduna. **618 961807**.

Adinekoak eta haurrak **zaintzen** edo etxeak **garbitzen** lan egiteko prest. **686 947418**.

## MOTORRAK

### tailerrak

**GANIX**  
Tailerra




948 63 06 69  
Zalain Pol., 11. BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

## ANIMALIAK

### oparitzeko

**Katakumeak** oparitzeko. Bi eme eta ar bat. **626 335398**.



## ANIMALIAK

### salgai

**Ardi beltz nanoak** salgai. **689 531012**.

**LEITZA**. 4 urteko behia hilabeteko txekorrarekin salgai. **679 126188**.



## DENETARIK

### salerosketak

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. **948 585036**.

**ORONÓZ**. Egurra xehe-tua salgai. Paga eta haritza. Etxera eramane da. **676 242520**.



**IGANTZI**. logela salgai: bi ohatze (90 cm) beren koltxo eta koltxeekin, mesanotxea (3 kajoi), idaz-mahaia aulkiarekin eta apalak. Pinuzkoa, berdez tindatua. Guztia 500 euro. **661 767398**.

**BERAKOUDALA**

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA**  
-HIRIGINTZA-

Berako udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2017ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, A242ko Xehetasun Azterlana, 13. poligonoko 242. lur-zatiari dagokiona, onetsi zuen hasiera batez.

Espediente hau jendur-rean izanen da 20 egunez, dagokion iragarkia NAOan argitara ematen denetik.

Bera, 2017.06.23

ALKATEA,  
Josu Iratzoki Agirre

**KATEA BIKE**  
2. eskuko bizikletak



Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
kateabera@telefonica.net

**SANTESTEBAN TAILERRAK**  
Matrikulatu berria!

**CLIO ZEN DCI 90 CV**  
Nabigatzailea, aparkatzeko radar, llantak  
KM 0

**KANGOO PROFESIONAL**  
DCI 90 CV. Aire egokitua eta bluetooth integratua  
Matrikulatu berria! KM 0

**MEGANE INTENS DCI 90 CV**  
Nabigatzailea, aparkatzeko radara, llantak  
Matrikulatu berria! KM 0

AUKERA PAREGABEA!  
Leitzako errepidea **DONEZTEBE**  
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

**erran**

Mendialdeko Albistekak  
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia elkarrekin eskuko telefonoean eta tabletan

**ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK**





- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun in eta argazkiak bidaltzeko aukera in
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien arabera bilaketak egiteko aukerarekin

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN

Google play

Download on the App Store




**DONEZTEBE**. Haritz egurra salgai, 39 euro to-



na. Prezioa Donezteben jarria da. **686 314036** (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).

**ARANTZA**. Taxi plaza salgai. **617 296458**.

**GARTZAIN**. Ospitaleko ohea salgai, erdi-prezian. Arras guti erabilia.

Interesa baduzu edo ikusi nahi baduzu, deitu. **606 932466**.

  
**744 484 361**  
ttipi-ttapa



# PLAZAN BAZAN

Eooo! Hementxe gaude berriz ere!!!


MARIPURTZIL

PELLOZIRI



## ONGI BANATU

Animaliaz osatutako taula hau lau zatitan banatu behar duzu. Zati horietariko bakoitzak lau animalia ezberdin behar ditu bere baitan. Hau da, ardia, txerria, ahatea eta igela.

|                                                                                           |                                                                                           |                                                                                           |                                                                                            |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1<br>    | 2<br>    | 3<br>    | 4<br>    |
| 5<br>   | 6<br>   | 7<br>   | 8<br>   |
| 9<br>  | 10<br> | 11<br> | 12<br> |
| 13<br> | 14<br> | 15<br> | 16<br> |

Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

## JOLASTU INTERNETEN!! AUKERA ZABALA!

[plazanbazan.eus](http://plazanbazan.eus)



KIOSKOA | JOLAS-PARKEA | AZOKA | UDALETXEA | IKUSKIZUNAK | IPUINAK | KOMIKIAK | MARRAZKIAK  
SUDOKUA, MARGOTU, OSATU, PUZZLEAK, ALDEAK, ARROTZA, BAKOITZARI BERA, BILATU, DOMINOA, EZETZ ASMA,  
GOGOAN HARTU, HANDITIK TXIKIRA, IRUDI ENGAINARIAK, ITZALAK, LABIRINTOA, LERROA EMAN...

Sudokua • hostoak

Bete (ezazu) sudokua hostoekin (ezazu) zureak.



Osatu • elurretan


16 pieza jarraituz 4 baloi ez dira egokiak hutsaraino berrazaratu.

[Irudia ikusi]



Dominoak • arrainak

Falta diren arrainak osatu.



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)




## ALDEAK

Aurkitu bi marrazkien  
arteko 10 diferentziak

10  
DESBERDINTASUN

## ITZALA

Zein da, zortzi itzal hauen  
artean, erdian dagoen gamelu  
xelebreari dagokiona?





## urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



Berako ALAIN ENDARA RODRIGUEZ 5 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, Nahia eta Berako familiaren partetik.



Zorionak ATAUTXI! Uztailaren 28an urteak beteko dituzu. Oporretan egonen zara, baina seguru gaudela lehenxeko bazkari goxoa emanen diguzula. Muxu haundi bat familia guziaren partetik, eta bereziki zure hiru biloben partetik. Ongi pasa eguna!



Legasako JUNE MENDIBURU ANDRESENAK uztailaren 12an 4 urte beteko ditu. Zorionak Legasako familiaren partetik. Ongi pasa zure eguna. Muxu potolo-potolo pila bat zuretzat!!!



Zorionak RUBIA! Egun polit bat pasa eta arratsalde honetan utzi furgoneta alde batera, lagunok plan bereziagoa prestatu dizugu eta! 21 muxu...



IRENE PETIRENAK 35 urte beteko ditu uztailaren 12an. Zorionak Aritz, Enaitz, Izarne eta Joxemariaren partetik.




Lehenik zure merendua hartuko dugu 13an? Ondotik gurea etorriko da 21ean. Aunitz urtez MAIALEN eta AINARA!



Leitzako NAROIA eta UXUE MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK 10 eta 8 urte beteko dituzte uztailaren 4 eta 13an. Zorionak eta muxu haundi bana gure bi printzesei!!! Ongi pasa!!!



Elko, Nevada MITCHELL OWSLEY IGOAK 19 urte eginen ditu uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muxu haundi bat!



Lakuntzako AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK urteak beteko ditu uztailaren 27an. Egun on-ona pasa. Besarkada erraldoi bat familiaren partetik.



Lakuntzako MADDI SAN SEBASTIAN ARRAIZAK abuztuaren 13an urtebetetzea ospatuko du. Ongi pasa! Besarkada erraldoi bat familiaren partetik.



Elizondoko MATEI MENDIBURU milesker aunitz!! Bertze monitoreei ere bai, eta lagundu duten guztiei, egon garen Jabierreko kanpamentuan. Pablo Irazoki Olaizola eta talde guztiaren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soilak 5 EURO  
argazki bikoitzak 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

egin zure erosketa [erran.eus](http://erran.eus) en



## DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu:

## IRUDI KORPORATIBOAK

- Logotipoak eta Papergintza •

## ARGITALPENAK

- Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako programak •
- Udal aldizkariak, Folletoak, Liburuak •
- Mapak •

## BERTZE EUSKARRIAK

- Boletoak, Pegatinak, Lonak, Roll Up, Panelak Poltsak, Txapak, Rotulazioak •

## EGUTEGIAK

- Sakelekoak, Paretakoak, Mahai gainekoak •







## HAU EZ DA ZABORRA, ONGARRIA ETA ENERGIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zurekiko eta etorriko direnekiko konpromisoa jokatzea da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurrrako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

**EZ EGIN PASO  
ORGANIKOAZ!**



## ESTO NO ES BASURA, ESTO ES ABONO Y ENERGÍA

Separar y reciclar los restos de materia orgánica es un compromiso irrenunciable y un acto generoso con los tuyos y con los que vendrán. Tu colaboración permite reducir la emisión de gases contaminantes, producir abono para la tierra y ahorrar energía.

**¡NO PASES DEL MARRÓN!**





## Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Ko-kontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**689** aleko  
irabazleak >



## ZOZKETAK

Lote bat



**MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

2 sarrera



**IRRISARRI LAND**

[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat


**LA RHUNE**

[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera helduentzat

**LI  
BU  
RU  
AK**



- Ni eta animalia basatiak  
Liesbet Slegers

ibaizabal  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.baga-biga.eus](http://www.baga-biga.eus)



[www.lesakakoudalkiroldegia.com](http://www.lesakakoudalkiroldegia.com)